

**GRADUA: EAZ + ZUZENBIDEA**

2020/2021 IKASTURTEA

***AU REVOIR, GRANDEUR:***  
**AFRIKAKO LURRALDE FRANTSESEN  
DESKOLONIZAZIOTIK NEOKOLONIALISMORA  
ARTEKO HISTORIA EKONOMIKOA**

EGILEA: Olga del Pozo Muñoz

ZUZENDARIA: Igor Goñi Mendizabal

Bilbo, 2021eko otsailaren 11n



## LABURPENA

XIX. mendeko amaieratik XX. mendeko lehen erdira arte, Frantzia, Erresuma Batuen atzetik, munduko potentzia kolonial garrantzitsua izan zen, bere boterea mundu osoan zehar hedatu zuelarik. II. Mundu Gerra ostean hasitako deskolonizazio prozesu luzeak estatus hegemoniko hori progresiboki atzean uztera behartu zuen, baina horrek ez zuen kolonia ohien gaineko dominazioaren abolizioa ekarri, Afrikako herrialde frankofonoen kasuan harreman oso estuak mantentzeko ahaleginak egin zirelarik.

Kolonialismoaren azken urteotan indarra hartutako korrante cartieristak Inperio Frantsesaren errentagarritasuna kolokan jarri zuen arren, harreman franko-afrikarrak mantentzeko behararen atzean interes ekonomikoek, oro har, pisu handia izan zuten. Kolonia ohien eta metropoliaren arteko interdependentzia ekonomikoa argudiatuz, Frantziak Estatu independente eta subiranoen autonomian esku hartzen zuten politika neokolonialistak jarri zituen martxan, garapenerako laguntza tekniko eta finantzarioaren truke. Antzinako potentzia kolonialak alor ekonomikoan baliatutako mekanismo nagusiak, besteak beste, baliabide naturalen esplotazioaren gaineko lehentasuna ziurtatzea eta Altxor Frantsesari lotutako CFA frankoaren ezarpena izan ziren.

Dinamika (neo)kolonialen betiketzeak *Françafrique* terminoaren jaiotza ekarri zuen, zeinek *France* eta *Afrique* hitzak elkartzen dituen. Luzaroan ukiezin mantendu den egitura estraofiziala izan arren, honen ezabapena gertu dagoela dirudi, azken urteotan gero eta gehiago baitira *Françafrique*-n inguruko iritzi kritikoak, bai Frantzian bai hamarkadetan zapalkuntza pairatu duten herrialde afrikarretan.

## AURKIBIDEA

<b>0. Sarrera</b> .....	5
<b>1. Aurrekariak</b> .....	6
1.1. Inperialismoa eta kolonialismoa .....	6
1.2. Afrika banatzea: Berlingo Konferentzia (1884 – 1885) .....	7
<b>2. Deskolonizazio prozesua: hurbilketa bat</b> .....	11
2.1. Abiapuntua: 1945eko Konferentzia .....	12
2.2. NBE-ren mekanismo juridikoak .....	14
<b>3. Inperio Frantsesa eta honen desegitea</b> .....	19
3.1. Inperio Frantsesaren egitura .....	19
3.2. Kolonialismoa erreformatzen: Batasun Frantsesa .....	20
3.3. Inperioaren azken hasperena: Komunitate Frantsesa .....	23
3.4. Inperioaren errentagarritasuna kolokan .....	25
3.4.1. Merkatuen arteko interdependentzia .....	25
3.4.2. Zama koloniala .....	28
<b>4. <i>Françafrique</i>: neokolonialismoaren auzia</b> .....	30
4.1. Baliabide naturalen esplotazioa eta dependentzia estrategikoa .....	32
4.1.1. Uranioa: Niger-en kasua aztergai .....	35
4.1.2. Petrolioa: Gabonen kasua aztergai .....	38
4.2. CFA frankoa: moneta politika neokoloniala .....	42
<b>5. Deskolonizazio eredu ezberdinak: Aljeria eta Boli Kosta</b> .....	46
5.1. Aljeria: integraziotik haustura biolentora .....	47
5.1.1. Independentzia aurreko testuingurua eta Aljeriako gerra (1954 – 1962).....	47
5.1.2. Independentzia osteko ekonomia eta Frantziarekiko lotura .....	50
5.2. Boli Kosta: Frantziaren lagun kuttuna .....	54
5.2.1. <i>Le miracle ivoirien</i> : kakaoaren indarra (1960 – 1980) .....	54
5.2.2. Mirariaren amaiera: krisialdia eta gatazka armatuak .....	56
5.2.3. Garapenerako laguntza frantsesarekiko dependentzia eta egungo egoera .....	58
5.3. Ekonomia eta garapen adierazle nagusien arteko konparaketa .....	60
<b>6. Ondorioak</b> .....	62
Bibliografia.....	65
I Eranskina. Gaur egungo lurralde ez-autonomoak, eskualdeka .....	69
II Eranskina. Antzinako lurralde ez-autonomoak eta fideikomiso lurraldeak .....	70

## GRAFIKOAK

1. <b>grafikoa.</b> <i>Potentzia administratzaileen fideikomiso eta lurralde ez-autonomoak (1945) ...</i>	16
2. <b>grafikoa.</b> <i>Frantziak eta Erresuma Batuak emandako garapen laguntzak .....</i>	28
3. <b>grafikoa.</b> <i>BPG eta biztanleriaren bilakaera Frantzian (1890-2018).....</i>	29
4. <b>grafikoa.</b> <i>Meatzetatik eratorritako uranio produkzioa (tonatan) .....</i>	35
5. <b>grafikoa.</b> <i>Niger-eko uranio erauzketa kontrolatzen duten joint venture-ak .....</i>	36
6. <b>grafikoa.</b> <i>Frantzia eta Niger-en BPG per capitaren alderaketa (USD) .....</i>	38
7. <b>grafikoa.</b> <i>BPG eta biztanleriaren bilakaera Niger-en (1950-2018) .....</i>	38
8. <b>grafikoa.</b> <i>BPG eta biztanleriaren bilakaera Gabonen (1950-2018).....</i>	40
9. <b>grafikoa.</b> <i>Frantzia eta Gabon-en BPG per capitaren alderaketa (USD) .....</i>	41
10. <b>grafikoa.</b> <i>BPG eta biztanleriaren bilakaera Aljerian (1950-2018) .....</i>	53
11. <b>grafikoa.</b> <i>Frantziak Aljeriarekin mantendutako merkatu harremanen bilakaera (milioi €) .....</i>	54
12. <b>grafikoa.</b> <i>Munduko kakao ekoizle nagusiak (2019) .....</i>	55
13. <b>grafikoa.</b> <i>BPG eta biztanleriaren bilakaera Boli Kostan (1950-2018) .....</i>	56
14. <b>grafikoa.</b> <i>Frantziak Boli Kostarekin mantendutako merkatu harremanen bilakaera (€) ..</i>	58
15. <b>grafikoa.</b> <i>Ekonomia bolikostarra sektoreka.....</i>	59
16. <b>grafikoa.</b> <i>Aljeria, Boli Kosta eta Frantziaren BPG per capitaren alderaketa (USD).....</i>	60
17. <b>grafikoa.</b> <i>Garapen indizeen arteko alderaketa .....</i>	61

## IRUDIAK

1. <b>irudia.</b> <i>Afrikako banatzea potentzia europarren artean (1913).....</i>	8
2. <b>irudia.</b> <i>Komunitate Frantsesa 1959an .....</i>	24
3. <b>irudia.</b> <i>CFA frankoa duten herrialdeak, zonaldeka .....</i>	44

## TAULAK

1. <b>taula.</b> <i>Atzerrian inbertitutako kapitala (mila milioi frankotan).....</i>	10
2. <b>taula.</b> <i>1914an atzerrian inbertitutako kapitalaren lurralde banaketa (50 milioi USD) .....</i>	10
3. <b>taula.</b> <i>1914an atzerrian inbertitutako kapitalaren lurralde banaketa (%).....</i>	10
4. <b>taula.</b> <i>Potentzia europarren kolonien azalera (mila km<sup>2</sup>-tan) eta populazioa (milakoetan) .....</i>	12
5. <b>taula.</b> <i>1960ko Herrialde kolonialen independentziari buruzko aldarrikapenaren ostean (1514-XV Ebazpena) independentzia lortu duten lurraldeak.....</i>	18
6. <b>taula.</b> <i>Frantziako inportazioetan inperiotik eratorritako zatia (%).....</i>	26
7. <b>taula.</b> <i>Frantziako esportazioetan inperioak jasotako zatia (%).....</i>	27
8. <b>taula.</b> <i>Metropoli frantsesaren eta kolonia (ohien) arteko elkartruke komertzialak.....</i>	31
9. <b>taula.</b> <i>Frantziaren dependentsia tasa Afrikako lehengaiekiko 1980an.....</i>	33
10. <b>taula.</b> <i>Frantziaren zatia merkatu aljeriarrean .....</i>	51

## 0. SARRERA

Lan honen helburu nagusia Frantziaren botere pean egondako kolonia afrikarren deskolonizazio prozesuari hurbilketa eta analisi ekonomiko orokor xume bat egitea da, deskolonizazioak bai metropolian bai emantzipatutako herrialde jaioberrietan gaur egunera arte izandako eraginak aztertuz.

Gai oso zabal eta konplexua izanik, aspektu ekonomikoak behar bezala aztertu baino lehen testuinguru orokorraren azalpen bat ematea beharrezkoa da. Izan ere, deskolonizazioak zer suposatu zuen ulertzeko, kolonialismoari buruzko oinarrizko nozioak ezagutu beharra dago. Horrekin batera, eta lan honi izaera bikoitza emateko helburuarekin, deskolonizazioaren aspektu juridiko basikoak labur aztertuko dira, Nazio Batuen Erakundearen paperean arreta berezia jarriko delarik.

Lanaren egiturari dagokionez, jarraitutako ibilbide-orria testuinguru orokorretik zehatzera igarotzea da, hau da, behin eragin globala izan zuten alor orokorrak azalduta, herrialde zehatzen kasuak sakonago aztertzea. Gauzak horrela, 1. atalean aipatu berri den kolonialismoaren oinarrizko kontzeptua finkatuko da; 2. atalean deskolonizazio prozesua perspektiba global batetik aztertuko da; 3. atalean, lanaren muinean sartzen hasiz, Inperio Frantsesaren desagiteari helduko zaio, Frantziak deskolonizazioaren kontra agertzeko zituen interes ekonomikoei erreparatuz; 4. atalean, Frantziak independentzia ostean kolonia ohien gaineko kontrola izaten jarraitzeko erabilitako mekanismo neokolonialak aztertuko dira, Niger eta Gabonen kasu zehatzak sakonago aztertuz; azkenik, 5. atalean deskolonizazio prozesu kontrajarriak izandako bi herrialderen analisisa eta alderaketa burutuko da, independentzia gerra izandako Aljeria alde batetik, eta autoritate frantsesekin adiskidetasuna mantendutako Boli Kosta, bestetik.

Afrika herrialde ugari eta testuinguru anitz biltzen dituen kontinente zabala izanik, zonalde frankofonoaren baitan profil politiko eta ekonomiko ezberdinak dituzten kasuak aukeratu ditut, modu horretan aspektu ezberdinak aztertu ahal izateko. Are gehiago, Afrika nolabaiteko masa homogeen bat bezala atzematen duen ikuspegi eurozentristik aldentzea oso garrantzitsua dela deritzot, kontinente honen inguruan orokorrean dagoen izugarritzko ezjakintasuna behintzat apur bat murrizten saiatzearekin batera. Herrialde bakoitzak bere egoera eta testuinguru partikularra du, eta lan honetan aukeratu eta analizatutako estatu bakoitzaren berezitasunak azpimarratu nahi izan ditut.

Bestalde, jarraitutako metodologia nagusiki monografia eta artikuluen akademikoen bilketan oinarritu da, iturri frankofonoak lehenetsiz, zeinetan oro har deskolonizazio frantsesaren gaia

sakonago landu den. Horrez gain, aipatutako lanaren izaera bikoitza ziurtatzeko, tratatuak, ebazpenak, legeak eta bestelako tresna juridikoak aipatzerako orduan, jatorrizko iturrietara jo izan dut, argitaratutako dokumentu ofizialak baliatuz.

Hitz gutxitan esanda, lan honen bitartez erantzuten saiatuko naizen galdera hurrengokoa da:

Norentzat izan zen onuragarria deskolonizazioa?

## **1. AURREKARIAK**

### **1.1. Inperialismoa eta kolonialismoa**

Menekotasunean oinarritutako botere-harremanak aldagai konstantea izan dira historian zehar, hauen atzean interes ezberdinak aurki daitezkeelarik (politikoak, ekonomikoak, geoestrategikoak...). Egitura hauetako batzuk desagertuz joan diren bitartean (Antzinako Erromako hiritar libre eta esklaboen arteko dikotomia, Erdi Aroko feudalismoa...), beste batzuk duela gutxira arte indarrean izan dira. Hori da, hain zuzen ere, inperialismoaren adibidea, azken mendeotan kolonialismoarekin batera eskuz esku aurrera eraman dena.

Britannica entziklopedian aurki daitekeen inperialismoaren definizioa hurrengokoa da: “Inperialismoa boterea eta nagusitasuna hedatzea defendatzen duen estatu-politika edo praktika da, batez ere zuzeneko lurralde-eskurapenaren bitartez eta beste eremu batzuen kontrol politiko eta ekonomikoa lortuz bideratzen dena. Boterearen erabilera nahitaez suposatzen duenez, hau militarra, ekonomikoa edota bestelako forma sotilagoa izanik, inperialismoa maiz moralki gaitzesgarritzat jo izan da, eta terminoa askotan etsai baten kanpo-politika salatu eta honen izena zikintzeko nazioarteko propaganda gisa erabiltzen da”<sup>1</sup>. Arestian aipatu bezala, kolonialismoarekin lotura oso estua du, azken hau inperialismoaren tresna gisa ulertu daitekeelarik, edo, are gehiago, inperialismo beraren aldaera gisa.

Inperialismoa fenomeno ezberdinak bil ditzakeen kontzeptu zabala den bitartean, Britannica entziklopediak testuinguru askoz zehatzagoa ematen dio kolonialismoari: “Mendebaldeko kolonialismoa fenomeno politiko-ekonomikoa da, zeinaren bitartez Europako hainbat naziok munduko eremu handiak esploratu, konkistatu, okupatu eta esplotatu zituzten”<sup>2</sup>. Beraz, nahiz

---

<sup>1</sup><https://www.britannica.com/topic/imperialism>, 2020ko urriaren 24an ikusia. Britannica entziklopediako aipatutako definizio guztien itzulpena pertsonala da.

<sup>2</sup><https://www.britannica.com/topic/Western-colonialism>, 2020ko urriaren 24an ikusia. Aipatzekoa da “Mendebaldeko kolonialismo” terminoaren sarrera berria dela, eta 1990era arteko edizioak soilik “Kolonialismo” terminoa biltzen duela. Dena den, batak zein besteak 1500. urte inguruan garatzen hasi zen europar hedapenari

eta kolonialismoa inperialismoaren barruan koka daitekeen, inperialismoa ezin da beti kolonialismo gisa ulertu<sup>3</sup>. Hitz gutxitan esanda, kolonialismoa Europako metropolien hedapen politikari mugatzen da. Bestalde, inperialismo koloniala, zehazki XIX. mende amaiera eta XX. mende hasiera bitartean garatu zena, *New Imperialism*<sup>4</sup> bezala, hau da, “Inperialismo Berri” bezala izendatu izan da, historikoki tradizio inperialista gabeko potentzia kolonial berrien agerpenari (Alemania, Italia, Japonia, Errusia eta Estatu Batuak) erreferentzia egiten diona.

Laburbilduz, eta menekotasunean oinarritutako botere-harremanen kontzeptura itzulita, kolonialismoaren kasuan potentzia kolonialak, hau da, metropoliak, izango lirateke jaun eta jabe, koloniak zapaldutako herri bihurtzen diren bitartean.

## **1.2. Afrika banatzea: Berlingo Konferentzia (1884 – 1885)**

1880. urtera aldera, europar presentzia Afrikan kontinente honen kostaldera mugatzen zen. Lehendabizi Portugal eta Espainia sartu ziren XV. mendetik aurrera, eta ostera Holanda, Danimarka, Frantzia eta Erresuma Batua. Herrialde europar hauek esklaboen salerosketa dela medio etekin handiak lortu zituzten<sup>5</sup>.

Berlingo Konferentziak, 1884ko azaroaren 15a eta 1885eko otsailaren 26a bitartean ospatu zena, Afrikako kolonizazio ofizialari hasiera eman zion<sup>6</sup>. Beste era batera esanda, ordura arteko inperialismo “informaletik”, zeinek influentzia militar eta kontrol ekonomikoa baliatzen zuen, lurraldeen erabateko eta zuzeneko menperatzera igaro zen<sup>7</sup>. Bilera honen helburua potentzien arteko gatazka posibleak saihestea izan zen, isilbidez hurrengo gidalerro edo arauak ezarri zirelarik: potentzia bakoitza kontrolatutako lurraldean mantentzea, gainerakoek domeinuak errespetatuz; kolonia bakoitza bere metropoliaren interesetatik haratago baliatu ahal izatea, eta, ondorioz, kolonien lehengaiak eta bestelako ondasunak modu askean merkaturatzea posible izatea. Honek guztiak auzi kolonialaren nazioartekotzea ekarri zuen, betiere metropolien

---

egiten dio erreferentzia. Azken garaiotan burututako aldaketa horrek ez du definizioa aldatu, baina herrialde europarrek sustatutako fenomenoaren izan zela are gehiago azpimarratzen du.

<sup>3</sup>Esaterako, Erromatar Inperioa edota Persiar Inperioa badira inperialismoaren adierazle, baina ez dira inolaz ere inperialismo kolonialaren markoan sartzen.

<sup>4</sup><https://www.britannica.com/topic/New-Imperialism>, 2020ko urriaren 24an ikusia.


<sup>5</sup>CEAMANOS, Roberto: *El reparto de África. De la Conferencia de Berlín a los conflictos actuales*, Casa África, Madril, 2017, 23. or.

<sup>6</sup>KABUNDA BADI, Mbuyi: “Prólogo. De la Conferencia de Berlín al acaparamiento de las tierras. O de la primera a la segunda colonización de África”, in Roberto CEAMANOS: *El reparto de África. De la Conferencia de Berlín a los conflictos actuales*, Casa África, Madril, 2017, 7. or.

<sup>7</sup>SHILLINGTON, Kevin: *History of Africa*, Palgrave MacMillan, Londres, 2005, 301. or.

mesedetan arituz eta hedapen kolonialaren diplomazia alorrean nolabaiteko oinarrizko printzipioak garatuz<sup>8</sup>.

### 1. irudia. Afrikako banatzea potentzia europarren artean (1913)



Iturria: Gaba, E. (2007), [https://commons.wikimedia.org/wiki/File:Colonial\\_Africa\\_1913\\_map.svg](https://commons.wikimedia.org/wiki/File:Colonial_Africa_1913_map.svg),

2020ko urriaren 24an ikusia.

Aipatzekoa da han bildutako hamahiru nazio europarre<sup>9</sup> eta Estatu Batuek esklabotzaren amaiera aldarrikatu zutela<sup>10</sup>. Herrialde hauek, pertsonen salerosketa gaitzetsi zuten konferentzia berean, kontinente afrikarra banatzeko elkartu ziren, lurralde horren gaineko jabetza legitimoa balute bezala, inperialismoak nahitaez dakarren herrien zapalkuntza inolako kontraesan ideologiko edo gatazkarik suposatu ez zuelarik. Gainera, ordura arte izandako esklabotza erregimena populazio afrikarraren bortxazko lanaren bitartez ordezkatu zen, lan baldintza negargarri antzekoekin<sup>11</sup>. John A. Hobson ekonomista britainiarraren ustetan, inperialismoa,

<sup>8</sup>MAZZEO, Domenico: “Les Nations Unies et la diplomatie de la décolonisation”, *Études internationales*, 3. zk., 1972, 331. or.

<sup>9</sup>Alemania, Belgika, Espainia, Erresuma Batua, Italia, Inperio Otomandarra, Austro-Hungariako Inperioa, Danimarka, Herbehereak, Errusia eta Suedia eta Norbegiaren arteko batasuna.

<sup>10</sup>CAMERON, Rondo: *Historia económica mundial. Desde el Paleolítico hasta el presente*, Alianza, Madril, 1992, 342-343 or.

<sup>11</sup>CEAMANOS, Roberto: *op. cit.*, 23, 74-78 eta 84 or. Langileen familiak bahitu edo gatibu hartzea gizonak lanera joan zitezen ohiko bilakatu zen Afrika kolonialean, eta ihesaldi saiakerek zigor fisiko gogorak zekartzaten. Praktika hauen existentzia aztertzeko, 1905ean Frantziak ikerketa komisio bat bidali zuen kolonietara, Pierre Savorgan de Brazza-ren zuzendaritza pean. Dokumentatutako kasuen artean, Bangui-tik gertu emandako 58 emakume eta 10 umeren bahiketa azpimarratzekoa da. Ekintza honen helburua familia horien gizonak *Compagnie des caoutchous* delakoarentzat kautxua biltzera behartzea izan zen. Bahiketak 5 aste iraun zuen, eta soilik 13 emakume eta 10 umek biziraun zuten. Nahiz eta bortxazko lanen inguruko eskandalua gertatu (hori izan zen



zentzu politikoan, autokraziaren hedapen bat da, eta Inperialismo Berri deritzon horrek ez zituen metropolietako askatasun politiko eta zibilak 1870. urtetik aurrera Mendebaldeko potentzia “zibilizatuen” pean geratutako lurralde bakar batera esportatu<sup>12</sup>.

1870 eta 1914. urteen bitartean finkatutako inperioek lehia ekonomikoan oinarritu zuten haien lidergoa, garatzen ari zen nazioarteko harremanen hierarkian oso garrantzitsua baitzen gaitasun ekonomiko nahikoa eta gobernu kudeaketa egokia izatea<sup>13</sup>. Beraz, interes ekonomikoa faktore erabakigarria izan zen kostaldeko eremuetatik haratago Afrikako europar okupazioa aurrera eramateko, 1873ko nazioarteko krisiak behar hori areagotu zuelarik. Izan ere, Bigarren Iraultza Industrialak eta Estatu Batuetako gerra zibilaren amaierak ekoizpen industrialaren bolumena areagotzea ekarri zuten, eta Europako nekazaritza eta abeltzaintzak itsasoaz bestaldeko lehiari aurre egin behar zioten<sup>14</sup>.

Gainera, gainproduktio eta langabezia dela eta emigratzera behartuta zeuden europarrentzat irtenbide bat topatu beharra zegoen. Krisialdiak, oro har, jarrera protekzionistak bultzatu zituzten, eta herrialde europarrek haien produktuentzako merkatu berriak Afrikako kolonietan aurkitu zituzten<sup>15</sup>.

Gehiegizko produktioari aurre egiteko beharraz aparte, garaiko kapitalismo industrialak sortutako *gehiegizko kapitala* arazo bilakatu zen ere herrialde europarrentzat. Ondasunentzako merkatu berriak aurkitu behar ziren antzera, kapitala nonbaiten inbertitu beharra zegoen. Potentzia okzidentalek kolonialismoa krisialdia gainditzeko eta kapitalaren etekinak maximizatzeko panazea gisa ikusi zuten. Herrialde atzeratuetan etekinak altuak ziren, kapitala eskasa zelako, lurraldea prezio baxukoa, soldata txikiak eta lehengaiak merkeak. Hitz gutxitan esanda, kapitala esportatzeko beharraren arrazoia herrialde gutxi batzuetan gertatutako

---

ikerketa komisioa sortzearen arrazoia), egoerak ez zuen hobera egin. Esaterako, administrazio kolonial frantsesaren pean 1921 eta 1934 urteen bitartean burututako Kongo-Ozeano trenbidearen eraikuntza prozesuan 20.000 langile inguru bizia galdu zuten.

<sup>12</sup>HOBSON, John A.: *Imperialism: A Study*, James Pott & Co., New York, 1902, 25. or. Erabilitako kakotzak nireak dira.

<sup>13</sup>GRANADOS ERAZO, Oscar: “Imperios y colonialismo, 1870-1914 ¿Una era de Globalización, Geopolítica o Nacionalismo Económico?”, *Revista de Relaciones Internacionales, Estrategia y Seguridad*, 5. bol., 1. zk., 2010, 54-55 or.

<sup>14</sup>CEAMANOS, Roberto: *op. cit.*, 35. or.

<sup>15</sup>Kolonialismoaren arrazoi ekonomikoan sakontzeko, ikusi arestian aipatutako John A. Hobson autoreak 1902. urtean argitaratutako *Imperialism: A Study* liburua.

kapitalismoaren “gehiegizko garapena” izan zen, kapitalak (nekazaritzaren atzerapen eta masen pobrezia-oren ondorioz) inbertsio “errentagarriak” burutzeko eremurik aurkitu ezin zuelarik<sup>16</sup>.

*1. taula. Atzerrian inbertitutako kapitala (mila milioi frankotan)*

Urtea	Britainia Handia	Frantzia	Alemania
1862	3,6	--	--
1872	15	10 (1869)	--
1882	22	15 (1880)	?
1893	42	20 (1890)	?
1902	62	27-37	12,5
1914	75-100	60	44

Iturria: Lenin, V. (1916)

1. taulak XIX. mende erdialdetik XX. mende hasierara emandako kapital esportazioaren, hau da, atzerriko inbertsioen, hazkunde nabaria azaltzen du, baina garaiko testuingurua era egokian finkatzearen hura nora bideratu zen zehaztea beharrezkoa da. Hurrengo tauletan, inbertsio hori hein handi batean kolonizatutako lurraldeetara bideratu zelaren tesia baieztatzen da, bereziki Britainia Handiaren kasuan:

*2. taula. 1914an atzerrian inbertitutako kapitalaren lurralde banaketa (50 milioi USD)*

Helmuga	Erresuma Batua	Frantzia	Alemania	Estatu Batuak	Beste batzuk	Guztira
Europa	1.050	4.700	2.550	700	3.000	12.000
Latino Amerika	3.700	1.600	900	1.650	1.050	8.900
Ozeania	2.000	100	--	--	--	2.100
Asia	3.550	1.250	700	350	1.350	7.100
Afrika	2.450	900	500	--	200	4.050
Ipar Amerika	7.050	500	1.150	900	1.500	11.100

Iturria: Woodruff, W. (1982)

*3. taula. 1914an atzerrian inbertitutako kapitalaren lurralde banaketa (%)*

Helmuga	Erresuma Batua	Frantzia	Alemania	Estatu Batuak	Beste batzuk	Guztira
Europa	9	39	21	6	25	100
Latino Amerika	42	18	10	18	12	100
Ozeania	96	4	--	--	--	100
Asia	50	18	10	3	19	100
Afrika	60	22	12	--	6	100
Ipar Amerika	63	4	10	8	15	100

Iturria: Woodruff, W. (1982)

<sup>16</sup>LENIN, Vladimir I.: *El imperialismo, fase superior del capitalismo*, Fundación Federico Engels (itz.), Madril, 1916, 38. or. [https://www.fundacionfedericoengels.net/images/PDF/lenin\\_imperialismo.pdf](https://www.fundacionfedericoengels.net/images/PDF/lenin_imperialismo.pdf), 2020ko urriaren 25ean ikusia.

Laburbilduz, ekonomia koloniala nekazaritzan oinarritu zen: kolonizatzaileek arrakasta komertzial gehieneko laborantzak ekoitz zituzten ezarri zieten afrikarrei (kakahuetea, kotoia, palma olio eta kakaoa), aldi berean metropolietan fabrikatutako eskulanak esportatu eta merkatu afrikarretan saltzen zituztelarik<sup>17</sup>. Bestalde, lehengaien erauzketak paper garrantzitsua jokatu zuen kolonien errentagarritasuna posible egiterako orduan: automobilgintza sektoreak, esaterako, kautxu eta marfilaren eskaria izugarri handitu zuen nazioarteko merkatuetan. Aipatutako kapitalen esportazioa merkatu gaien esportazioa sustatzeko tresna izatera igaro zen<sup>18</sup>. Azkenik, azpimarratzekoa da esplotazio koloniala garraio iraultzari esker posible izan zela, honek merkatu europar eta afrikarren arteko fluxua bermatu baitzuen.

Interes ekonomikoek pisu handia hartu zuten arren, faktoreak anitzak izan ziren, eta jingoismoa eta potentzia europarren handikeria nahiak kolonialismoa bultzatu zuten arrazoiaren artean koka ditzakegu ere. Honen harira, egokia da Eugen Richter XIX. mendeko politikari progresista alemanaren hitzak gogoraraztea: “Mundu mailako estatu-politika, nazio batentzat, megalomania pertsona bakar batentzat dena da”. Megalomania horri lotuta, europar zuriak gainerako arrazen gainean aldarrikatu zuten ustezko nagusitasuna eta “zibilizatu gabeko” gizarteak gidatzeko betebeharrak morala aipatzekoak dira, mendebaldeko konkistatzaileek argudio hauek mendeetan zehar erabili dituztelarik.

Denborak aurrera egin ahala, gizartean onargarritzat hartzen diren printzipio edo baloreak aldatuz joan ziren, bereziki gerraoste testuinguruan. Atzera begiratuta, inperio kolonialen amaiera zein estatu-nazioen garapena fenomeno ekidin ezinak ziruditen II. Mundu Gerra ostean<sup>19</sup>.

## **2. DESKOLONIZAZIO PROZESUA: HURBILKETA BAT**

Deskolonizazioa koloniak herrialde kolonizatzailetik independentzia lortzeko prozesua da. Deskolonizazioa graduala eta baketsua izan zen gehienbat populazio erbesteratuaz osatutako kolonia britainiarrentzat, baina biolentoa beste batzuentzat, non nazionalismoak suspertutako natiboen matxinadak gertatu ziren. II. Mundu Gerra ondoren, Europako herrialdeek ez zuten, oro har, urruneko erreboltak kontrolatzeko ez beharrezko aberastasunik ez babes politikorik.

---

<sup>17</sup>CEAMANOS, Roberto: *op. cit.*, 67. or.

<sup>18</sup>LENIN, Vladimir I.: *op. cit.*, 40. or.

<sup>19</sup>COOPER, Frederick: “Reformando el Imperio, acabando con el Imperio: Francia y África Occidental, 1944-1960”, Sergio CABALLERO SANTOS (itz.), *Revista Académica de Relaciones Internacionales*, 8. zk., 2008, 3. or.

Gainera, super potentzia berrien partetik, Estatu Batuak eta Sobietar Batasuna, gaitzespena pairatu zuten, biek kolonialismoaren aurkako jarrerak hartu zituzten eta<sup>20</sup>. Beraz, nahiz eta kontzeptua sinplea eta ulergarria dirudien, errealitatean aurrera eramandako prozesua hamarkadetan zehar luzatutako interes kontrajarriz jositako gatazka izan zen.

**4. taula.** *Potentzia europarren kolonien azalera (mila km<sup>2</sup>-tan) eta populazioa (milakoetan)*

	AZALERA		POPULAZIOA	
	1938	1999	1938	1999
<b>Erresuma Batua</b>	14.643	13	466.716	294
<b>Frantzia</b>	12.106	121	70.586	2.295
<b>Herbehereak</b>	2.072	1	68.375	302
<b>Belgika</b>	2.404	—	14.300	—
<b>Portugal</b>	2.110	0	10.610	433
<b>Italia</b>	3.425	—	12.870	—
<b>Espania</b>	334	0	1.055	145
<b>GUZTIRA</b>	37.094	135	644.512	3.369

— : hertsiki nulua ; 0 : erabilitako unitate erdia baino txikiagoa

Iturria: Etemad, B. (2000)

### 2.1. Abiapuntua: 1945eko Konferentzia

Nahiz eta Nazio Batuen Erakundearen papera XX. mendeko deskolonizazioa aurrera eramateko inflexio-puntutzat hartzen den, ez zen prozesua sustatzen saiatu zen lehendabiziko nazioarteko erakundea. 1919an, Nazioen Sozietateak, aldarrikapen antikolonialak burutu zituen, Woodrow Wilson presidente ipar amerikarraren gidaritza pean. Errebindikazio hauen jatorria presidente estatubatuarrek 1918ko urtarrilaren 8an bere herrialdeko kongresuaren aurrean emandako hitzaldi historikoan dugu, zeinetan I Mundu Gerra amaitu eta bakea berrezartzeko neurriaren proposatu zituen, gerora 14 Puntuak (*14 Points*) bezala ezagutu eta garaiko bake negoziazioei ekiteko funts gisa hartuko zirenak.

Besteak beste, Wilson-ek bake itunak eta diplomazia gardena sustatzea, nabigazio askatasuna muga ekonomikoen ezabatzea, armamentu nazionalaren murrizketa, gerran zehar subiranotasuna galtutako herrialdeen independentzia berrezartzea eta munduko nazio guztien berdintasun politikoa bermatuko lukeen elkarte orokor bat sortzea proposatu zuen. Aldarrikapen antikolonialei gagozkiolarik, 5. puntua espresuki aipatu beharrekoa da:

<sup>20</sup><https://www.britannica.com/topic/decolonization>, 2020ko urriaren 25ean ikusia.

“Aldarrikapen kolonial guztiei erantzun aske, ireki eta guztiz inpartziala ematea. Subiranotasun-arazo horiei guztiei heltzerako orduan, eragindako herriaren interesek determinatzeke dagoen gobernuaren eskaeren pisu berdina izan behar dutelako printzipioa zorrotz aplikatuko da”<sup>21</sup>.

Wilson-en ideiak idealistatzen jo ziren. Orokorrean, presidentek aurkeztutako puntu gehienak Frantzia eta Britainia Handiaren partetik baztertuak izan ziren Versailles-ko Tratatuaren eratzeko elkartu zirenean. Hala eta guztiz ere, Wilson-ek oinarritzko eta beharrezkoentzat zuen proposamena aurrera ateratzea lortu zuen: mundu mailako bakearen bermatzaile izango zen nazioarteko erakunde bat eratzeko, zeinaren bitartez nolabaiteko segurtasun kolektiborako sistema bat ezar zitekeen. Jaiotako erakundea, hain zuzen, arestian aipatutako Nazioen Sozietatea izan zen.

Ondorioz, 5. Puntua potentzia kolonialen interesen gaitik nagusitzea lortu ez arren, ideia hauek herri kolonialetan harrera oso ona izan zuten, bereziki autodeterminazioa eskubide gisa planteatzen zutenak<sup>22</sup>. Pixkanaka, kolonietan independentziaren aldeko pentsamoldea sendotuz joan zen, baina oraindik ere hamarkadak pasa beharko ziren nazioarteko komunitatearen partetik deskolonizazioa martxan jartzeko benetako borondatea azaltzeko.

II. Mundu Gerraren amaierak berreraikitze prozesu luzea ekarri zuen, herrialdeen arteko elkarlana eta harreman baketsuen sustapena nagusitu zirelarik. Giro eta ikusmolde aldaketa hori izan zen, hain zuzen ere, Nazio Batuen sorreraren arrazoi. Erakunde honen jaiotza “ofiziala” 1945eko urriaren 24an eman zen, San Frantzisko-ko Konferentzian, sinatzaile gehienek Nazio Batuen Gutuna berretsi zutenean<sup>23</sup>. Urte horretan, NBE-k eskainitako datuen arabera<sup>24</sup>, 750 milioi pertsona inguru (garaiko populazio mundialaren herena) inperio kolonialen menpeko lurraldeetan bizi ziren. Gaur egun, bi milioi pertsona baino gutxiago bizi dira oraindik existitzen diren hamazazpi lurralde ez-autonomoetan (ikus I Eranskina).

Mendebaldeko aliatuek gerra garaian defendatutako askatasun eta demokrazia kontsignek are gehiago azpimarratu zituzten haien ustezko idealen eta errealitate kolonialaren arteko kontraesanak<sup>25</sup>. Deskolonizazio prozesua gerraosteko fenomeno politikoaren artean lehen

---

<sup>21</sup>Jatorrizko testuaren itzulpen pertsonala. Wilson presidentearen hitzaldia osotasunean hurrengo estekan irakurgai: [https://avalon.law.yale.edu/20th\\_century/wilson14.asp](https://avalon.law.yale.edu/20th_century/wilson14.asp), 2020ko azaroaren 11n ikusia.

<sup>22</sup>MARTÍNEZ CARRERAS, José U.: “La ONU y la descolonización”, *Cuadernos de Historia Contemporánea*, 17. zk., 1995, 81. or.

<sup>23</sup>Haien artean Segurtasun Kontseiluaren behin-betiko kide direnek: Txina, Frantzia, garaiko Sobietar Batasuna, Erresuma Batua eta Estatu Batuak. Kide hauen oniritziak berebiziko garrantzia du, izaera sustantiboko erabakiak berresteko orduan beto eskubidea dute eta. <https://www.un.org/es/sections/history/history-united-nations/>, 2020ko urriaren 25ean ikusia.

<sup>24</sup><https://www.un.org/es/sections/issues-depth/decolonization/index.html>, 2020ko urriaren 25ean ikusia.

<sup>25</sup>CAMERON, Rondo: *op. cit.*, 439. or.

planoan kokatu zen<sup>26</sup>. NBE-k herrialdeen arteko harremanak berdintasunean eta bakean oinarritu behar zirela aldarrikatu zuen, Nazio Batuen Gutuneko 1.2 artikuluan determinazio askearen printzipioa aintzatetsiz:

“1. artikulua

Nazio Batuen helburu dira:

2. Nazioen arteko adiskidetasun harremanak sustatzea, hauek eskubide berdintasun eta herrien determinazio askearen printzipioetan oinarritzen direlarik, eta bake unibertsala indartzeko bestelako neurri egokiak hartzea”.

Dena den, autodeterminazio eskubidea printzipio orokor gisa onartzeak efektu material izan zitzan, neurri zehatzagoak hartu beharra zegoen. Deskolonizazio prozesua hamarkadetan zehar luzatu zen; 1960. urtetik aurrera NBE-k Gutunean agertutako jarrera herabea alde batera utzi eta Ebazpenen bitartez kolonien independentzia sustatu eta azkartzeko mekanismoak martxan jarri zituen.

## **2.2. NBE-ren mekanismo juridikoak**

Gutuneko 1.2 artikuluan onartutako herrien autodeterminazio printzipioaren harira, 1945ean NBE-k bi sistema eratu zituen: alde batetik, XI. Kapituluaren araututako Nazioarteko Tutoretza Erregimena, eta bestetik, XII. eta XIII. Kapituluaren Administrazio Fiduziarioaren Nazioarteko Erregimena. Egitura hauek ez zuten zuzenean menpeko herrien askapena ekarri, baina potentzia kolonialen gaineko nolabaiteko kanpo ikuskaritza ezarri zuten.

### ▪ *Nazioarteko Tutoretza Erregimena*

Gutuneko XI. Kapituluak “Lurralde ez-autonomoen inguruko adierazpena” izenburua hartzen du. Zehazki, hurrengo kapituluaren arautzen den Administrazio Fiduziarioaren Nazioarteko Erregimenaren barne kokatu ez ziren lurralde ez-autonomoei egiten die erreferentzia, hau da, errealitatean lurralde kolonialak zirenei<sup>27</sup>. Nahiz eta argi dagoen Kapitulu honek deskolonizazio prozesuari ate txiki bat ireki ziola, eufemismo edo termino leungarriak nagusi dira, eta ez dago Gutun osoan zehar “kolonia” edota “deskolonizazio” terminoak erabiltzen dituen xedapen bat ere ez.

XI. Kapituluaren 73. eta 74. artikuluek osatzen dute, eta estatu administratzaileek errespetatu beharreko betebeharrak biltzen dituzte. Laburbilduz, era zuzenean menderatutako herrien

---

<sup>26</sup>MAZZEO, Domenico: *op. cit.*, 330. or.

<sup>27</sup>MARTÍNEZ CARRERAS, José U.: *op. cit.*, 90. or.

independentzia eskubidea aitortu ez arren, metropoliek norabide horretan pausoak har zitzaten zenbait betebeharrak ezarri zituen, horien guztien gainetik herrien borondate politikoa entzun eta gobernu propioa sustatzeko neurriak hartzea nabarmendu zirelarik. Potentzia kolonialak potentzia *administratzaile* izatera pasa ziren, lurralde ez-autonomoen “tutore” gisa arituz.

Praktikan, honek ez zuen aldaketa handirik ekarriko, baina formula koloniala atzean uzteko lehendabiziko nazioarteko presio gisa balio izan zuen: 73.e) artikulua xedatutako informatzeko obligazioak potentzien ekintzen gaineko nazioarteko kontrol edo ikuskaritza ezartzea izan zuen helburu. Hala eta guztiz ere, Domenico Mazzeo autoreak azpimarratzen duen bezala, Kapitulu honetan kolonizatzaileen ikuspuntua izan zen nagusi, ezarritako obligazioen betearazpena potentzien borondate onaren esku geratu eta gobernu subirano baten ezarpena, aintzatetsitako eskubide bat baino, opari bezala aurkeztu baitzen<sup>28</sup>.

1946. urtean zortzi Estatu kidek (Australia, Belgika, Britainia Handia, Danimarka, Estatu Batuak, Frantzia, Herbehereak eta Zeelanda Berria) haien administrazio pean zeuden eta lurralde ez-autonomo gisa hartzen zituzten lurraldeen zerrenda osatu zuten, eta NBE-ri informatzeko konpromezua hartu. Zerrendatutako hirurogeita hamalau lurraldeen artean, zortzik 1946 eta 1959 bitartean independentzia lortu zuten, gainerakoek hurrengo hamarkadetan eskuratuko zutelarik (ikusi II. Eranskina)<sup>29</sup>.

#### ▪ *Administrazio Fiduziarioaren Nazioarteko Erregimena*

Sistema honek Nazioen Sozietateak eraturako Mandatuen Sistema<sup>30</sup> aurrekari eta eredutzat hartu zuen, eta bilatutako helburuak tutoretza erregimenaren antzekoak izan ziren: nazioarteko bake eta segurtasuna, aurrerapen ekonomiko, politiko eta soziala, oinarrizko eskubide eta askatasunen sustapena... XII. Kapituluak erregimen beraren nondik norakoak zehaztu zituen bitartean, XIII. Kapituluak NBE-ko organo nagusien artean kokatzen den Administrazio Fiduziarioaren Kontseiluaren eraentza landu zuen.

---

<sup>28</sup>MAZZEO, Domenico: *op. cit.*, 336. or.

<sup>29</sup>MARTÍNEZ CARRERAS, José U.: *op. cit.*, 90. or.


<sup>30</sup>Mandatuen ezarpena ohikoa izan zen I. Mundu Gerra osteko garaian. Sistema honen iturri juridikoa Versailles-eko Tratatuen 22. artikuluan aurki daiteke, zeinek beste Estatu baten subiranotasun pean egoteari utzi eta haien buruak gobernatzeko gai ez diren lurraldeei erreferentzia egiten dien. Mandatuaren ezaugarriak eta potentzia administratzailearen eskuhartze ahalmena administratu beharreko lurraldearen garapen mailaren arabera definitu ziren. Mandatu sistema pean egondako herrialdeen artean, besteak beste, hurrengokoak aurki daitezke: Kamerun, Mendebaldeko Samoa, Nauru, Palestina, Ruanda-Urundi, Siria...

Aurretiaz adierazi bezala, ez-autonomotzat hartutako lurraldeak ez ziren Administrazio Fiduziario pean kokatu. Gutunaren 77. artikulua “fideikomiso lurralde” gisa hartu beharreko izaera ezberdineko supostuak zerrendatzen ditu:

- Mandatu pean dauden lurraldeak.
- II. Mundu Gerra dela eta Estatu arerioetatik banatutako lurraldeak.
- Borondatez beraien administrazioaren arduradun diren Estatuak erregimen honen pean kokatutako lurraldeak.

Nahiz eta formalki XI. Kapituluaren lurralde-ez autonomoentzat ezarritako erregimenetik ezberdindu, Administrazio Fiduziarioak, oinarrian, berdin funtzionatu zuen: garaian fideikomiso lurralde bezala definitutakoei autoritate administratzaile bat egokitu zitzaion, eta NBE-k (kasu honetan, Administrazio Fiduziarioaren Kontseiluak) administrazio horren gaineko kontrola burutu beharra zuen, Gutuneko printzipioak errespetatzen zirela zainduz.

**1. grafikoa. Potentzia administratzaileen fideikomiso eta lurralde ez-autonomoak (1945)**



Iturria: egiletza propioa, Nazio Batuen datuak (2020) oinarritzat

Guztira hamaika lurralde egon ziren sistema honen tutoretza pean, eta gaur egun jada Estatu independente bihurtu edo bizilagun baten parte bilakatu dira (ikus II. Eranskina). Behin fideikomisoa desagertuta, Administrazio Fiduziarioaren Kontseiluak 1994ko azaroaren 1ean bere jarduna bertan behera utzi zuen, nahiz eta organoak existitzen jarraitzen duen<sup>31</sup>.

▪ **1514(XV) Ebazpena, herri kolonialen independentziari buruzko adierazpena**

1960ko abenduaren 14an onartutakoa, 1514 (XV) Ebazpena deskolonizazio prozesua azkartzea eta honen legitimazioa sendotzea ekarri zuen inflexio-puntua dugu. Ordura arte NBE-k

<sup>31</sup><https://www.un.org/es/sections/about-un/trusteeship-council/index.html>, 2020ko azaroaren 13an ikusia.



hartutako jarrera anbigua alde batera utzi eta deskolonizazioa herri zapalduen eskubide eta herrialde menperatzaileen obligazio bezala planteatu zuen, Gutunaren 1.2 artikuluan berretsitako autodeterminazio eskubideari 15 urte beranduago beharrezko indarra eta garrantzia emanaz. Gutunean ez bezala, “kolonialismo” terminoa sarritan erabiltzen da, eta hura behin betiko amaitzearen beharra zuzenean aldarrikatu.

Ebazpenak kolonialismoa nazioarteko bake eta lankidetzaren kontrako mehatxu bezala kalifikatu zuen, autodeterminazioaren printzipioa independentzia eskubidearen sinonimo bihurtuz<sup>32</sup>. Deskolonizazioaren printzipioa nazioartean geroz eta onartuagoa egonik, azkenean NBE-ren Estatu kideek nazioarteko zuzenbidearen berariazko arau gisa hartu zuten<sup>33</sup>. Ebazpen honek ez zuen kontrako bozkarik jaso, baina potentzia kolonialen artean abstentzioa nagusitu zela aipatzekoa da.

- **1654 (XVI) Ebazpena, Deskolonizazio Komite Berezia**

1514 (XV) Ebazpenean defendatutakoa aurrera eramateko eta honen betearazpena ziurtatzeko, 1654 (XVI) Ebazpenaren bitartez 1961ean Deskolonizazio Komite Berezia sortu zen, C-24 bezala ere izendatutakoa, deskolonizazio prozesuaren ikuskaritza instituzionalizatu zuena<sup>34</sup>.

Hurrengo orrialdeko 4. taulan azaltzen den bezala, 1514 (XV) Ebazpenaz geroztik menerapen kolonial pean geratzen ziren lurraldeak pixkanaka estatus hori atzean utzi zuten. Afrikako herrialdeei gagozkiolarik (grisez markatuta), nahiz eta 60ko hamarkadan deskolonizazio olatu azeleratua bizi, kolonialismoaren aztarna formalek 1990. urtean Namibia Estatu subirano bihurtu zen arte bere horretan iraun zuten.

Dena den eta jada aipatu den moduan, gaur egun ere lurralde ez-autonomoak existitzen jarraitzen dute, eta zenbait kasutan, lurralde kolonial estatusa atzean uzteak ez zuen independentzia lortzea suposatu (ikusi I eta II eranskinak). Frantziaren kasuan aztertuko den moduan, badira antzinako potentziaren “ohiko” parte bihurtu diren lurraldeak, metropoliko lurraldearen maila berean kokatuz.

---

<sup>32</sup>MAZZEO, Domenico: *op. cit.*, 338. or.

<sup>33</sup>MARTÍNEZ CARRERAS, José U.: *op. cit.*, 96. or.

<sup>34</sup><https://www.un.org/dppa/decolonization/es/c24/about>, 2020ko azaroaren 13an ikusia.

5. *taula.* 1960ko Herrialde kolonialen independentziari buruzko aldarrikapenaren ostean (1514-XV Ebazpena) independentzia lortu duten lurraldeak

<i>Estatu independentea</i>	<i>Independentzia urtea</i>	<i>Ordura arteko autoritate administratzailea (eta aurreko izena)</i>
Sierra Leona	1961	Erresuma Batua
Trinidad eta Tobago	1962	Erresuma Batua
Uganda	1962	Erresuma Batua
Jamaika	1962	Erresuma Batua
Kenya	1963	Erresuma Batua
Malawi	1964	Erresuma Batua (Nyassalandia)
Malta	1964	Erresuma Batua
Zambia	1964	Erresuma Batua (Iparraldeko Rhodesia)
Gambia	1965	Erresuma Batua
Singapur	1965	Erresuma Batua
Barbados	1966	Erresuma Batua
Botswana	1966	Erresuma Batua (Bechuana)
Guyana	1966	Erresuma Batua (Guyana Britainiarra)
Lesotho	1966	Erresuma Batua (Basutolandia)
Ekuatore Ginea	1968	Espania (Fernando Poo eta Muni Ibaia)
Yemen	1967	Erresuma Batua (Aden)
Swazilandia	1968	Erresuma Batua
Maurizio	1968	Erresuma Batua
Fiji	1970	Erresuma Batua
Oman	1971	Erresuma Batua
Bahamak	1973	Erresuma Batua
Granada	1974	Erresuma Batua
Ginea-Bissau	1974	Portugal (Ginea Portugesa)
Angola	1975	Portugal
Cabo Verde	1975	Portugal
Komoreak	1975	Frantzia
Mozambique	1975	Portugal
Saint Lucia	1975	Erresuma Batua
Sao Tomé eta Príncipe	1975	Portugal
Surinam	1975	Herbehereak (Guyana Holandarra)
Seychelleak	1976	Erresuma Batua
Djibuti	1977	Frantzia (Afares eta Issas-en lurraldea)
Dominika	1978	Erresuma Batua
Salomon Uharteak	1978	Erresuma Batua
Tuvalu	1978	Erresuma Batua (Elice Uharteak)
Kiribati	1979	Erresuma Batua (Gilbert Uharteak)
Saint Vincent eta Grenadinak	1979	Erresuma Batua
Vanuatu	1980	Frantzia, Erresuma Batua (Hebrida Berriak)
Zimbabwe	1980	Erresuma Batua (Hegoaldeko Rhodesia)
Belize	1981	Erresuma Batua
Antigua eta Barbuda	1981	Erresuma Batua
Saint Kitts eta Nevis	1983	Erresuma Batua
Brunei Darussala	1984	Erresuma Batua (Brunei)
Namibia	1990	Hegoafrikako Errepublika

Iturria: egiletza propioa, Martínez Carreras, J. U. (1995) lanean oinarrituta

### 3. IMPERIO FRANTSESA ETA HONEN DESEGITEA

Inperio Frantsesaren goren aldia, Parisen 1931. urtean ospatu zen Nazioarteko erakusketa kolonialean harrotasun osoz aurkeztu zena, hurrengo datuetan itzultzen da: 12 milioi t'erdi km<sup>2</sup>-ko azalera eta 65 milioi biztanle inguru<sup>35</sup>. Aipatutako erakusketak, besteak beste, inperioaren aberastasun kulturala dela medio kolonialismoaren aurpegi atsegina erakustea izan zuen helburu, Frantziak kolonietan izandako misio “zibilizatzailea” (frantsesez, *mission civilisatrice*) goraiapatuz<sup>36</sup>.

Aipatutako datuei erreparatuta, Frantzia XX. mendeko inperio handienen artean kokatzen zen, betiere Erresuma Batuen atzetik. Deskolonizazio prozesuak ekarri zuen inperioen desagertze edo desegitea behar bezala ulertzeko, menerapen kolonial pean zeuden lurraldeen artean estatus ezberdinak zeudela gogoratu beharra dago, autonomia maila ezberdinak aurkitu zitezkeelarik.

#### 3.1. Inperio Frantsesaren egitura

II. Mundu Gerra amaieraren testuinguruan, Inperio Frantsesa hurrengo sailkapenari jarraiki banatzen zen Frederick Cooper historialariaren arabera<sup>37</sup>:

- 1) *Metropolia*, hau da, Europan kokatutako Frantzia bera.
- 2) *Aljeria*. 1830. urtean kolonizatutako lurralde honen kasua berezia da, Frantziaren parte gisa ulertzen zen eta. Beste era batera esanda, Frantziako antolakuntza administratibo arruntaren barne kokatzen zen, departamentu estatutua izanik. Dena den eta 5. atalean aztertuko den moduan, populazioa maila ezberdinetan banatuta zegoen, aljeriar musulmanek ez baitziren hiritar moduan hartzen.
- 3) “*Antzinako koloniak*”, 1945 – 1946 urteetatik aurrera Itsasoaz haraindiko departamentu izena hartu zutenak. Kategoria honek gehien bat Kariben kokatutako lurraldeak biltzen ditu, Senegal eta India frantsesarekin batera. Azpimarratzekoa da lurralde hauetako biztanleek 1848. urteaz geroztik hiritar estatusa bazutela.
- 4) “*Kolonia berriak*”, gerraostean Itsasoaz haraindiko lurralde izena hartu zutenak. 1946an lortu zuten hiritar maila, eta oraindik ere frantses kontrol pean daude: Guadalupe, Guyana frantsesa, Martinika eta Reunion. Gaur egun lurralde frantses gisa

---

<sup>35</sup>[https://www.larousse.fr/encyclopedie/autre-region/Empire\\_colonial\\_fran%C3%A7ais/120109](https://www.larousse.fr/encyclopedie/autre-region/Empire_colonial_fran%C3%A7ais/120109), 2020ko abenduaren 2an ikusia.

<sup>36</sup>Nazioarteko erakusketa kolonialean ikusgai izandako material eta obra ezberdinen inguruan sakontzeko, ikusi LYAUTEY, Marcel Olivier eta REYNAUD, Paul: *Le livre d'or de l'Exposition coloniale de Paris 1931*, 1931. Aipatutako liburuaren sarrera garaiko Kolonien Ministroak idatzitakoa da.

<sup>37</sup>COOPER, Frederick: “Reformando el Imperio...”, *op. cit.*, 3-4 or.

konsideratzen diren lurraldeen harira, 2003ko erreforma konstituzionalak eraturako Itsasoaz haraindiko kolektibitateak aipatu beharra dago, zeinen artean hurrengo bost lurraldeak ditugun: Mayotte, Polinesia Frantsesa, San Martin, San Pedro eta Mikelon, eta Wallis eta Futuna<sup>38</sup>. Azkenik, Kaledonia Berriak kolektibitate *sui generis* estatutua du.

- 5) *Mandatuak*. Erregimen honen barne Togo eta Kamerun frantsesa zeuden, zeinaren bitartez Frantziak Nazio Batuen izenean administratzaile gisa aritzen zen (Administrazio Fiduziarioaren Nazioarteko Erregimena)<sup>39</sup>.
- 6) *Protektoratuak*, Maroko, Tunez eta Indotxinaren zenbait parte. Printzipioz, gobernu subirano eta nazionalitate propioa zuten “estatu” gisa hartzen ziren, tratatuen bitartez Frantziak haien gaineko eskumenak zituelarik.

Lehendabiziko lau kategoriek Errepublika Frantsesa osatzen zuten; hango biztanleak “frantsesak” ziren, nahiz eta zenbait kasutan hiritar estatuturik ez izan. Sailkapen honen autonomia gradu ezberdinek berebiziko garrantzia hartu zuten 1945ean hasitako deskolonizazio prozesuari forma ematerako orduan.

Hasiera batean, Frantziak, gainerako potentzia kolonialen antzera, independentzia grina zuten lurraldeak aske utzi baino lehen eta jada gainbeheran zegoen antzinako inperioaren biziraupena hala edo nola bermatzearen, aldi berean metropoliaren interesak gorde eta koloniei autonomia handiagoa eskaintzen zieten egitura berriak eratu zituen. Zehazki, bi izan ziren zentzu horretan arrakasta handirik gabe burututako ahaleginak: II. Mundu Gerra osteko Batasun Frantsesa eta 1958an eraturako Komunitate Frantsesa.

### **3.2. Kolonialismoa erreformatzen: Batasun Frantsesa**

1950eko hamarkadan, inperio koloniala Frantziako botere ekonomikoaren oinarri nagusietako bat bezala hartzen zen, eta honen hazkundera bermatzeko kolonien merkatu babestuak mantentzea inoiz baino beharrezkoagoa bihurtu zen<sup>40</sup>. Gerra ostean era orokorrean gaitzesten hasia zen politika koloniala zuritzeko nahian, Charles de Gaulle jeneralak itxurazko

---

<sup>38</sup>Polinesia Frantsesaren kasuan, nahiz eta kolektibitateen marko administratiboan kokatzen den, 2004an “Itsasoaz haraindiko herrialde” estatusa lortu zuen, zeinaren bitartez autonomia maila handiagoa lortu zuen.

<sup>39</sup>Bi lurralde hauek kolonia alemaniarrak izan ziren I. Mundu Gerra baino lehen. Horren ostean, Alemaniak lurralde horien gaineko kontrola galdu eta Frantzia potentzia administratzaile izendatu zen (hasiera batean Nazioen Sozietatearen izenean arituz). Aipatzekoa da Kamerungo lurraldea bi mandatu ezberdinetan banatu zela: alde batetik Kamerun frantsesa izanik, eta bestetik, Erresuma Batuak administratutako Kamerun britainiarra.

<sup>40</sup>MARSEILLE, Jacques: “Colonisation, décolonisation et capitalisme (1880 – 1960)”, *Vingtième Siècle, revue d'histoire*, 4. zk., 1984, 39 or.

federalismoaren aldeko apustua egin zuen, ordura arte Inperio Frantsesa osatzen zuten lurraldeek Batasun Frantsesa delakoa eratuko zutelarik. “Kolonial” modaz pasatutako termino zaharkitua izatera pasa zenez, dinamika koloniala ele onargariago batekin aurkezten hasi zen, “garapen” hitzarekin hain zuzen. Pixkanaka, Frantzia ordura arte goraiapatutako misio zibilizatzailea alde batera utzi eta “zibilizazioen arteko errespetuan oinarritutako garapena”-ren garrantzian zentratutako diskurtsora igaro zen, ustezko azkenengo helburua itsasoaz haraindiko herrien ongizatea izanik<sup>41</sup>.

Egitura berria honela definitu zuten Charles de Gaulle-ren zuzendaritzapeko kolonialismoaren adituek: “nolabaiteko talde federal bat, non Frantziako herrialde bakoitza, moralki besteen (metropolia barne) berdina eta parekoa izango den, bakoitza bere bokazioari jarraitzeko gai izanik eta aldi berean gizarte beraren eskubide eta betebeharrekin bat etorriko delarik”<sup>42</sup>. Batasuna Erresuma Batuak 1931n sortutako eta oraindik (aldaketekin, noski) bere horretan dirauen *Commonwealth* delakoarekin erlazionatu izan da, garaiko testuinguru aldakorretara egokituz antzinako metropoli-kolonia harremanak nolabait mantentzeko mekanismo gisa ulertuta<sup>43</sup>.

Plano formalean antzinako Inperio Frantsesaren biztanle guztientzat pareko eskubideak lortzeko aurrerapausoa zirudien arren, Batasun Frantsesaren bitartez aldarrikatu zen berdintasun hori ez zen errealitatean inolaz ere aurrera eraman. Batasunaren eraentzak itxura legitimo nahikoa izan zezan, 1945eko hauteskunderen bitartez, diputatu kolonialen artean hamar afrikarrek aurreneko aldiz Batzar Nazional Konstituziogilean eserlekuak (guztira 586 dira) hartu zituzten<sup>44</sup>. Hauteskunderen teorikoki sufragio unibertsala izan arren, izaera diskriminatzailea izan zuten: soilik hiritartasuna zuten pertsonak zeukaten boto eskubidea, eta honek kolonietako biztanle ugari baztertu zituen. Dena den, hiritartasuna zuten eta ondorioz botoa eman zezaketen afrikarrek hein handi batean parte hartu zuten bozkan, hautesleria

---

<sup>41</sup>DIMIER, Véronique: “Construire l’association entre l’Europe communautaire et l’Afrique indépendante”, *Matériaux pour l’histoire de notre temps*, 77. zk., 2005, 33. or.

<sup>42</sup>Garaiko ikusmoldearen inguruan sakontzeko, ikusi LAURENTIE, Henri: “Pour ou contre le colonialisme? Les colonies françaises devant le monde nouveau”, *Renaissances*, 10. zk., 1945.

<sup>43</sup>Egitura federal frantsesaren eta britainiarren arteko antzekotasun zein ezberdintasunetan sakontzeko, ikusi: KIHN, Buu: “Union française et Commonwealth”, *Politique étrangère*, 6. zk., 1953, 463-474 or.

<sup>44</sup>Politika kolonialak kutsu arrazista oso markatua zuen, eta estratu altuenetara iritsi ziren afrikar eta asiarreri *les évolués* deitzen zieten, hau da, formakuntza eta asimilazioaren bitartez “europartze” prozesu batetik pasata, mendebaldeko ohiturak bereganatu eta haien jatorrizko kultura atzean utzitako pertsona “eboluzionatuak”. Horrelako esamoldeek ageri-agerian uzten zuten potentzia kolonialen paternalismoa, ustezko misio zibilizatzailearekin oso estu lotutakoa.

totalaren partaidetza oso altua izan zelarik, %79'83koa hain zuzen ere<sup>45</sup>. Bestalde, nahiz eta 1945. urtean Frantziak emakumeen boto eskubidea onartu zuen, azpimarratzekoa da eskubide hori ez zitzaizela hiritar estatusa zuten Senegaleko *Quatre Communes*-eko emakumeei luzatu, hura egikaritzeko azpigaratuak zirela argudiatu baitzen. Gertakari honek protesta publiko handiak ekarri zituen, eta horrela, Senegaleko emakume hiritarrek boto eskubidea lortu zuten<sup>46</sup>.

Batasun Frantsesak iraun zuen garaian, metropoliaren eta kolonien ordezkarien arteko gatazkak autonomia gehiago lortzean oinarritu baino biztanle guztientzako eskubide zibil eta politikoko berak lortzeko auzian zentratu ziren. Eztabaida honen erdialdean hiritartasuna kokatu zen, 1946an Lamine Guèye diputatu senegaldarrak bultzatuta lege bihurtu zena: lurralde frantsesetako biztanle guztiak hiritar frantses estatutua lortu zuten<sup>47</sup>. Mendebaldeko Afrikako diputatuek hiritartasuna lortzeko tinko borrokatu zuten bitartean, naziokotasun frantsesa lortzearen hipotesiari oro har ezetza eman zioten, azken finean frantsesak ez zirelako. Haien helburua frantsesen eskubide berdinak lortzea zen, ez frantses bihurtzea.

Hiritartasuna lortzeak, besteak beste, soldata berdintasunari ireki zion atea. 1946tik 1952ra bitartean, langile mugimendua lurralde ez-kontinental guztietan arraza, erlijio edo jatorria dela eta bereizkeriarik gabeko lan-kode bateratu bat lortzean zentratu zen<sup>48</sup>. Soldata berdintasunaren harira, aipatzekoak dira Senegalen 1945-46an burututako bi hilabeteko greba eta 1947-48an bost hilabetez Mendebaldeko Afrika Frantsesa kolapsatu zuen trenbideen greba<sup>49</sup>. Azkenean, borroka horrek bere fruituak eman eta bortxazko lanaren abolizioa, soldata berdintasuna, berrogei orduko asteko lanaldia, ordaindutako oporrak, eta sindikazio zein grebarako eskubideak onartu ziren.

Justizia administrazioaren planoan, hiritartasun estatus orokortuak *indigénat* erregimena delakoari amaiera eman zion. Lehendabizi Aljerian ezarritako eta ondoren gainerako kolonietara esportatu zen erregimen juridiko penal berezia izan zen, kolonietako natiboei eskusiboki aplikatzen zitzaiena. Honen bitartez ezarritako zehapenak plano administratiboan

---

<sup>45</sup>Hauteskundeen emaitza zehatzak kontsultatzeko, ikusi <https://www.france-politique.fr/assemblee-nationale-1945.htm>, 2020ko abenduaren 5ean ikusia.

<sup>46</sup>COOPER, Frederick: "Reformando el Imperio...", *op. cit.*, 5-6 or.

<sup>47</sup>1946ko maiatzaren 7ko 46-490 Legea, <https://www.legifrance.gouv.fr/jorf/id/JORFTEXT000000315563/>, 2020ko abenduaren 5ean ikusia.

<sup>48</sup>COOPER, Frederick: *Decolonization and African Society: The Labor Question in French and British Africa*, Cambridge University Press, Cambridge, 1996, 292. or.

<sup>49</sup>Soldata berdintasunaren alde burututako greben inguruan sakontzeko, ikusi COOPER, Frederick: "The Senegalese Strike of 1946 and the Labor Question in Post-War French Africa", *Canadian Journal of African Studies*, 24. zk., 1990, 165-215 or. eta COOPER, Frederick: "Our Strike: Equality, Anticolonial Politics, and the French West African Railway Strike of 1947-48", *Journal of African History*, 37. zk., 1996, 81-118 or.

ematen ziren, prozesu judizialak eskainiko lituzkeen bermeak alde batera utzita<sup>50</sup>. Berme juridikoen existentzia ezak eta arbitrariotasunak subjektu kolonialekiko errepresio sistema eraginkorra bihurtu zuten, ia bi mendetan zehar indarrean egon zelarik.

Laburbilduz, hiritartasuna lortzeak zera suposatu zuen, ministro izandako Pierre-Henri Teitgenren esanetan: “berdintasuna soldatetan, berdintasuna lan-legerian eta gizarte segurantzako onuretan, berdintasuna familia dirulaguntzetan; azken finean, *berdintasuna bizi-mailan*”<sup>51</sup>.

Hiritartasunak eskubideen konkistan behin emaitzak emanda, lurralde kolonialen autonomia maila handitzeko eskaera eta aldarrikapenek protagonismoa hartzen hasi ziren, Batasun Frantsesak ustez eskainitako eredu federalista ez baitzen nahikoa. 1954. amaitutako Indotxinako gerrak, zeinek Kanbodia, Laos eta Vietnam Estatu independenteen eraketa ekarri zuen, gainerako kolonien independentziaren auzia mahaigaineratu zuen. Egoera hau ikusita eta Aljeriako gerran jada murgilduta zegoelarik, Frantziak presio antikolonialak baretzeko *loi-cadre Defferre* delakoa onartu zuen 1956. urtean<sup>52</sup>. Lege honek, Gaston Defferre ministro kolonialak bultzatutakoa, lurralde ez-kontinentalei benetako botere transferentzia ekarri zien, kolonia bakoitzean sufragio unibertsal bidez aukeratuko ziren lurralde batzarrak sortuz. Aginte egitura aldaketa hau 1958an Frantziar Komunitatea eratzeke aurrerapausoa izan zen.

### **3.3. Inperioaren azken hasperena: Komunitate Frantsesa**

Frantziaren kontrolpeko lurraldeak hala edo nola elkarrekin mantentzearen, 1958ko irailaren 28ko erreferendum konstituzionala dela medio, V. Errepublika Frantsesaren Konstituzioa onartu eta Batasun Frantsesa atzean utziz Komunitate Frantsesa eratu zen. Erreferendum honen bitartez, lurralde kolonialek egitura frantses berriaren parte izan nahi zuten ala ez erabakitzeke aukera izan zuten, lehendabiziko aldiz erabateko independentziari atea ireki zitzaielarik. Partaidetza metropolian %84,9koa izan zen, eta bataz beste, %79'8koa. Ginea ezezko bozka (%95'22) eman zuen lurralde bakarra izan zen<sup>53</sup>. Hori dela eta, Komunitate Frantsesetik kanpo geratu eta 1958ko urriaren 2an Estatu independente eta subirano estatusa lortu zuen, era baketsuan (Indotxinaren kasuan ez bezala) independentzia lortzen zuen lehenengo kolonia frantsesa bihurtuz.

---

<sup>50</sup>THÉNAULT, Sylvie: “L’indigénat dans l’Empire français : Algérie/Cochinchine, une double matrice”, *Monde(s)*, 12. bol., 2. zk., 2017, 22. or.


<sup>51</sup>TEITGEN, Pierre-Henri: *Débats*, Batzar Nazionala, Paris, 1956ko martxoaren 20<sup>a</sup>, 1072-1073 or. Kurtsiba pertsonala da.

<sup>52</sup>1954ko ekainaren 23ko 56-619 Legea, <https://www.legifrance.gouv.fr/jorf/id/JORFTEXT000000692222>, 2020ko abenduaren 7an ikusia.

<sup>53</sup>NOHLEN, Dieter eta STÖVER, Philip: *Elections in Europe: A Data Handbook*, Nomos, Baden-Baden, 2010.

Guztira, hurrengoko herrialde afrikarrek onartu zuten Frantziari lotuta jarraitzea: Afrika Erdiko Errepublika (antzina Ubangi Shari lurraldea), Benin (garai hartan Dahomey izenekoa), Boli Kosta, Burkina Faso (garai hartan Volta Garaia Errepublika izenekoa), Gabon, Madagaskar, Mali eta Senegal (garai hartan Maliko Federazioa osatzen zuten, Malik Sudan izena zuelarik), Mauritania, Niger eta Txad.

## 2. irudia. Komunitate Frantsesa 1959an



Iturria: Alecingram (2011), [https://commons.wikimedia.org/wiki/File:French\\_Community\\_1959.svg](https://commons.wikimedia.org/wiki/File:French_Community_1959.svg), 2020ko abenduaren 17an ikusia.

Batasun Frantsesak federalismoa oinarritzat izan zuen bitartean, Komunitate Frantsesak eredu konfederala hartu eta lurralde kolonialei nolabaiteko “Estatu kide” autonomo izaera eman zien. Potentzia kolonialek izandako botere absolutuak jada ez zuen lekurik gizartearen estandar berrietan, eta antolakunde berriak kolonien erabakitze ahalmena handitu zuen: barne aferetan erabateko boterea lortu zuten, gobernu zein legebiltzar propioak izanik. Hala eta guztiz ere, kanpo aferak, defentsa eta, hein batean ere, ekonomia, gobernu frantsesaren esku mantendu ziren<sup>54</sup>.

Bizi-maila hobetzeko aukera dela eta, Komunitate franko-afrikarra erabateko independentzia baino aukera erakargarriagoa bezala aurkeztu zen<sup>55</sup>. Izan ere, metropoli eta itsasoaz haraindiko herrialdeen arteko elkarrekiko mendekotasun ekonomikoa aintzat hartuta, Frantziaren sostengua alde batera uztea egoera arriskutsua zirudien.

Hala eta guztiz ere, Komunitate Frantsesak ez zuen luzaroan biziraun. 1960. urtean, kide ziren herrialde guztiek Frantziarekiko independentzia negoziatu eta hura lortu zuten. Aplikazio

<sup>54</sup>DIMIER, Véronique: *op. cit.*, 32. or.

<sup>55</sup>COOPER, Frederick: “Reformando el Imperio...”, *op. cit.*, 16. or.



praktikorik izan ez arren, egitura konfederalari buruzko xedapen konstituzionalak ez ziren 1995. urtera arte formalki indargabetu<sup>56</sup>.

Inperio frantsesari, edo hobeto esanda, hala edo nola *grandeur* frantsesa bizirik mantentzeko saiakerei behin betiko agurra emateko garaia bazen. Kolonialismoaren amaiera ekidin ezina zela ikusita, 1961ko apirilaren 11n Frantziako presidente zen Charles de Gaulle-k gaiari zuzenean heldu eta bereziki Aljeriako gerrari erreferentzia eginez hurrengokoa adierazi zuen prentsaurreko batean: “Deskolonizazioa gure interesekoa da, eta, beraz, gure politika. Zergatik geratu behar dugu dominazio garesti, odoltsu eta irtenbiderik gabekoei helduta, gure herrialdea goitik behera berritzeke dagoen bitartean?”<sup>57</sup>.

### 3.4. Inperioaren errentagarritasuna kolokan

Kolonialismoa justifikatzeko argudio ekonomikoak ugariak izan ziren arren, datu estatistikoak aztertzeotan, inperioaren izugarritzko esplotazio ekonomikoa mito bat izatetik gertu legoke. Inperialismoak, gehienbat, handikeria eta anbizio militarrei erantzun ziela esan daiteke. 1914an, koloniek komertzio frantsesaren %10 soilik suposatzen zuten<sup>58</sup>. Ikuspuntu ekonomikotik, kolonien erabilgarritasun handiena 1930eko hamarkadan eman zen, krisialdiaren eragina leuntzeko balio izan zutelarik: inperioa Frantziaren bazkide komertzial nagusia eta atzerriko aktibo finantzario garrantzitsuena bihurtu zen.

#### 3.4.1. Merkatuen arteko interdependentzia

1957an, Frantziako itsasoaz haraindiko ministerioan afera ekonomikoen zuzendari zen Pierre Moussa-k Afrikarekiko interdependentzia ekonomikoa azpimarratu eta hurrengo estimazioa burutu zuen:

“Metropolitan bizi diren 500.000 frantses inguruk (horietatik 300.000 industria sektorean aritzen direnak), zuzenean edo gutxi gorabehera zuzenean metropoli eta itsasoaz haraindiko herrialdeen arteko merkataritzatik ateratzen dituzte beren diru sarrerak: metropolian, hogeitazortzi etxetatik bat Batasun Frantsesaren existentziari esker bizi da (hamalau milioi etxe inguru daudela uste da). Beraz, garrantzi handia du elkarrekiko merkatuak. Kide bakoitzak, metropolia alde batetik, itsasoaz haraindiko herrialdeak bestetik, bere jardueraren zati handi bat beste bazkidearen enkarguei zor die”<sup>59</sup>.

---

<sup>56</sup>1995eko abuztuaren 4ko 95-880 Lege Konstituzionala, <https://www.legifrance.gouv.fr/jorf/id/JORFTEXT000000188958/>, 2020ko abenduaren 18an ikusia.

<sup>57</sup><https://www.histoire-en-citations.fr/citations/la-decolonisation-est-notre-interet-et-par>, 2020ko abenduaren 9an ikusia.

<sup>58</sup>MARSEILLE, Jacques: *op. cit.*, 40. or.

<sup>59</sup>MOUSSA, Pierre: *Les chances économiques et la communauté franco-africaine*, Presses de la Fondation nationale des sciences politiques, Paris, 1957, 62. or.

**6. taula.** *Frantziako inportazioetan inperiotik eratorritako zatia (%)*

<b>Ondasuna</b>	<b>1890</b>	<b>1913</b>	<b>1929</b>	<b>1938</b>	<b>1949</b>	<b>1958</b>
Nekazal lehengaiak	18,7	28,6	37,5	71,2	63,4	71,1
Ardoa	16,8	56,7	83,8	96,8	91,2	83,5
Zerealak	10,2	12,1	29,4	80,5	43,1	78
Arroza	11,1	85,3	80,1	93,7	50,6	95,4
Fruta	4,7	17,3	13,6	48,7	72,5	72,1
Kafea	0,4	1,9	3,7	42,7	69,8	75,9
Kakaoa	3,8	2,2	56,1	88,4	98,9	85,5
Olinoa egiteko haziak eta anakardoak	17,8	25,1	25	54,4	73	77,8
Azukreak	71,9	100	16,5	77,8	23,9	94
Meatze eta metal lehengaiak	1,8	3,2	8,6	5,6	21,4	11,1
Fosfatoak		54,8	42,6	42	80,5	97,2
Larrua	4	10,9	17	16,6	26,2	14,6
Kotoia		0,1	2,2	3,6	8,2	18
Artilea	3,8	3,2	2,7	5,4	0,7	0,8
Zeta	0,4	0,2	3	1,6	0	0
Egurra	1,1	4,5	11,1	28	28,9	40,5
Kautxua		14,1	9,3	25,1	45,1	30,9

Iturria: Marseille, J. (1984)

Azaldu berri den 6. taulak eta hurrengo orrialdean aurki daitekeen 7. taulak metropoli eta kolonien arteko inportazio-esportazio harremanak azaltzen dituzte. Orokorrean, merkatu gaien fluxuak joera gorakorra izan zuen nahiz eta II. Mundu Gerratik aurrera lurralde kolonialen autonomia handitu. Inportatu eta esportatutako ondasunei erreparatuta, dinamika argi dago: Frantziak lehengaiak inportatu eta horietatik eratorritako eskulanak esportatzen zituen (adibidez, kotoia eskuratu eta kotoizko oihalak esportatzea).

7. taula. Frantziako esportazioetan inperioak jasotako zatia (%)

Ondasuna	1890	1900	1913	1929	1938	1949	1958
Ardoa	8,4	10,3	10,8	12,2	15	27,4	24,4
Anakardo olioak		5,2	7,9	68,2	89,6	95,7	95
Azukre errefinatuak	12,7	18	67,6	83,5	98,5	94,1	85,5
Artilezko oihalak	3	5,2	4,7	4,7	15,7	38,1	29,7
Zetazko oihalak	0,8	0,9	1,4	3,4	17,9	55,8	56,1
Kotoizko oihalak	34,8	46,1	33,1	49,9	84,6	89,2	83,6
Arropa eta lentzeria	13,7	22,7	11,2	10,4	34,5	63,3	78,8
Larruzko eskulanak	16,6	35,4	14,6	29,8	56,6	19,4	21,4
Papergintza artikulak	10,1	20,1	17,9	21,6	21,5	42,8	41,8
Xaboiak	56,2	72,4	65,1	24,2	44,3	91	92,2
Zementua		30,1	35,9	59,1	84,1	91	69,1
Produktu kimikoak	3,1	5,4	7	8,3	12,2	30,1	37,8
Metalezko tresna eta eskulanak	13,3	27,4	41,4	32,3	47	67,9	56,4
Makineria	8,1	20,6	29,9	30,7	41,2	55,5	39
Burdina eta altzairua	10	31	21,6	11,9	17,6	24,8	22,8
Automobilak			15,7	33,4	45,5	53,9	36,8

Iturria: Marseille, J. (1984)

Gauzak horrela, inperioaren baitako merkatuak babesteko lehentasun-sistema bat ezarri zen, zeinaren bidez lurralde kolonialetako produktuek metropolian abantaila komertzialak zituzten, eta alderantziz. Azken finean, Frantzia eta Afrikaren artean erabat integratutako merkatu komuna sortu zen, haien arteko arantzelik gabekoa. Merkatu franko-afrikarrak garrantzia berezia hartu zuen 1957an Erkidego Ekonomiko Europarra sortzeko Erromako Tratatu sinatzerako orduan: lurralde afrikarrei kontsultatu gabe, Frantziak antzinako koloniak merkatu europarraren barne kokatzea planteatu zuen<sup>60</sup>. Jarrera honek Errepublika Frantsesa potentzia koloniala izateari uzteko prest ez zegoela agerian utzi zuen; herrialde afrikarrek jada autonomia gradu altua zuten, eta inolako informazio formalik jaso gabe merkatu europar komunera lotzeko eztabaiden existentzia bera ere gerraosteko kolonialismoaren forma argienetakoa izan zen<sup>61</sup>.

<sup>60</sup>DIMIER, Véronique: *op. cit.*, 32. or.


<sup>61</sup>MOREUX, René: "La République française doit entrer avec ses Tom dans une Europe instituée, mais la France seule pourra négocier et décider dans nos pays d'outre-mer", *Marchés coloniaux du monde*, 1953, 2882. or.

### 3.4.2. Zama koloniala

1930eko eta 1940eko hamarkadetatik aurrera, ziurgabetasunak bultzatuta inbertsio pribatua kolonietatik erretiratzen hasi zen, eta itsasoaz haraindiko herrialdeen kaudimena bermatzea kapital publikoaren esku geratu zen<sup>62</sup>. Kolonietara zuzendutako inbertsio zuzenen atzera-egitea Europan hedatzen hasia zen ikuspegi aldaketaren ondorio izan zen. Depresio Handiak lehendabizi eta segituan II. Mundu Gerrak ekarritako ahulezia ekonomikoa presente izanik, metropolia “zama koloniala” delakoaz (autore frantsesek maiz erabilitako terminoa, *fardeau colonial*) jabetzen hasi ziren. Gauzak horrela, 1950eko hamarkadan, metropoli europarretan arrazoi pragmatikoak oinarri zituen anticolonialismoaren ideiak indarra hartu zuen. Iritzi mugimendu honek “Cartierismo” izena hartu zuen, Raymond Cartier kazetariak bere artikuluetan era suttsuan defendatu zuen tesia baitzen.

Cartierismoak koloniek metropoliarentzako etekin bat baino gastu bat suposatzen zutela defendatzen zuen. Behin koloniek independentzia lortuta, antzinako potentziek haien baliabide guztiak beraien ekonomia propioa modernizatu, eskualde deprimituak onbideratu eta bertako biztanleriari laguntza eskaintzeko erabiltzeko aukera izango zuten: “Bada garaia Lot-et-Garonne eta Basses-Alpes departamentuei Senegalen eta Madagaskarren xahutzen ditugun milaka milioiak eskaintzeko”<sup>63</sup>.

2. grafikoa. Frantziak eta Erresuma Batuak emandako garapen laguntzak



Iturria: Pacquement, F. (2010)

<sup>62</sup>MARSEILLE, Jacques: *op. cit.*, 40. eta 45. or.


<sup>63</sup>ETEMAD, Bouda: “L’Europe et le monde colonial. De l’apogée des empires à l’après-décolonisation”, *Revue économique*, 51. bol., 2. zk., 2000, 265-266 or.

Itxuraz, Cartierismoak antzinako kolonietara bideratutako dirulaguntzen bolumena gutxitzen asko lagundu zuen, 1962tik 1968ra NPGren %1'10etik %0'44ra igaro zelarik. Egia esan, analisi hori ez da erabat zuzena, laguntzen behera egiteak gehienbat Aljeriako gerra amaitzearekin eta Estatu independente berriarekin behar bezalako lankidetzaz ezartzeko zailtasunarekin baitu zerikusia. Afrika beltzari eskainitako laguntza, aldiz, sendo mantendu zen<sup>64</sup>.

Metropoliaren beharrak lurralde kolonialen aurretik jartzea 1964an Asanblea Nazionalean Jean Montalat politikariak formulatutako eslogan famatuan laburbil daiteke: *“La Corrèze avant que le Zambèze”*<sup>65</sup>. Corrèze departamentu frantses bat da, eta Zambèze, Afrikan kokatutako ibai bat.

\*\*\*

### 3. grafikoa. BPG eta biztanleriaren bilakaera Frantzian (1890-2018)



Iturria: egiletza propioa, Maddison Project Database (2020) oinarritzat

3. grafikoko datuei begira, deskolonizazioak ez zuen kapitalismo frantsesaren hazkundera moteldu; 1950ko hamarkadan bere esportazio guztien %35tik %42ra bitartean bereganatu eta hornigaiaren %25tik %30ra bitartean hornitzen zituen zonalde kolonial pribilegiatua galdu arren, ez dirudi Frantziak kalte handirik jasan zuenik<sup>66</sup>. Merkatu metropolitarraren eta afrikarraren arteko interdependentzia aintzat hartuta, nolatan izan zen posible deskolonizazioak Frantziako egoera ekonomikoan eraginik ez izatea?

<sup>64</sup>PORGÈS, Laurence: “L’aide et l’opinion française ou les limites de la générosité”, *Afrique contemporaine*, 188. zk., 1998, 128. or.

<sup>65</sup>Frantziako Asanblada Nazionaleko bilkura, 1964ko ekainaren 10a. <http://archives.assemblee-nationale.fr/>, 2020ko abenduaren 18an ikusia.

<sup>66</sup>MARSEILLE, Jacques: *op. cit.*, 39. or.

#### 4. FRANÇAFRIQUE: NEOKOLONIALISMOAREN AUZIA

Aurreko atalean planteatu berri den galderaren erantzuna sinplea da: Frantziako kolonia ohiak plano formalean Estatu subirano bihurtzeak ez zuen ordura arte izandako harremanen desagertzea ekarri. Hasieratik, Frantziak aurrera eramandako deskolonizazio prozesua dependentzia loturak betikotzeko helburuarekin diseinatu zen, egitura kolonial klasikoetatik dinamika neokolonialetara pasaz.

Neokolonialismoa egun argi eta garbi konnotazio negatiboak dituen terminoa da, printzipioz abolitutako sistema kolonialen biziraupenari erreferentzia egiten diona. Nahiz eta legalki independentzia aitortu, metropoliak bitarteko politiko, ekonomiko, sozial, militar eta tekniko bidez kolonia ohien gaineko zeharkako menderatzea egikaritzen du, sotilagoa dena<sup>67</sup>. Hizkera arruntean, Estatu frantsesak Afrikan posizio hegemonikoa mantentzearen 1960tik aurrera eratutako egitura neokolonialei buruz hitz egiterako orduan *Françafrique* terminoa erabiltzea ohikoa da, frantseseko *France* eta *Afrique* hitzak elkartzen dituena.

Besteak beste, *Françafrique* eratzea deskolonizazioak Frantzian izandako eragin ekonomiko negatibo ezaren arrazoi gisa uler daiteke: gauzak aldatu ziren ezer aldatu ez zedin. Beste era batera esanda, nahiz eta kolonien estatusa ezabatu, errealitate materiala bere horretan mantendu zen. Gainera, ikuspuntu errealista batetik, oso zaila litzateke luzaroan izandako egiturak egun batetik bestera bertan behera utzi eta hamarkadetan zehar garatutako legatu koloniala *de facto* abolitzea. Hala eta guztiz ere, metropoli eta kolonia ohien arteko harremanetan trantsizio garai baten beharrak ez du inolaz ere kolonialismoaren biziraupena justifikatu beharko.

*“Le fait colonial a, par son caractère massif, des implications persistantes”*<sup>68</sup>.

Labur esanda, Frantziak garai batean bere kolonia izandako herrialdeekin (botere) harremanak gorde zituen. Arestian plazaratutako tesi cartierista alde batera utzita, Afrikak paper ekonomiko bitala jokatu izan du Frantziarentzat lehengaien iturri gisa, bere manufaktura eta teknologien merkatu gisa eta kapital-inbertsioetarako *outlet* gisa<sup>69</sup>. Dena den, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala, denborak aurrera egin ahala merkataritza elkartrukeek behera egin zuten:

---

<sup>67</sup>“All-African People’s Conference, Cairo, March 23-31, 1961: Resolution on Neo-Colonialism”, in LEGUM, Colin: *Pan-Africanism: a short political guide*, Pall Mall, Londres, 1962, 254. or.

<sup>68</sup>ETEMAD, Bouda: *op. cit.*, 258. or. Itzulpen pertsonala: “Kolonialismoak, bere izaera masiboa kontutan hartuta, inplikazio iraunkorrak ditu”. Aipu honek, hain zuzen ere, kolonialismoak luzaroan finkatutako dinamikak egun batetik bestera abolitzeko ezintasunari egiten dio erreferentzia.

<sup>69</sup>MARTIN, Guy: “The Historical, Economic, and Political Bases of France’s African Policy”, *The Journal of Modern African Studies*, 23. bol., 2. zk., 1985, 196. or.

8. *taula. Metropoli frantsesaren eta kolonia (ohien) arteko elkartruke komertzialak*

	ESPORTAZIOAK		INPORTAZIOAK	
	Guztira (milioi USD)	Kolonietara (guztiaren %)	Guztira (milioi USD)	Kolonietatik (guztiaren %)
<b>1936-1938 (bataz bestekoa)</b>	932,8	29,0	1.544,2	26,4
<b>1995-1997 (bataz bestekoa)</b>	288,4	6,4	274,1	3,3

Iturria: egiletza propioa, Etemad, B. (2000) lana oinarritzat

Egitura neokolonial honen gurasoak, *Françafrique*-n sortzaileak, Charles de Gaulle eta Jacques Foccart lirarteke, Inperio frantsesak porrot behin betiko egin zuenean Frantziaren *grandeur*, antzinako hegemonia globala, hala edo nola mantentzea helburua izan zutenak.

1960. urtetik 1974ra, *Françafrique* kudeatzea Foccart-en figuraren inguruan zentralizatu zen, zeina afera afrikarren arduradun ofiziala izan zen De Gaulle eta Pompidou presidenteen agintaldiek iraun zuten bitartean. Behin Foccart erretiratu, ezkutuko egitura supranazional honen zuzeneko izaera estatala leundu eta nolabait pribatizatu zela esan daiteke, boterea *lobby* eta korporazio handi ezberdinen artean (Areva, Auchan, Bolloré, Bouygues, Elf, Orange...) banatu zelarik<sup>70</sup>. Aipatzekoa da azken aldiak Frantziak izandako presidente ezberdinek (zehazki Sarkozy, Hollande eta Macron) politika neokolonial frantsesarekiko geroz eta jarrera kritikoagoak agertu dituztela, baina egindako zenbait adierazpen publikoetatik aparte ez da inolako neurririk martxan jarri.

Deskolonizazio estrategia frantsesa “*divide and rule*” delako erregelari oinarritu izan zen, zeinak Mendebaldeko Afrika Frantsesa zein Ekuatorialaren federazio handiak zatitzea ekarri zuen<sup>71</sup>. Frantziak ordura arte kolonia handi bakar bat izandako lurralde bateratuak apurtu zituen, eta, ondorioz, garapen independentea lortzeko gai ez diren Estatu txiki ez-bideragarriak sortu<sup>72</sup>. 1960ko hamarkadan Estatu subirano bihurtu berri ziren lurraldeek ez zuten azpiegitura nahikorik sektore industrializatuetan lehiatzeko<sup>73</sup>. Oztopo ekonomikoek Frantziarekiko dependentzia agerian utzi eta metropoli ohiaren partetik jarrera paternalistak (arrazismoak ere elikatutakoak) sustatu zituzten. Herrialde afrikarren imajinario kolektiboan errotutako

<sup>70</sup>VERSCHAVE, François-Xavier: *Noir silence: qui arrêtera la Françafrique?*, Les Arènes, Paris, 2000, 278 or.

<sup>71</sup>MARTIN, Guy: *op. cit.*, 189. or.

<sup>72</sup>NKRUMAH, Kwame: *Neo-Colonialism: the last stage of imperialism*, Thomas Nelson & Sons, Londres, 1965, 13. or.

<sup>73</sup>AUSTIN, Gareth: “African Economic Development and Colonial Legacies”, *International Development Policy*, 2010, 30. par.

gutxiagotasun-komplexuak independentzia lortu ostean dominazio mota berriak garatzeko oinarri emankor eta iraunkorra suposatu zuen<sup>74</sup>.

Menderatze mekanismo berriak hasiera-hasietarik jarri ziren mahai gainean. 1960an Afrikako kolonia frantsesei independentzia aukera eman zitzaizenean, de Gaullek hura lortzeko zenbait baldintza ezarri zituen, gerora itun kolonial (frantsesez, *pacte colonial*) bezala ezagutuko zirenak:

- Tropa militar frantsesen kuartelak zenbait lurraldeetan ezartzeko aukera.
- Garai kolonialeko zorrak heredatzeko obligazioa.
- Ordura arte kolonietan erabilitako Afrikako Kolonia Frantsesen frankoa (sigla frantsesak erabiliz CFA frankoa izena hartzen duena) moneta komun gisa mantentzea.
- Baliabide natural zein lehengaien esplotazioan eragile frantsesentzako lehentasunezko erazketa eskubidea bermatzea.
- Frantsesa hizkuntza ofizial gisa hartzea, frankofonia hizkuntza autoktonoen gainetik gailenduz.

Garai postkoloniala inauguratu zuen baldintza sorta honek, paradoxikoki, harreman semikolonialak indartu zituen. Estatu berriak teorikoki independenteak ziren, baina hein handi batean Eliseoak politika monetarioa kontrolatzen zuen, eta defentsa arloa tropa frantsesen eskuetan zegoen<sup>75</sup>. Jada maiz azpimarratu den moduan, honek guztiak oraindik ere dirauen herrialde afrikarren dependentzia politiko, militar, ekonomikoa... ekarri zuen.

Interes ekonomikoetan hertsiki zentratuz, arestian azaldutako pentsamendu korrante cartieristaren arabera, koloniak zama ekonomiko hutsa ziren metropoliarentzat, baina *Françafrique*-n existentzia hutsak agerian uzten du Frantziak bazituela Afrikan presente jarraitzeko arrazoiak. Politika neokolonialak hegemonia frantsesa ziurtatzeko neurri ezberdinak baliatu zituela kontuan hartuta, arlo ekonomikoan garrantzitsuenak bi izan ziren: alde batetik, baliabide naturalen esplotazio pribilegiatua, eta bestetik itun kolonialetik eratorritako, CFA frankoaren sorrera.

#### **4.1. Baliabide naturalen esplotazioa eta dependentzia estrategikoa**

Azpimarratu berri den bezala, politika neokolonial frantsesak kutsu paternalista nabarmena du: teorikoki, Frantziak herrialde afrikar independenteetan esku sartzearen arrazoia azken hauek

---

<sup>74</sup>MARTIN, Guy: *op. cit.*, 190. or.

<sup>75</sup>ARANCÓN RUIZ, Fernando: “La Francáfrica o el imperio neocolonial francés”, *El Orden Mundial*, 2015. <https://elordenmundial.com/la-francafrica-imperio-neocolonial-frances/>, 2021eko urtarrilaren 7an ikusia.



haien kabuz bizirauteko gai ez direla da<sup>76</sup>. Egia da antzinako koloniek, orokorrean, garapena bultzatzeko arazoak dituztela, baina argi utzi beharra dago Frantziaren ekintzen atzean elkartasun edo solidaritate helburuetaz haratago bestelako interesak bazeudela, gaur egunera arte indarrean jarraitzen dutenak.

Historikoki, ekonomia kapitalista aurreratuetakoa kapital akumulazioa lehengai merkeak eskaintzen dituzten hornitzaileekiko dependentzia handitzearekin batera aurkeztu izan da<sup>77</sup>. Nahiz eta kolonia ohiek metropoli frantsesarekiko duten dependentzia une oro azpimarratu izan den, Frantziak ere Afrikako zenbait herrialdeekiko izugarritzko dependentzia izan duela (eta oraindik ere baduela) gogoratu beharra dago. Izan ere, bere ekonomia eta defentsa nazionala bermatzeko ezinbestekoak diren lehengai afrikarrak inportatu behar ditu<sup>78</sup>. 9. taulan ikus daitekeen bezala, Frantziaren dependentzia erabatekoa izatera iritsi zen zenbait lehengairen kasuan:

**9. taula.** *Frantziaren dependentzia tasa Afrikako lehengaiekiko 1980an*

<b>Lehengaia</b>	<b>Dependentzia tasa (%)</b>
Bauxita	86
Fosfatoak	83
Kobaltoa	100
Kobrea	32
Manganesoa	35
Urania	87 – 100

Iturria: egiletza propioa, Martin, G. (1985) lana oinarritzat

Lehengai zein baliabide naturaletan oso aberatsa izan arren, kontinente afrikarrean munduko herrialde txiroenak aurki ditzakegu. Fenomeno honi “baliabide naturalen madarikazioa” deitu izan zaio, lehengaiekiko mendekotasuna duten ekonomiek, orokorrean, haietatik eratorritako esplotazioa dela eta hazkunde ekonomikoa izan beharrean, garapen ratio oso baxuak dituzte eta. Gaitz horren atzean nazioartean lehengaiak duten prezioen aldakortasuna, gainerako sektore

<sup>76</sup>Frantziak ofizialki potentzia kolonial izatera utzi zionean, ordura arte Ministerio Kolonial bezala ezagutzen zena Kooperazioaren Ministerioa izatera pasa zen, honen helburu nagusia antzinako kolonien garapena bultzatzeko diru laguntzak kudeatzea zelarrik. 1999ra arte existitu zen, urte horretan Kanpo Aferen Ministerioan integratzea erabaki zen eta.

<sup>77</sup>MUÑOZ VALENZUELA, Heraldo: “Strategic Dependency: relations between core powers and mineral-exporting periphery countries”, in KEGLEY, Charles W. eta MCGOWAN, Patricia (ed.): *The Political Economy of Foreign Policy Behavior*, SAGE, Londres, 1981, 191. or.

<sup>78</sup>MARTIN, Guy: “Uranium: a Case-Study in Franco-African Relations”, *The Journal of Modern African Studies*, 27. bol., 4. zk., 1989, 625. or.

ekonomikoekiko lotura urria eta Estatuak zein eragile pribatuek bilatzen dituzten etekin errentistak aurki daitezke<sup>79</sup>.

Arlo ekonomikoan, madarikazio honek “Herbeheretako gaixotasun” izena jasotzen du, eta herrialde baten gas- edo petrolio-esportazioak nabarmen handitzeak izan ditzakeen inpaktu negatiboak islatzen ditu: dibisa-sarrerak handitzea; diru-masa handitzea; inflazioa (esportaziorako inpaktu negatiboekin); kapital- eta lan-faktoreak merkaturatzen ez diren ondasun nazionalen ekoizpena birbideratzea hazten ari den petrolio-sektorean inbertitzeko; ekonomiaren dibertsifikazioa murriztea eta beste sektore produktibo zein esportatzaile tradizionaleri kalteak eragitea<sup>80</sup>.

Ikuspuntu politiko batetik, baliabideen madarikazioak ustelkeria maila altuak eta gobernantza egoki zein demokrazia falta dakartza, giza garapen indize oso baxuak aurkeztuz, oinarrizko eskubide eta askatasunen urratze sistemikoen testuinguruan kokatzen garelarik<sup>81</sup>. Afrikako herrialde ugari pairatzen duten egoera latza teoria honek plazaratutako premisekin bat datorren arren, azpimarratzekoa da azpigarapen horren atzean faktore ezberdinak egon daitezkeela (aurrerapen teknologikoa, instituzio publikoen egonkortasuna, klima...), eta baliabide naturaletan aberatsak diren herrialde guztiek ez dutela madarikazio horren seinalerik eman (ikusi, esaterako Kanada edo Norvegiaren kasuak).

Herrialde afrikarren kasuan, antzinako potentzia kolonialek bai kolonialismo garaian bai horren ostean aurrera eramandako espoliazioa, gaur egun elite afrikarrek korporazio europarrekin akordatutako emakiden bitartez burutzen dena, kontuan hartzeko faktorea da, lehengaiak esportatzearekin batera, etekinen zati handi bat eragile atzerritarren esku geratzen da eta.

Frantziak inportatzen dituen lehengaien artean, ohikoenak hurrengokoak lirateke: Afrika Erdiko Errepublikako metal ezberdinak, Gaboneko petrolio, Gineako bauxita, Maliko kotoi eta urrea, Niger-eko uranioa, Togoko fosfatoak... Zerrenda luzea da, eta analisi apur bat sakonagoa burutzearen, bereziki garrantzizkoak diren bi adibide estrategikoren inguruan arituko gara: uranioa eta petrolio, Frantziaren independentzia energetikoa bermatzeko ezinbestekoak.

---

<sup>79</sup>WIRTH, Eszter: “La maldición de los recursos naturales y los hidrocarburos: una revisión de literatura”, *Papeles de Europa*, 31. bol., 1. zk. 2018, 20. or.


<sup>80</sup>GARCÍA LUENGOS, Jesús: “Explotación de los recursos naturales en África: la industria extractiva”, *Centro de Investigación sobre Seguridad y Gobernanza Transnacional*, 2014, 27. or.

<sup>81</sup>*Ibidem*.

#### 4.1.1. Uranioa: Niger-en kasua aztergai

Niger, kontinente afrikarreko herrialde txiroenen artean aurkitzen dena (Nazio Batuek urtero eratzten duten HDI edo Giza Garapen Indizearen zerrendan 189. postuan kokatzen da, azkena izanik<sup>82</sup>), munduko seigarren uranio ekoizle handiena da, urtero hiru mila tona inguru (produkzio mundialaren %6tik gertu) produzitzen dituelarik<sup>83</sup>. Dena den, ekonomiaren oinarria nekazaritza da, BPGaren %42a inguru hartzen baitu, industriak %17a eta zerbitzuek %41a hartzen duten bitartean. Nahiz eta sektore garrantzitsuena izan, nekazaritza-ekoizpen gehiena familia-ustiategi txikiek burutzen dute (biztanleria aktiboaren %80ak nekazaritzan jarduten du), ia osotasunean autokontsumorantz bideratzen dena<sup>84</sup>.

4. grafikoa. Meatzetatik eratorritako uranio produkzioa (tonatan)



Iturria: egiletza propioa, World Nuclear Association (2020) oinarritzat

Frantziaren hornidura elektrikoaren %75 inguru energia nuklearrean du jatorria<sup>85</sup>. Niger-etik lortutako uranioak berebiziko garrantzia du, zentral nuklear frantsesek erabilitako lehengaien herena jatorri nigertarra du eta (perspektiban jartzearen, uranio nigertarra hiru bonbilla frantsesetik bat piztearen arduraduna da)<sup>86</sup>. Frantziak hornidura elektrikoa ziurtatzeko Niger-

<sup>82</sup>2020ko HDI ranking-a osotasunean hurrengo estekan eskuragarri: <http://hdr.undp.org/en/content/latest-human-development-index-ranking>, 2021eko urtarrilaren 4an ikusia.

<sup>83</sup>Uranio ekoizpenaren inguruan sakontzeko, ikusi: <https://www.world-nuclear.org/information-library/nuclear-fuel-cycle/mining-of-uranium/world-uranium-mining-production.aspx>, 2021eko urtarrilaren 10ean ikusia.

<sup>84</sup>Ekonomia nigertarri buruzko datuak, hurrengo estekan eskuragarri: [https://www.tresor.economie.gouv.fr/Pays/NE/indicateurs-et-conjoncture#\\_ftn1](https://www.tresor.economie.gouv.fr/Pays/NE/indicateurs-et-conjoncture#_ftn1), 2021eko urtarrilaren 13an ikusia.


<sup>85</sup>World Nuclear Association (2020) eskaintako datuak, hurrengo estekan eskuragarri: <https://www.world-nuclear.org/information-library/country-profiles/countries-a-f/france.aspx>, 2021eko urtarrilaren 13an ikusia.

<sup>86</sup>MORAL MARTÍN, Pablo: “Niger, atrapado en el uranio”, *El Orden Mundial*, 2018. <https://elordenmundial.com/niger-atrapado-en-el-uranio/>, 2021eko urtarrilaren 13an ikusia.

ekiko dependentzia duen bitartean, Niger-en soilik biztanleriaren %17'6ak du elektrizitaterako sarbidea<sup>87</sup>.

Azken datu horrek argi uzten du Niger-ek ez duela uranio iturri horretaz gozaten hornidura elektriko domestikoetan. Izan ere, 1960an independentzia lortu zuenetik, ezin izan ditu bere baliabide naturalak autonomoki kudeatu, uranioaren ustiapenaren monopolioa Areva (2017. urteaz geroztik Orano izena duena) enpresaren eskuetan zegoen eta, zeinek Gobernu frantsesaren gehiengo partaidetza (eta ondorioz, kontrola) duen. Erabateko kontrol honen jatorria Niger eta Frantziaren artean 1961ean sinatutako “defentsa akordioa”<sup>88</sup> dugu, zeinetan Nigerrek uranioa hornidura frantsesetarako erreserbatu beharko zela zehaztu zen. Mineral horiek, petrolioarekin batera, “lehengai estrategiko” gisa sailkatu zituen Frantziak, eta hori dela eta, hirugarren herrialdeek haiek eskuratzea mugatu eta Frantziaren esku utzi behar ziren, *defentsa komuna* bermatu ahal izateko<sup>89</sup>.

**5. grafikoa.** Niger-eko uranio erauzketa kontrolatzen duten joint venture-ak



Iturria: egileza propioa, World Nuclear Association (2020) oinarritzat

<sup>87</sup>Elektrizitaterako sarbidea Niger-en, 1992tik 2018ra: <https://data.worldbank.org/indicator/EG.ELC.ACCS.ZS?locations=NE>, 2021eko urtarrilaren 13an ikusia.

<sup>88</sup>Frantzia eta haren kolonia izandako herrialdeen arteko harremanak arautzeko itunak oso ohikoak izan ziren XX. mendeko bigarren erdialdean, kooperazio akordio izena dutenak. Orokorrean, Frantziak zenbait pribilegio lortzen zituen herrialde horretan, eta horien truke garapenerako dirulaguntzak zein bestelako bitarteko teknikoak eskaintzen zituen. Baliabide tekniko horiek, besteak beste, tropa militarrek izan zitekeen, eta kasu zehatz horretan itun hauek defentsa akordio gisa kalifikatzen ziren.

<sup>89</sup>Frantziaren eta Boli Kosta, Dahomey (gaur egun, Benin) eta Niger-en artean sinatutako 1961ko defentsa akordioa hurrengo estekan irakurgai: [https://www.senat.fr/leg/1960-1961/i1960\\_1961\\_0226.pdf](https://www.senat.fr/leg/1960-1961/i1960_1961_0226.pdf), 2021eko urtarrilaren 14an ikusia.

Areva-ren monopolioaren amaiera 2007an eman zen, baina hala eta guztiz ere, gaur egun Frantziak konpainia subsidiarioen bitartez meatze nigertar nagusiak kontrolatzen jarraitzen du<sup>90</sup>. 5. grafikoan ikus daitekeen bezala, Estatu nigertarraren jabetzakoa den Sopamin-ek presentzia du erauzketa *joint venture* guztietan, baina ez du *de facto* kontrola izateko partaidetza nahikorik. Bestalde, 2007. urteaz geroztik indartzen joan den presentzia txinatarra (Somina sozietatearen bitartez) azpimarratzekoa da.

Areva-k, tradizionalki, ustiapenerako monopolioa izateaz aparte, abantaila komertzialak izan ditu (esaterako, aduana-zergarik ez ordaintzea), eta hauek uranioaren ekoizpena eta esportazioa Niger-entzat bereziki onuragarria ez den negozioa bihurtu dute, gobernu nigertar eta multinazional frantsesaren arteko kontratuen ezaugarri nagusiak gardentasun eza eta desparekotasun nabaria izan direlarik. Nahiz eta 2007an Areva-ren monopolioa desagertu, 2014an akordio berri batera heldu ziren arte, korporazio galiarrak %5'5eko kanona baino ez zuen ordaintzen meatzeak ustiatzeagatik. Egun, %12a ordaintzen du<sup>91</sup>.

Hitz gutxitan esanda, Niger pobrezian itota jarraitzen duen bitartean, Frantziak bere baliabide naturalen arpilatzea aurrera eramaten jarraitu du, garai kolonialen luzapen hutsa dirudien dinamikak betikotuz. Perspektiban jartzearren, 2010ean Niger-ek 459 milioi euro inguru jaso zituen 3.500 milioi euro baino gehiagotan baliotsita zegoen uranio produkzioaren esportazioagatik<sup>92</sup>. Uranioa Niger-eko esportazio-etekinen %40a suposatzen duen arren, BPG totalaren parte oso txikia da (%5 ingurukoa), eta lehengai honek azkenaldian izan dituen prezio minimoek herrialde esportatzailearen arazoa areagotu dute, Frantziarentzako onuragarria den bitartean<sup>93</sup>. Gainera, uranioa baliabide ez-berriztagarria izanik, hurrengo urteotan meatze nagusien esplotazioa etengo dela kontuan hartu beharrekoa da<sup>94</sup>. 6. eta 7. grafikoetan igar daitekeen bezala, Niger-ek ez du hazkunde fluktuazio handirik izan independentzia lortu

---

<sup>90</sup>Uranio nigertarraren inguruko datu gehigarriak hurrengo estekan eskuragarri: <https://www.world-nuclear.org/information-library/country-profiles/countries-g-n/niger.aspx>, 2021eko urtarrilaren 14an ikusia.

<sup>91</sup>“Areva signe un accord avec le Niger sur les mines d’uranium”, *Le Monde*, 2014ko maiatzaren 26a. [https://www.lemonde.fr/afrique/article/2014/05/26/areva-signe-un-accord-avec-le-niger-sur-les-mines-d-uranium\\_4426359\\_3212.html](https://www.lemonde.fr/afrique/article/2014/05/26/areva-signe-un-accord-avec-le-niger-sur-les-mines-d-uranium_4426359_3212.html), 2021eko urtarrilaren 14an ikusia.


<sup>92</sup>MORAL MARTÍN, Pablo: *op. cit.*

<sup>93</sup>Uranioaren prezioaren joera kontsultatzeko, ikusi: <https://www.cameco.com/invest/markets/uranium-price>, 2021eko urtarrilaren 14an ikusia.

<sup>94</sup>Orano-k Cominak sozietateak kontrolatutako meatzeak itxiko dituelaren berri eman zuen 2019an, erauzketa kostu altuak dela eta. Aurreikusitako itxiera data 2021eko martxo da, eta 1500 lanpostu inguru suntsitzea ekarriko du, jada deprimetuta dagoen eskualdea are gehiago pobretuz. Informazio gehiago hurrengo estekan: <https://afrique.latribune.fr/finances/commodities/2019-10-29/orano-niger-choc-et-desolation-apres-l-annonce-de-la-fermeture-de-la-societe-cominak-par-le-groupe-francais-831809.html>, 2021eko urtarrilaren 15ean ikusia.


zuenetik, eta are gehiago, hura lortu baino lehen zuen BPG per capita baxuagoa du; 2018an lortutako datua Frantziakoa baino berrogei aldiz txikiagoa izan zen.

**6. grafikoa. Frantzia eta Niger-en BPG per capitaren alderaketa (USD)**



Iturria: egiletza propioa, Maddison Project Database (2020) oinarritzat

**7. grafikoa. BPG eta biztanleriaren bilakaera Niger-en (1950-2018)**



Iturria: egiletza propioa, Maddison Project Database (2020) oinarritzat

**4.1.2. Petrolioa: Gabonen kasua aztergai**

Historikoki, Gabonen ekonomia baliabide naturalen esplotazioan oinarritu izan da, hauen aniztasuna nabarmena delarik: egurra, manganesoa, uranioa, gas naturala, petrolioa... Nazioarteko merkatuan, manganeso gabondarrak eskuragarri dagoen produkzio osoaren %25a suposatzen du, eta gas naturalaren erreserbak hogeita hamahiru milioi m<sup>3</sup>-koak zirela kalkulatu

zen 2008an. Baliabide naturalak askotarikoak izan arren, petrolioaren sektorea izan da 70eko hamarkadaren erdialdetik hona ekonomia gabondarraren zutabe<sup>95</sup>.

Gabon Afrikako bosgarren petrolio ekoizle handiena da. 2010 eta 2014 urteen artean, petrolio sektoreak bataz beste esportazioen %80a eta BPGren %45a suposatu zuen<sup>96</sup>. 2014az geroztik, petrolioaren prezioen izugarritzko gainbehera dela eta, gobernu gabondarrak ekonomia dibertsifikatzeko politikak hartzeari ekin dio, besteak beste, nekazaritza sektoreari garrantzi gehiago emanez eta palma-olio eta kautxu ekoizpena eskala industrialera eramanez<sup>97</sup>.

Aztertu berri den Niger-en kasuan zein baliabide naturaletan aberatsak diren gainerako herrialde afrikarrekin gertatzen den bezala, hauen esplotazioa gehienbat korporazio atzerritarren eskuetan dago, bertakoek etekin eskasak lortzen dituztelarik. Gabonek independentzia 1960an lortu zuenetik, Frantziarekiko mantendutako loturak oso estuak izan dira, herrialde afrikar honen aberastasun naturala estrategikoa baitzen (eta oraindik ere, bada) antzinako potentzia kolonial frantsesaren interesak babesterako orduan.

Lotura franko-gabondarraren harira, 1974an bi herrialdeen artean sinatutako kooperazio akordioa aipatzea ezinbestekoa da, zeinetan Gabonek uranioa, torioa, litioa, berilioa eta helioa hornidura frantsesetarako erreserbatu beharko zuela zehaztu zen. Akordio hau Niger-ekin 1961ean burututakoaren oso antzekoa da, lehengai estrategiko eta defentsa komunaren tesia jarraituz.

Petrolioaren sektorera itzulita, Gabonek honen ekoizpena hala edo nola kontrolatzeko ahaleginak egin ditu, horretarako hurrengoko neurri juridikoak nabarmentzen direlarik: 1962ko Meatze Kodeak<sup>98</sup> Estatuari petrolio ekoizle diren sozietatetan %25eko partaidetza izateko eskubidea onartu zion, eta 1982an indarrean sartutako (eta oraindik ere aplikagarri den) hidrokarburoei buruzko legeak<sup>99</sup> Estatu eta enpresen arteko ekoizpen partekatu kontratuak arautu zituen. Erregimen honen arabera, Estatua petrolio ekoizpen ororen *jabea* da, eta enpresa esplotatzaileak zerbitzu prestazio bat ematen du. Zerbitzu horren truke, enpresa operatzaileak

---

<sup>95</sup>GUEYE, Cheik: “La gestion de la richesse pétrolière au Gabon”, in AKITOBİ, Bernardin eta COOREY, Sharmine (zuz.): *Richesse pétrolière en Afrique centrale. Les moyens d'une croissance solidaire*, FMI, 2012, 206. or.

<sup>96</sup><https://www.tresor.economie.gouv.fr/Pays/GA/situation-economique-du-gabon>, 2021eko urtarrilaren 14an ikusia.

<sup>97</sup><https://www.afdb.org/fr/countries/central-africa/gabon/gabon-economic-outlook>, 2021eko urtarrilaren 15ean ikusia.


<sup>98</sup>15/62 Legea, zeinaren bitartez Gabongo Meatze Kodea ezartzen den, hurrengo estekan irakurgai: <http://extwprlegs1.fao.org/docs/pdf/gab39460.pdf>, 2021eko urtarrilaren 17an ikusia.

<sup>99</sup>14/82 Legea, hidrokarburoen esplotazioari buruzkoa, hurrengo estekan irakurgai: [https://www.yavascalarafrica.com/backoffice/documents/Yavascalarafrica\\_191113\\_085159.pdf](https://www.yavascalarafrica.com/backoffice/documents/Yavascalarafrica_191113_085159.pdf)

ekoizpenaren parte bat eskura dezan aurreikusten da<sup>100</sup>. Produkzio portzentaje horri *cost oil* deitzen zaio, eta gainerako produkzioari, zeina kontratuan ezarritakoaren arabera banatuko den, *profit oil*. Total petrolio korporazioak eskainitako datuen arabera, etekinen banaketa hori %82 Estatu ekoizlearentzat eta %18 konpainiarentzat izan ohi da<sup>101</sup>

Mekanismo juridiko hauek Estatu gabondarraren interesak atzerriko enpresa handien aurrean babesteko ezkutu papera jokatu dute, eta hori dela eta, Areva-ren monopolio erregimenak zigortutako Niger-en kasuan ez bezala, Gabonek haren baliabide naturalei esker hazkunde ekonomikoa esperimentatu du. Gaur egun, HDI edo Giza Garapen Indizearen zerrendan 119. postuan kokatzen da<sup>102</sup>.

### 8. grafikoa. BPG eta biztanleriaren bilakaera Gabonen (1950-2018)



Iturria: egiletza propioa, Maddison Project Database (2020) oinarritzat

Aipatu bezala, 2014az geroztik petrolio sektorean pairatzen ari den gainbeherak ekonomia gabondarrean eragin negatibo nabariak izan ditu, eta herrialdea dibertsifikazio prozesu batean murgilduta dago. 2020ko martxoan petrolioaren prezioa erori zenean, gabondar jatorriko hidrokarburoen inportazio frantsesak %64 jaitsi ziren<sup>103</sup>.

<sup>100</sup>GUEYE, Cheik: *op. cit.*, 207 or. 2018. urtean, palma-olioa tratatzeko hiru fabrika ireki ziren, zeinetan 27.405 tona olio produzitu zituzten.

<sup>101</sup><https://www.planete-energies.com/fr/content/contrat-de-partage-de-production#:~:text=Contrat%20p%C3%A9trolier%20selon%20les%20termes,producteur%20et%20la%20compagnie%20op%C3%A9ratrice.&text=Ce%20type%20de%20contrat%20fait,concerne%20l'estimation%20des%20d%C3%A9penses,2021eko%20urtarrilaren%2018an%20ikusia.>


<sup>102</sup>Gabonen HDI indizeari buruzko xehetasunak, hurrengo estekan eskuragarri: <http://hdr.undp.org/en/countries/profiles/GAB>, 2021eko urtarrilaren 15ean ikusia.

<sup>103</sup>[https://www.tresor.economie.gouv.fr/Pays/GA/echanges-commerciaux-france-gabon-au-premier-semestre-2019#:~:text=Avec%20la%20chute%20des%20cours,%25%20\(56%20M%E2%82%AC\),2021eko%20urtarrilaren%2015ean%20ikusia.](https://www.tresor.economie.gouv.fr/Pays/GA/echanges-commerciaux-france-gabon-au-premier-semestre-2019#:~:text=Avec%20la%20chute%20des%20cours,%25%20(56%20M%E2%82%AC),2021eko%20urtarrilaren%2015ean%20ikusia.)



Errepublika Gabondarrak bere baliabide propioak kudeatu eta horien esplotazioan kontrol estatala nagusitzeko ahaleginak egin ditu, eta XX. mendean hartutako eta azaldu berri diren neurri legeletaz gain, 2011. urtean petrolio konpainia publikoa sortzeko urratsa eman zuen, *Gabon Oil Company*. Dena den, Frantziako enpresen presentzia eta ekoizpenaren gaineko kontrola handia da oraindik ere, herrialdeko enpresa erauzle indartsuena Perenco anglo-frantsesa delarik.

**9. grafikoa.** *Frantzia eta Gabon-en BPG per capitaren alderaketa (USD)*



Iturria: egiletza propioa, Maddison Project Database (2020) oinarritzat

Amaitzeko, aipatu beharra dago Gabon pixkanaka ari dela ekonomiaren eremu ezberdinetan antzinako potentzia kolonialaren itzala ezabatzen, besteak beste, ordura arte kudeaketa pribatuko zerbitzuak nazionalizatzea dela medio. Petrolio ekoizpenaren gainean Frantziak monopoliorik lortu ez zuen bitartean, 1997. urtetik Veolia enpresa frantsesak Gaboneko ur- eta elektrizitate-hornidura kontrolatzen zituen SEEG (*Société d'énergie et d'eau du Gabon*) filialaren bitartez, elkarlan publiko-pribatuaren markoan kokatuz<sup>104</sup>. 2018an, Errepublika Gabondarrak aldebakarreko jarrera hartu eta monopolio hori arautzen zuen kontratua apurtzea erabaki zuen, SEEG publiko bihurtzeko helburuarekin. Veoliak Gabonen ekintza hau “legez

<sup>104</sup><https://www.rfi.fr/fr/afrique/20190220-apres-20-ans-presence-veolia-quitte-le-gabon-petite-porte>, urtarilaren 15ean ikusia.

kontrako desjabetze” gisa kalifikatu zuen, eta nazioarteko arbitraje prozesu bat martxan jartzeko asmoa adierazi<sup>105</sup>.

\*\*\*

Bi kasu zehatz baino ez aztertu diren arren, baliabide naturalen gaineko eragile atzerritarren kontrola herrialde afrikarretan oro har errepikatzen den dinamika dugu, meneratze kutsu neokolonial nabariak dituen. Subiranotasun estatalak, nazioarteko zuzenbide publikoan oinarritutakoak, baliabide naturalak dituzten lurraldeetako gobernuei horien kudeaketa arautu eta antolatze prerrogatibak ematen dizkie. Beraz, bertako Estatuetakoa agintariak dira, herri-borondatearen ordezkari gisa, erauzketa enpresekin mineralen eta hidrokarburoen esplorazio zein ustiapena negoziatzen dutenak, baina sektore hauen ezaugarri finantzario eta teknikoek parte-hartzaileen kopurua mugatzen dute, Areva-k hamarkadetan izandako monopolioa bezalako egoerak eraginez. Izan ere, inbertsio ekonomiko handiak burutzeko ahalmena izateaz gain, teknologia eta *know how* oso espezializatuak beharrezkoak dira, normalean atzerriko korporazio eta multinazional handiek baino ez dituztenak<sup>106</sup>.

Gauzak horrela, Frantziak erraz izan du oztopo handirik gabe baliabide natural afrikarrak bere mesedetan esplotatzerako orduan, hasiera batean herrialde afrikarren independentzia osteko kooperazio-akordioak baliatuz eta denborak aurrera egin ahala izaera pribatua izan arren Estatu frantsesarekin lotura handia duten korporazioen bitartez arituz.

#### **4.2. CFA frankoa: moneta politika neokoloniala**

CFA frankoa 1945ean Frantziak Bretton Woods akordioan markoan sortutako moneta da, zeinarekin batera CFP frankoa<sup>107</sup> delakoa eratu zen ere. Garai hartan, CFA siglek “*Colonies Françaises de l’Afrique*” esan nahi zuten, baina 1973an, behin koloniak Estatu subirano eta independenteak zirelarik, formalki ezer aldatu barik esanahia “*Coopération Financière en Afrique centrale*” eta “*Communauté Financière Africaine*” izatera pasa zen<sup>108</sup>.

---

<sup>105</sup>DUVAL, Jérôme eta PETITJEAN, Olivier: “Expulsada de Gabón, la multinacional francesa Veolia recurre otra vez al arbitraje internacional”, Marisa ALMOR SABIRÓN (itz.), *Cultura para la esperanza: instrumento de análisis para la realidad*, 109. zk., 2018, 38. or.

<sup>106</sup>GARCÍA LUENGOS, Jesús: *op. cit.*, 27. or.

<sup>107</sup>Hasiera batean “*Colonies Françaises du Pacifique*” esan nahi zuen, baina ostera, Afrikaren kasuan bezala, “*Communauté Financière du Pacifique*” izatera pasa zen, eta gaur egun oraindik Errepublika Frantsesaren parte diren Kaledonia Berrian, Polinesia frantsesean eta Wallis eta Futunan erabilitako moneta da. Euro batek 120 CFP franko balio du.

<sup>108</sup>BOST, François: “France, Afrique, mondialisation. Le «pré carré» français à l’épreuve de la décolonisation et de la mondialisation de l’économie”, *Bulletin de l’Association de géographes français*, 87. zk., 2010, 133. or.

CFA laburdurak bi adiera izatearen arrazoia zona ekonomiko bananduetako bi moneta ezberdinei erreferentzia egiten diola da: alde batetik, Afrika Erdialdeko CFA frankoa, eta bestetik, Mendebaldeko Afrikakoa. Gaur egun, hamalau Estatuk erabiltzen dute CFA frankoa<sup>109</sup>. 1960ko hamarkadan independentzia lortu zutenean, antzinako koloniek moneta propioa eratzeko aukera izan zuten, baina Britainia Handiko kolonien kasuan ez bezala, Afrika frankofonoak ez zuten oro har posibilitate hori egikaritu<sup>110</sup>. Errefus horren atzean, batik bat, arestian aipatutako de Gaulle-ren agintaldian diseinatutako pakto koloniala dugu, Frantziarekiko dependentzia loturak indartu eta betikotu zituenak.

Afrika Erdialdeko zonaldean kokatutako zortzi herrialdeek Afrika Erdialdeko Komunitate Ekonomiko eta Monetarioa (CEMAC da akronimo frantsesa)<sup>111</sup> osatzen dute, moneta igorlea Kamerungo Yaunde hirian egoitza duen Afrika Erdialdeko Estatu Bankua (BEAC) delarik. Mendebaldeko Afrikan kokatutako gainerako sei herrialdeek, berriz, Mendebaldeko Afrikako Batasun Ekonomiko eta Monetarioa (UEMOA)<sup>112</sup>, moneta igorlea Senegaleko Dakar hirian egoitza duen Mendebaldeko Afrikako Estatu Banku Zentrala (BCEAO) delarik.

Printzipioz, CFA frankoa kolonia frantses izandako lurraldeentzat zegoen “erreserbatuta”, baina badira eragin frantseseko eremuan integratu diren jatorri ezberdinetako bi kolonia ohi: batetik, 1994an CEMAC-era batu zen Ginea-Bissau kolonia portugaldar ohia, eta bestetik, kolonia espainiar izandako Ekuatore Ginea, zeinak 1985ean CFA frankoa bere egin eta 1998an frantsesa hizkuntza koofizial deklaratu zuen<sup>113</sup>.

---

<sup>109</sup>Madagaskar eta Mauritaniak moneta hau 1973an erabiltzeari uko egin zioten. Mali, zeinak 1962an zona frankoa abandonatu zuen, 1984an berriro integratu zen.

<sup>110</sup>AUSTIN, Gareth: *op. cit.*, 39. par.

<sup>111</sup>Komunitatearen inguruan sakontzeko, ikusi CEMAC-en web orrialde ofiziala: <http://www.cemac.int/>, 2021eko urtarrilaren 18an ikusia.

<sup>112</sup>Batasunaren inguruan sakontzeko, ikusi UEMOA-ren web orrialde ofiziala: <http://www.uemoa.int/>, 2021eko urtarrilaren 18an ikusia.


<sup>113</sup>NDONGO-BIDYOGO, Donato: “África francófona: el polémico franco CFA”, *Asodegue*, 2016. <http://www.asodeguesegundaetapa.org/afrika-francofona-el-polemico-franco-cfa-donato-ndongo-bidyogo-consejeros-2/>, 2021eko urtarrilaren 18an ikusia.

### 3. irudia. CFA frankoa duten herrialdeak, zonaldeka

Afrika Erdialdeko CFA frankoa
Benin
Burkina Faso
Boli Kosta
Ginea-Bissau
Mali
Niger
Senegal
Togo

---

Mendebaldeko Afrikako CFA frankoa
Afrika Erdiko Errepublika
Ekvatore Ginea
Gabon
Kamerun
Kongo
Txad



Iturria: egiletza propioa

Herrialde frankofonoek independentzia lortu zutenean, CFA frankoa erabiltzen jarraitzeak zekarren abantaila nagusia franko frantsesarekiko kanbio finkoa zen<sup>114</sup>. Nahiz eta argi eta garbi komertzio frantsesaren interesak babesteko neurri protekzionista izan, Estatu afrikarrentzat egonkortasun monetarioa bermatzeko mekanismoa ere bazen, Estatu jaioberriei nolabaiteko segurtasuna ematen ziena. Dena den, paktu kolonialean planteatutako abantaila horrek hain onuragarriak ez ziren bestelako zenbait neurri kolateral ekarri zituen: Frantziako Banku Zentralak arestian aipatutako CEMAC eta BCEAO bankuen erabakien gain beto eskubidea, eta bi zonalde ekonomikoak osatzen dituzten dibisa erreserben %50a Frantziako Banku Zentralean gordailutu beharra<sup>115</sup>.

Bi baldintza hauek onartzeak politika monetarioaren gaineko erabakitze ahalmena altxortegi frantsesaren eskuetan uztea suposatu zuen, kolonialismoaren garaiko antzeko eskemak

<sup>114</sup>Gaur egun, noski, franko frantsesarekiko kanbio finkoak ez du aplikazio praktikorik, eta 1999. urteaz geroztik euroarekiko egiten da. Euro batek, zehazki, 656'45 CFA franko balio du.

<sup>115</sup>ARANCÓN RUIZ, Fernando: *op. cit.*

jarraituz. Atzerriko banku bati beto eskubidea onartzeak dakarren sumisioaz aparte, erreserbak Frantziako Banku Zentralean gordetzeak herrialde afrikarren independentzia ekonomiko eta lehiakortasunean eragin negatibo nabarmenak izan zitezkeen, bereziki likidezia faltatik eratorritakoak.

Bestalde, nahiz eta bi zonalde ekonomikoetako dibisek antzinako frankoarekiko eta gaur egungo euroarekiko moneta-parekotasun berdina izan, ez dira haien artean trukagarriak. Honek integraziorako barrera ekonomiko handia suposa dezake, eta agian, hori izan zen hasiera batean Frantziak izan zuen helburua. Herrialde berrien muga politikoak (zenbaitetan, artifizialak) ezarri ziren bezala, arlo monetarioan estrategia berdintsua jarraitu zela esan daiteke: *divide and rule*.

CFA frankoaren erabilerak nagusiki interes frantsesei mesede egin arren, datuei begira herrialde afrikarrentzat ere onurak ekarri zituela dirudi, behintzat hasieran. 60ko eta 70eko hamarkadetan, UEMOA eta CEMAC-eko Estatu kideek Saharaz hegoaldeko gainerako herrialdeek baino hazkunde tasa handiagoa zuten. Zehazki, BPG errealearen batz besteko hazkunde tasa %2'9 handiagoa zen, eta urteko esportazio errealeen batz besteko hazkunde tasa, %5'8 handiagoa. Horrez gain, urteko inflazio tasa baxuagoa zuten (mediana %11'6koa zen, inguruko herrialdeena %14a zelarik)<sup>116</sup>.

Hala eta guztiz ere, oparotasun horrek ez zuen luzaroan iraun. Franko frantsesak XX. mendearen bigarren erdian izandako debaluazio ugariak CFA frankoa bide beretik eraman zuten, herrialde afrikarrak inflazioa kontrolatzeko mekanismo eta babes barik utziz<sup>117</sup>. 1994an, Nazioarteko Moneta Funtsaren agindua dela medio eta berraktibatze ekonomikoa ekarriko zuelakoan, bere balioa %50era murriztu zuen CFA frankoaren izugarritzko debaluazioa eraman zen aurrera. Devaluazio hori CFA frankoaren kanbio-tasa errealekiko deskonexio-aldi luzearen beharrezko ondorio gisa ikusi zen<sup>118</sup>. Izan ere, kanbio finkoa izateak halabeharrez benetan izan beharko lukeen kanbio-tasatik urruntzea dakar, ez baita hura neurtzeko herrialde afrikarren ekonomia eta egoera aintzat hartzen.

Hitz gutxitan esanda, harreman neokolonial ageri-ageri honek, defentsa akordioen antzera Frantziak historikoki kooperazio sinbolo moduan aurkeztu duena, antzinako kolonien

---

<sup>116</sup>TANDIAN, Dieynaba: "Les suites de la dévaluation du franc CFA de janvier 1994", *L'actualité économique, Revue d'analyse économique*, 74. bol., 3. zk., 1998, 562. or.

<sup>117</sup>ARANCÓN, Fernando: *op. cit.*

<sup>118</sup>GNIMASSOUN, Blaise: "Mésalignements du franc CFA et influence de la monnaie ancre", *Économie & prévision*, 200-201 zk., 212, 100. or.

dependentzia ekonomikoa hirurogei urte geroago bere horretan mantentzea lortu du, hamalau Estatu subiranoren moneta politikaren gaineko erabateko kontrola egikaritzuz. Zonalde ekonomiko bereiztuen bitartez integrazio ekonomiko afrikarra oztopatu duen bitartean, kanbio finko eta askeak enpresa europarrek (bereziki, frantsesek) antzinako lurralde kolonialak esplotatu eta etekinak Europara inolako kosturik jasan gabe eramatea ahalbidetu du<sup>119</sup>.

Amaitzeko, aipatu beharra dago azken urteotan CFA frankoaren biziraupenaren inguruko iritzi kritikoak nabarmenki ugartu eta indartu direla<sup>120</sup>. Testuinguru polemiko honetan, Emmanuel Macron presidente frantsesak 2019an Alassane Ouattara Boli Kostako presidentearekin izandako bileran CFA frankoaren desagertzea gertu dagoela adierazi zuen<sup>121</sup>. Autoritate frantsesen partetik paktu kolonialaren azken aztarnak ezabatzeke egitasmoa era kategoriko eta argian azaltzen den lehendabiziko aldia da, baina momentuz, urtebete pasata, ez da inolako aldaketarik atzeman.

## 5. DESKOLONIZAZIO EREDU EZBERDINAK: ALJERIA ETA BOLI KOSTA

Behin eta berriro azpimarratu den bezala, deskolonizazio prozesua hala edo nola geldiarazteko ahalegin frantsesek porrot egin zutelarik eta Nazio Batuen 1514 (XV) Ebazpenak bultzatuta, ordura arte Frantziaren botere pean egondako koloniek, salbuespenak salbuespen, *status* hori atzean utzi eta era baketsuan Estatu subirano independenteak bihurtu ziren 1960. urtean.

Alde batetik, garai hartan salbuespenez independentzia lortu ez zuten kolonien artean Frantziarentzat “garrantzitsuenak” Aljeria dugu. Berez, kolonia terminoa erabiltzea ez da guztiz zuzena, lurralde aljeriarra Errepublikan Frantsesaren parte gisa ulertzen zuten eta Eliseoan. Hori dela eta, Aljeriaren deskolonizazio prozesua bereziki zaila izan zen, Frantziak ez baitzuen inolaz ere formalki departamentu frantses arrunt bat zen lurraldeari independentzia aitortzea onartuko. Gatazka franko-aljeriarrak izaera armatua hartu zuen, zortzi urte iraun zituen gerra (1954 – 1962) ekarri zuelarik.

---

<sup>119</sup>ARANCÓN RUIZ, Fernando: *op. cit.*

<sup>120</sup>“Manifestations d’opposants au franc CFA en Afrique et en région parisienne”, *Le Monde*, 2017ko irailaren 18a. [https://www.lemonde.fr/afrique/article/2017/09/18/manifestations-d-opposants-au-franc-cfa-en-afrique-et-en-region-parisienne\\_5187205\\_3212.html](https://www.lemonde.fr/afrique/article/2017/09/18/manifestations-d-opposants-au-franc-cfa-en-afrique-et-en-region-parisienne_5187205_3212.html), 2021eko urtarrilaren 18an ikusia.

<sup>121</sup>“La fin du franc CFA annoncée par Emmanuel Macron et Alassane Ouattara”, *Le Monde*, 2019ko abenduaren 21a. [https://www.lemonde.fr/afrique/article/2019/12/21/la-mort-du-franc-cfa-annoncee-par-emmanuel-macron-et-alassane-ouattara\\_6023752\\_3212.html](https://www.lemonde.fr/afrique/article/2019/12/21/la-mort-du-franc-cfa-annoncee-par-emmanuel-macron-et-alassane-ouattara_6023752_3212.html), 2021eko urtarrilaren 18an ikusia.

Beste alde batetik, 1960an independentzia lortutako herrialdeek, oro har, harreman estuak mantendu zituzten Frantziarekin, lotura horiek kooperazio akordioen bidez egonkortuz. Erlazio adiskidetsuenak garatutako herrialdeen artean, besteak beste, Boli Kosta dugu. *Françafrique* terminoa, hain zuzen, 1960tik 1993ra bitartean presidente bolikostar izandako Félix Houphouët-Boigny-k asmatu zuen. Nahiz eta gerora kutsu negatiboa hartu zuen, bere asmatzaileak Frantzia eta herrialde afrikar frankofonoen arteko osagarritasun politiko eta ekonomikoari erreferentzia egiteko erabili izan zuen, metropoli ohiarekiko harremanen egonkortzea positiboki ikusten zuelarik.

Labur esanda, Aljeria eta Boli Kostak bizi izandako independentzia prozesuak oso ezberdinak izan ziren, eta horrek gerora Frantziarekin izango zituzten harremanetan nahitaez eraginak izan zituen. Atal honen helburua herrialde bien testuinguru eta ekonomien oinarriak aztertu eta konparaketa xumea burutzea da, bakoitzak Frantziarekin mantendutako lotura post-kolonialetan arreta berezia ipiniz.

## **5.1. Aljeria: integraziotik haustura biolentora**

### **5.1.1. Independentzia aurreko testuingurua eta Aljeriako gerra (1954 – 1962)**

Inbasio frantsesa 1830ean eman zen, garai hartan Aljeria Inperio Otomandarraren parte zelarik. Ofizialki, Aljeria lurralde frantsesa izatera 1848. urtean pasa zen, urte horretan eratutako II. Errepublika Frantsesaren Konstituzioko 109. artikulua hala deklaratu zuen eta<sup>122</sup>. Frantziak lurralde aljeriarrean ezarritako domeinu koloniala 130 urtetan zehar luzatu zen, eta nola ez, ezberdinkeria izan zuen oinarri.

Lan honen 3. atalean azaldu den bezala, diskriminazioaren oinarrian hiritartasunaren auzia zegoen. 1862. urtetik aurrera, Aljeriako biztanle oro frantses izatera pasa zen, baina nazionalitatea izateak ez zuen herritar guztientzat hiritartasuna lortzea ekarri, zeina Aljeriako “indigenei” (juduak<sup>123</sup> eta musulmanak) ukatu zitzaizen. Estatus indigenak ez hiritarra, ez atzerritarra izatea suposatzen zuen, kolono frantsesek eta haien ondorengotzak (*pieds-noirs* bezala ezagututakoak<sup>124</sup>) zituzten eskubideetaz gozatzeko aukera ezabatuz: plano politikoan, ez

---

<sup>122</sup>1848ko Konstituzioa hurrengo estekan irakurgai: <https://www.conseil-constitutionnel.fr/les-constitutions-dans-l-histoire/constitution-de-1848-ii-republique>, 2021eko urtarrilaren 23an ikusia.

<sup>123</sup>Hasiera batean, musulmanek jasandako diskriminazio maila bera pairatzen zuten, 1870. urteko Crémieux Dekretuak hiritar frantsesen maila berean kokatu zituen juduak. Hori lortzeko, haien ohiturazko zuzenbidearen arabera jarduteari uko egin zioten. Musumanak, aldiz, ez zeuden halakorik onartzeko prest. Gai honen inguruan sakontzeko, ikusi: NEBOT, Didier: “Juifs d’Algérie et français”, *Inflexions*, 26. zk., 2014, 111-114 or.

<sup>124</sup>Termino hau ez zen bakarrik Aljerian erabiltzen. Kontrol frantses pean zeuden bestelako herrialde ipar afrikarretan, Tunez eta Marokon hain zuzen, ohikoa zen.

zuten bozka eskubiderik; plano juridikoan, zuzenbide zibilari dagokionez, familia eta ondorengotza arau murriztaileagoak aplikatzen zitzaizkien, eta bereiztutako erregimen penala zuten (arestian aipatutako *indigénat*, alegia)<sup>125</sup>.

De Gaullek 1944ko martxoaren 7an sinatutako ordenantzaren bitartez, *indigénat* erregimena abolitu eta musulmanek hiritartasun frantsesa izan zezaten onartu zuen, 65.000 aljeriarri, emakume zein gizon, eragin zielarik<sup>126</sup>. Bozka eskubideari dagokionez, gizonezko hiritar aljeriarrek 1947an eskuratu zuten bitartean, emakumeek 1958ra arte itxaron behar izan zuten, generoa dela eta eskusio politikoa pairatuz juridikoki pareko hiritartasun estatusa izan arren<sup>127</sup>.

Pixkanaka, Frantzia dominazio kolonial formalaren inplikazioak erreformatuz eta nolabait bigunduz joan zen, baina aljeriarrek luzaroan aldarrikatutako kontzesioak beranduegi heldu ziren, Aljeria eta metropoliaren arteko harremanetan tentsioak geroz eta nabariagoak zirelarik. Hiritartasun estatus orokortua lortu eta hamar urte geroago, 1954. urtean alegia, tentsio horiek gatazka armatu bilakatu ziren, gerora Aljeriako independentzia gerra gisa ezagutuko zena.

Garai hartan, Frantzia galdutako Indotxinako gerra kolonialetik irten berria zen, segituan beste batean murgildu zelarik. II. Mundu Gerra osteko testuinguruan, inperioaren biziraupena ziurtatzeko bitarteko belikoak erabiltzeak Errepublika Frantsesak nazioarteko komunitatean zuten irudia mindu zuen, eta 1959an de Gaullek estrategia aldatu eta autodeterminazioaren alde kokatu zuen bere burua, erreferendum bat egiteko posibilitatea planteatuz<sup>128</sup>. Herri aljeriarrak era askean erabaki zezan onartu arren, de Gaullek ez zen inoiz 1958an Kairon deklaraturako Errepublika Aljeriarraren behin behineko gobernuari legitimazioa aitortzera iritsi<sup>129</sup>.

Gauzak horrela, 1961ean Aljeriaren autodeterminazioari buruzko erreferenduma ospatu zen, zeinetan %74'99ak baietza eman zuen (hautesle-errolak Frantzia, Aljeria eta itsasoaz haraindiko lurraldeen biztanleak barne bildu zituen)<sup>130</sup>. Dena den, frantsesek

---

<sup>125</sup>BLÉVIS, Laure: “La citoyenneté française au miroir de la colonisation: étude des demandes de naturalisation des «sujets français» en Algérie coloniale”, *Genèses*, 53. zk., 2003, 29. or.

<sup>126</sup>Aljeriako musulman frantsesen estatutuari buruzko 1944ko martxoaren 7ko ordenantza hurrengo estekan irakurgai: <https://www.legifrance.gouv.fr/jorf/id/JORFTEXT000000692009>, 2021eko urtarrilaren 28an ikusia.

<sup>127</sup>ANDRÉ, Marc: “Algériennes: quelle citoyenneté? (années 1930 – années 1960)”, *Clio. Femmes, Genre, Histoire*, 43. zk., 2016, 95. or.

<sup>128</sup>Charles de Gaulle garaiko presidente frantsesak 1959ko martxoaren 16an autodeterminazio aljeriarrari buruz emandako hitzaldia, hurrengo estekan ikus eta entzungai: <https://enseignants.lumni.fr/fiche-media/00000000088/allocution-du-general-de-gaulle-du-16-septembre-1959-en-faveur-de-l-autodetermination.html>, 2021eko urtarrilaren 28an ikusia.

<sup>129</sup>PERVILLÉ, Guy: “Trente ans après: Réflexions sur les accords d'Évian”, *Revue française d'histoire d'outre-mer*, 79. bol., 296. zk., 1992, 369. or.

<sup>130</sup>Erreferendumaren emaitzak eta xehetasunak, hurrengo estekan eskuragarri: <https://mjp.univ-perp.fr/france/ref1961.htm>, 2021eko urtarrilaren 23an ikusia.



autodeterminazioaren alde egiteak ez zuen nahitaz Aljeriako herriarekiko elkartasuna suposatzen: IFOP-ek (*Institut Français d'opinion publique*) 1960an egindako inkestean arabera frantsesen %60ak aljeriarren, ipar afrikarren eta arabeen inguruko irudi txarra zuten<sup>131</sup>. Arestian aipatu bezala, kolonialismo frantsesak aldarrikatutako *mission civilisatrice* eta honek inplizituki zekarren arrazismoa oso errotuta zeuden metropoliko gizartean.

Gatazka hasieran hartutako posizio politikoak erlaxatu eta autodeterminazioari atea ireki arren, gerrak, zeinetan bando printzipalak ejertzito frantsesa eta FLN aljeriarra (*Front de Libération Nationale*) izan ziren, beste urtebete bat iraun zuen, 1962an Eviango Akordioak sinatu zituzten arte. Akordio hauen bitartez, martxoaren 18an su-etetearen truke Aljeriak Estatu independentea bihurtu zedin onartu zuen Frantziak<sup>132</sup>. Gatazka armatuari amaiera emateaz aparte, etorkizuneko harreman franko-aljeriarren gidalerro izango ziren bestelako baldintzak ezarri ziren, arlo ezberdinei eragiten zietenak<sup>133</sup>.

Nahiz eta akordio hauen testuingurua berezia izan zen, batik bat sarraskiarekin amaitzeko urgentziak definitutakoa, Eviango Akordioek Frantziak gainerako kolonia ohiekin sinatutako kooperazio akordioen egitura oso antzekoa dute, interes frantsesak ahalik eta hobekien babestea helburu zutelarik. Hitzartutakoen artean, alor garrantzitsuenak hurrengokoak lirateke:

- Moneta arloan, nahiz eta frankoa atzean utzi eta moneta propioa (dinar aljeriarra) eratzea onartu, Aljeria zona frankoaren parte izatea akordatu, eta Frantzia eta Aljeriaren artean transferentzia askatasuna egongo zela adostu zen, guzti hau betiere Aljeriaren garapen ekonomiko eta sozialarekin bateragarria izan beharko zelarik.
- Aurreko puntuarekin lotuta, hidrokarburoen erosketa franko frantsesetan burutzea posible izango zen.
- Konpainia frantsesek lehentasuna izango zuten meatzeak ustiatzeko baimenak eskuratzeko orduan.
- Autodeterminazioa deklaratu aurretik eskuratutako ondare eskubideak errespetatzeko betebeharra, bereziki frantsesek lurren gain zuten jabetzarekin lotutakoa.

---

<sup>131</sup>PERVILLÉ, Guy: "Antiracisme, décolonisation de l'Algérie et immigration algérienne en France", *Cahiers de la Méditerranée*, 61. zk., 2000, 125. or.

<sup>132</sup>Azpimarratzekoa da su-etetea deklaratzeko ez zuela indarkeria efektiboki gelditu. Are gehiago, Errepublika Frantsesaren eta FLN-ren arteko akordioak, OAS (*Organisation de l'armée secrète*) muturreko eskuineko talde terrorista frantsesak burututako atentatuek ugaritzea ekarri zuen

<sup>133</sup>Dokumentu osoa hurrengo estekan irakurgai: [https://peacemaker.un.org/sites/peacemaker.un.org/files/DZ-FR\\_620319\\_AccordsEvian.pdf](https://peacemaker.un.org/sites/peacemaker.un.org/files/DZ-FR_620319_AccordsEvian.pdf), 2021eko urtarrilaren 23an ikusia.

- Presentzia militar frantsesa Aljerian mantentzeko aukera, batik bat Mers-el-Kebir base militarra alokatzearen bitartez<sup>134</sup>.

Laburbilduz, akordio hauen bitartez Aljeria eta Frantzia kide pribilegiatu bihurtu ziren, bereziki moneta politika eta merkatu elkartrukeri dagokienez. Aljeriarrek Frantziaren mesedetan egindako kontzesio guzti hauek onar zitzaten, oro har gainerako herrialde afrikar frankofonoetan gertatu bezala, Frantziak Aljeriako garapena sustatzeko laguntza tekniko zein finantzarioa eskaini zuen.

Eviango Akordioak formalizatu eta bost hilabete geroago, 1962ko uztailaren 1ean hain zuzen, deskolonizazio prozesu aljeriarrari amaiera ofiziala emango zion independentziari buruzko erreferenduma ospatu zen, zeinetan %99'72ak baieztatu bozka eman zuen, partaidetza %91'87koa izanik (herri-kontsulta honetan, 1961ekoan ez bezala, soilik Aljeriako biztanleek hartu zuten parte, metropolia kanpo utzita)<sup>135</sup>.

Azkenik, 1959an Aljeria mantentzeak Estatu frantsesaren aurrekontuen %20a hartzen zuela azpimarratzekoa da, hau da, hezkuntza, garraio eta enplegu publikoaren garaiko aurrekontuak gehituta baino gehiago<sup>136</sup>. Datu honek zama kolonialaren tesia indartuko luke, kolonialismoaren oinarrian arrazoi ekonomikoek garrantzia izan arren paper erabakigarria izatetik urrun daudela agerian utziz. Beraz, Frantziak Aljeria bere kontrolpean mantentzeko izugarritzko ahaleginak burutzerako orduan interes ekonomikoek erlatiboki garrantzi gutxikoak izan zirela esan daiteke, bestelako arrazoiak gailendu zirelarik (besteak beste, hegemonia politiko eta kulturaren<sup>137</sup> biziraupena).

### **5.1.2. Independentzia osteko ekonomia eta Frantziarekiko lotura**

1960ko hamarkadan, Aljeriako ekonomia nekazaritzan oinarritzen zen, esportazioen %80a hartuz (portzentaje horren %53'3a ardo sektorearekin lotutakoa izanik). Gainera, nekazaritza esportazioak ia osotasunean merkatu frantsesera bideratzen ziren (%90)<sup>138</sup>. Gauzak horrela, Aljeriak nahitaez Frantziarekiko harremana mantentzeko beharra zuen, bere bezero nagusia zen

<sup>134</sup>Alokairu horren iraupena 15 urtekoa izan behar zen, akordio bidez luzagarria, baina 1967an gobernu aljeiarren aldeak erabakia hartu eta tropa frantsesak Aljeriatik bota zituen.

<sup>135</sup>Aljeriako Boletin Ofizialak erreferendumaren emaitzekin argitaratutako dokumentua hurrengo estekan irakurgai: <https://www.joradp.dz/JO6283/1962/001/FP3.pdf>, 2021eko urtarrilaren 23an ikusia.

<sup>136</sup>LEFEUVRE, Daniel: *Chère Algérie: la France et sa colonie, 1930-1962*, Flammarion, Paris, 2005, 11. or.

<sup>137</sup>Hegemonia kulturalari dagokionez, interesgarria da Frantziarentzat frankofoniak duen garrantziari buruz parentesi txiki bat irekitzea. Frantziaren botere pean egondako koloniek frantsesa hizkuntza ofizial gisa mantendu zuten bitartean (hala adostu baitzen Frantziarekin sinatutako kooperazio akordioetan), Aljeriaren kasuan erabateko haustura eman zen alor horretan, herrialdeko hizkuntza ofizial bakarra arabiera estandarizatua delarik.

<sup>138</sup>ISNARD, Hildebert: "L'Algérie ou la décolonisation difficile", *Méditerranée*, 3. zk., 1969, 326. or.

eta. Gatazka armatuak utzitako tentsio eta mesfidantzak bere horretan iraun zuten arren, plano ekonomikoan elkartrukeak mantentzea ezinbestekoa zen. 10. taulan adierazten den bezala, Frantziarekiko dependentzia hori pixkanaka txikitzen joan zen, baina hala eta guztiz ere, Eviango Akordioek ezarritako kooperazio dinamikek sustatuta, lotura indartsu mantendu zen.

**10. taula.** *Frantziaren zatia merkatu aljeriarrean*

	<b>1963</b>	<b>1964</b>	<b>1965</b>	<b>1966</b>	<b>1967</b>
<b>Esportazioak</b>	%75	%79	%77	%72	%60
<b>Inportazioak</b>	%81	%65	%70	%68	%62

Iturria: Isnard, H. (1969)

Nahiz eta lotura ekonomiko hori mantendu, azpimarratzekoa da lurralde aljeriarrean bizi eta hiriko populazioaren gehiengoa osatzen zuten milioi bat *pieds-noirs*-ek, gerran integrazio frantsesaren alde sutuki inplikatu zirenak, Aljeriak independentzia lortu bezain pronto alde egin zutela<sup>139</sup>. Hortaz, alor honetan kasu aljeriarra, esaterako, Hegoafrikako kasuaren antagonista da, azken herrialde honetan kolono britainiar gehienak bertan geratzea erabaki zuten eta.

Dena den, kolono frantsesak ez ziren Aljeriatik alde egin zuten bakarrak. Izan ere, aljeriar ugari Frantziara emigratu behar izan zuten, bi arrazoi nagusi bereiz daitezkeelarik: alde batetik, Frantziak langileak behar zituen, eta bestetik, kolonizazioak ekarritako lurren desjabetzeak aljeriarrak esku-huts utzi zituen<sup>140</sup>. 1962ko independentziaz geroztik Frantziara bideratutako emigrazio aljeriarra oso ugaria izan da, 2019an lurralde frantsesean 846.400 emigrante aljeriar eta horien 1.207.000 Frantzian jaiotako seme-alaba zeudela estimatzen zelarik<sup>141</sup>. Testuinguru hau aintzat harturik, emigrazioa eta mugikortasuna errazteko akordio franko-aljeriarrak ohikoak izan dira, lehendabizikoa 1968an formalizatu zelarik<sup>142</sup>.

<sup>139</sup>ALVAREDO, Facundo, COGNEAU, Denis eta PIKETTY, Thomas: "Income Inequality under Colonial Rule: Evidence from French Algeria, Cameroon, Tunisia, and Vietnam and comparisons with British colonies 1920-1960", 2020, 6. or. <https://halshs.archives-ouvertes.fr/halshs-03022276/document>, 2021eko urtarrilaren 23an ikusia.

<sup>140</sup>MEYNER, Pierrette eta MEYNER, Gilbert: "L'immigration algérienne en France: histoire et actualité", *Confluences Méditerranée*, 77. zk., 2011, 223. or.

<sup>141</sup>INSEE eta INED estatistika institutu frantsesen datuak: <https://www.insee.fr/fr/statistiques/3633212>, <https://www.ined.fr/fr/tout-savoir-population/chiffres/france/immigres-etrangers/descendants-dimmigres-par-pays-dorigine/>, 2021eko urtarrilaren 23an ikusia.

<sup>142</sup>Egun emigratio aljeriarrari Frantzian aplikagarri zaion erregimenaren xehetasunak hurrengo estekan eskuragarri: <https://www.immigration.interieur.gouv.fr/Europe-et-International/Les-accords-bilateraux/Les-accords-bilateraux-en-matiere-de-circulation-de-sejour-et-d-emploi/L-accord-franco-algerien>, 2021eko urtarrilaren 23an ikusia.

Arlo hertsiki ekonomikora bueltatuz, arestian esan bezala, Aljeriako Estatu jaioberriaren ekonomia lehen sektorean (ardo produkzioa nagusituz, bestelako laborantza aipagarrienak garia, garagarra, laranja, limoiak eta olibak izanik) oinarritzen zen, baina 1965etik aurrera bigarren sektorea garrantzia hartuz joan zen, petrolio erauzketa erdian kokatuz<sup>143</sup>. Sektore industrialaren goraldiak azpiegitura aljeriarren urritasunaren arazoa azaleratu zuen, kolonialismo frantsesak ez baitzuen Aljeria industrializatzeko asmorik izan. Burdin, fosfato, zink, berun, kobrea eta, azken hamar urtetan, gas natural eta petrolio meatzeak ustiatzera mugatu zen, lehengaiak metropolira eramane eta han eraldatzen zirelarik. Behin independentzia lortuta, Aljeriak ez zuen eraldaketa horiek tokian bertan burutzeko beharrezko azpiegiturarik<sup>144</sup>.

1970eko hamarkadan petrolioaren prezioak izan zuen gorakada aprobetxatuz, Aljeriak bete-betean industrializazio politikari ekin zion, estrategia nagusia funtzionatzeko prest zeuden fabrikak erostea izan zelarik. Politika honen helburua independentzia ekonomikoa lortzea eta azpigarapenetik ateratzea zen, baina alboko kalteak izan zituen: presazko industrializazioak izugarritzko landako exodoa eta hiri handien hazkunde anarkikoa ekarri zituen<sup>145</sup>.

Hidrokarburoei gagozkielarik, ezinbestekoa da Frantziak Eviango Akordioen bitartez honen gainean lortutako kontrol handia gogoratzea, gobernu aljeriarraren maniobra-marjinan nahitaez eragiten zuena. Presentzia frantsesak Aljeriako ekonomia industrialerako suposatzen zituen trabak ikusita eta hamasei hilabetetan zehar luzatu ziren alferreko negoziazioen ostean, 1971. urtean Houari Boumédiène Aljeriako presidentea, zeinak eredu estatal sozialista<sup>146</sup> baten alde egin zuen, hidrokarburoen nazionalizazioaren berri eman zuen, gobernu aljeriarrak erauzketa konpainia frantsesen gaineko kontrola hartuz, %51ko partaidetza eskuratuz<sup>147</sup>. Erabaki horren arrazoi nagusia petrolioaren prezioak berriro adosteko enpresa frantsesek emandako ukapen

---

<sup>143</sup>RIEKER, Pernille: *French Foreign Policy in a Changing World: Practising Grandeur*, Palgrave MacMillan, Londres, 2017, 44. or.

<sup>144</sup>ISNARD, Hildebert: "L'Algérie ou la décolonisation difficile", *Méditerranée*, 3. zk., 1969, 328. or.

<sup>145</sup>KABUNDA BADI, Mbuyi: "Las estrategias de desarrollo en África. Balance y alternativas", *Norba: Revista de historia*, 13. zk., 1993, 231-232 or.

<sup>146</sup>Aljerian izandako korrante sozialistak islamarekiko lotura berezia izan du, Egipto, Siria eta Libia bezalako herrialdeekin batera sozialismo arabieraren markoan kokatu eta korrante fundamentalistek kontrajarri zaiolarik. Honen harira, Aljerian jarrera erlijioso erradikalek garai batean izandako arrakasta aipatu beharra dago. 1989an erreforma konstituzionala burutu zen arte, Aljeriako sistema politikoa alderdi bakarrekoa zen, gobernu FLN-k osatzen zuelarik. Aipatutako erreforma hori dela medio, alderdi anitzeko sistema ezarri zen. Gauzak horrela, 1990ean FIS (*Front Islamique du Salut*) talde islamista fundamentalistak udal hauteskundeak irabazi zituen, eta urtebete geroago emaitza oso onak lortu zituen hauteskunde orokorretan. Muturreko korrante hauen goraldiaren aurrean, gobernu aljeriarrak 1992an FIS alderdia ilegalizatzea erabaki zuen. Gaur egungo egoerari dagokionez, Abdelmadjid Tebboune FLN alderdi ezkertiarreko kide izandakoa da presidentea, nahiz eta 2019ko hauteskundeetara hautagai independente gisa aurkeztu zen.


<sup>147</sup>GRIMAUD, Nicole: "Le conflit pétrolier franco-algérien", *Revue française de science politique*, 22. urtea, 6. zk., 1972, 1276. or.

kategorikoa izan zen. Benjamin Stora historialariak “petrolio-industriaren deskolonizazio” bezala kalifikatu izan du hidrokarburo aljeriarren nazionalizazioa<sup>148</sup>.

Politika industrialen areagotzea burutu eta hamar bat urte geroago, ekonomia jarduera bakar batean zentralizatzeko (herrialdeko diru sarreren %95a petrolioari lotuta zegoen) zekartzan arriskuak 1986ean gertatuko petrolio *crack*-a dela eta errealitate bihurtu ziren, sistemaren porrota eta akatsak agerian utziz: nekazaritza krisia, Aljeriak bere elikadura beharren bi heren inportatzera behartzen zuena; eta merkatu beltzak, kontrabandoak eta iruzur fiskalak elikatutako ekonomia paraleloaren garapena ekarri zutena<sup>149</sup>.

Ekonomiaren dibertsifikazio eskasak sortzen dituen arazoak agerikoak izan arren, Aljeriaren ekonomia oraindik ere petrolio sektorearekiko menpekotasun handia du, gas naturalak ere pisua duelarik<sup>150</sup>. Dena den, 10. grafikoan azaltzen den bezala, Aljeria 1986ko petrolio *crack*-ak izandako eragin negatiboen ostean hala edo nola bere onera itzuli eta hazkunde ekonomiko konstantea izatea lortu du, azken urteotan egoera meseta fasean egonkortuta dagoelarik.

**10. grafikoa. BPG eta biztanleriaren bilakaera Aljerian (1950-2018)**



Iturria: egiletza propioa, Maddison Project Database (2020) oinarritzat


<sup>148</sup>Gai honen inguruan sakontzeko, ikusi: STORA, Benjamin: *Histoire d'Algérie depuis de l'indépendance: 1962-1988*, La Découverte, Paris, 1994.

<sup>149</sup>KABUNDA BADI, Mbuyi: *op. cit.*, 232. or.

<sup>150</sup>2020. urtera arte, Aljeria Espainiaren gas hornitzaile nagusia zen, posizio hori hogeitahamar urtetan zehar okupatu zuelarik. Informazio gehiago hurrengo estekan eskuragarri: <https://www.algerie-eco.com/2020/04/17/algerie-nest-plus-le-premier-fournisseur-de-gaz-naturel-de-lespagne/>, 2021eko otsailaren 1ean ikusia.

Frantziarekiko harremanari dagokionez, historikoki izandako tirabirak aparte, lotura estuak mantendu dira. 2019. urtean, Aljeriara bideratutako esportazio frantsesek 4.925 milioi euro suposatu zituzten, merkatu gai nagusiak zerealak, produktu farmazeutikoak, automobilak eta erregaiak izanik. Txinaren atzetik, Frantzia Aljeriaren bigarren hornitzailea da, zortzi mila enpresa frantses inguru haien produktuak Aljeriara bideratzen dituztelarik. Konpainia frantsesentzat, Aljeria Afrikako lehen merkatu da, mundu mailan hogeigarren postuan kokatuz. Aljeriatik eratorritako inportazio frantsesei dagokienez, 2019. urtean Aljeriako bezero garrantzitsuena bihurtu (2018an hirugarrena zen) eta inportazioek 4.195 milioi euroko balioa izan zuten, %95a hidrokarburoak izan zirelarik<sup>151</sup>. Datu honek agerian uzten du, behin eta berriz aipatu den bezala, Aljeriak petrolioarekiko duen menpekotasun sendoak bere horretan dirauela.

**11. grafikoa.** Frantziak Aljeriarekin mantendutako merkatu harremanen bilakaera (milioi €)



Iturria: Douanes françaises (2020)

**5.2. Boli Kosta: Frantziaren lagun kuttuna**

1960. urtean kolonia frantses izandako herrialde afrikar gehienek independentzia lortu zutenean, Frantziak politika neokolonialak martxan jarri eta aldi berean publikoki bere burua zuritzeko eskaparate baten beharra zuen. Boli Kosta izan zen, hain zuzen ere, garai kolonialeko menpekotasun loturak betikitzen zituzten kooperazio akordioen aurpegi atsegina azpimarratzeko balio izan zuen herrialde egonkor eta oparoa, *Françafrique*-n harribitxia.


**5.2.1. Le miracle ivoirien: kakaoaren indarra (1960 – 1980)**

Arestian aztertutako herrialdeen kasuetan ez bezala, Boli Kostaren independentzia osteko ekonomiak ez du petrolioarekin inolako zerikusirik (herrialdeak lehengai honen zenbait

<sup>151</sup>Frantzia eta Aljeriaren arteko harreman ekonomiko bilateralen inguruko xehetasunak: <https://www.tresor.economie.gouv.fr/Pays/DZ/relations-economiques-bilaterales#:~:text=Commerce%203A%20L'Alg%C3%A9rie%2C%20un,v%C3%A9hicules%20automobiles%20et%20de%20carburants> , 2021eko otsailaren 1ean ikusia.

erreserba baditu ere), honen oinarri nagusia kakao produkzioa izan delarik<sup>152</sup>. Boli Kosta betidanik munduko kakao ekoizle nagusia izan da, eta gaur egun ere posizio hori mantentzen du. Historikoki, produkzio osoaren %40 baino gehiago bere esku egon da, 2019. urtean bi milioi tona kakao baino gehiago ekoitzita ekoizpen globalaren %50 gainditu zuelarik.

### 12. grafikoa. Munduko kakao ekoizle nagusiak (2019)



Iturria: egiletza propioa, ICCO-ren datuak (2020) oinarritzat

1960 eta 1978 bitartean, Boli Kostaren BPG-k batz best 9'5eko hazkundea izan zuen<sup>153</sup>. Kakaoaren prezioaren igoera bitarteko, Boli Kostako Estatu jaioberriak garapen proiektu garrantzitsuak martxan jartzea lortu izan zuen, garai hartako hazkunde bolikostarrari erreferentzia egiteko *miracle ivoirien* (literalki, "mirari bolikostar") esamoldea sortu zelarik. Gobernuak aplikatutako eredu ekonomiko liberala, Afrikan ezohikoa eta Aljeriak hartutako eredu sozialistarekiko oso ezberdina, *miracle ivoirien* delakoaren arrazoi gisa aurkeztu zen<sup>154</sup>. Azpimarratzekoa da, hala eta guztiz ere, mirari bolikostarraren atzean, oparotasun ekonomikoa alde batera utzita ustelkeria eta erregimen autoritario bat ezkututzen zirela<sup>155</sup>.

Kakaoaren sektoreak eskainitako oparoaldiaz gain, Boli Kostaren kokapen geografikoak ekonomiaren garapenean eragin positiboak izan zituen, itsasotik zetozen lehengaiak kostalde

<sup>152</sup>Kafearen ekoizpenak bere pisua du ere, baina ez da kakao bezain garrantzitsua. Nekazaritza eremuan, kakaoa eta kafeaz aparte aurki daitezkeen laborantza bolikostar ohikoenak ñamea, mandioka, palma olio, azukrea, artoa, anakardoa, kautxua, platanoa eta kotoia dira.

<sup>153</sup>AUSTIN, Gareth: "African Economic Development and Colonial Legacies", *International Development Policy*, 2010, 6. par. <https://journals.openedition.org/poldev/78>

<sup>154</sup>KABUNDA BADI, Mbuyi: *op. cit.*, 230. or.

<sup>155</sup>MÍGUEZ, Alberto: "Costa de Marfil: un fracaso francés en África", *Real Instituto Elcano*, 189. zk., 2004. [http://www.realinstitutoelcano.org/wps/portal/rielcano\\_es/contenido?WCM\\_GLOBAL\\_CONTEXT=/elcano/elcano\\_es/zonas\\_es/ari+189-2004](http://www.realinstitutoelcano.org/wps/portal/rielcano_es/contenido?WCM_GLOBAL_CONTEXT=/elcano/elcano_es/zonas_es/ari+189-2004), 2021eko otsailaren 2an ikusia.


gabeko herrialdeetara (bereziki Burkina Faso eta Mali) iristeko portu bolikostarretatik igarotzea ezinbestekoa zen eta<sup>156</sup>.

Harreman franko-bolikostarrei dagokienez, Félix Houphouët-Boigny presidenteak hautatutako liberalismo ekonomikoak garai kolonialean herrialdean finkatutako enpresa frantsesen presentzia betikotu eta aliantza egonkorak burutzea ekarri zuen, esportazioen erregimen babestuari eutsi ziotenak<sup>157</sup>.

### 5.2.2. Mirariaren amaiera: krisialdia eta gatazka armatuak

13. grafikoak agerian uzten duen bezala, mirari bolikostarrak ez zuen betirako iraun. Independentzia lortu eta hogeitaz geroago, Boli Kostak ordura arte izandako hazkunde ekonomikoa inbidiagarria atzean utzi eta krisi ekonomiko sakon batean murgildu zen. Petrolioarekiko menpekotasun ekonomikoa duten herrialdeen antzera, Boli Kostaren kakaorekiko dependentziak hogeitaz gero zehar izandako susperraldia ezerezean uzteko gai ziren arrisku handiak suposatzen zituen. Beste hitz batzuetan esanda, ekonomia bolikostarra kakaoaren prezioen fluktuazioekiko oso kaltebera zen, eta 1980ko hamarkadan herrialdea galzorian jarri zuena kakaoaren prezioen beherakada izan zen, alegia<sup>158</sup>.

#### 13. grafikoa. BPG eta biztanleriaren bilakaera Boli Kostan (1950-2018)



Iturria: egiletza propioa, Maddison Project Database (2020) oinarritzat

1970etik 1979. urtera hazkunde azkarreko herrialdeen artean kokatu zen bitartean, 1998an Nazioarteko Moneta Funtsak eta Banku Mundialak “oso zorpetuta dagoen herrialde txiro”

<sup>156</sup>LORENZANA, Marcos: “Costa de Marfil: el desmoronamiento de un sueño africano”, *Instituto Español de Estudios Estratégicos*, 4. zk., 2016, 887. or.

<sup>157</sup>LOSCH, Bruno: “Coup de cacao en Côte d’Ivoire”, *Critique internationale*, 9. bol., 2000, 6. or.

<sup>158</sup>*Ibidem*.



bezala kalifikatu zuten, herrialde hauentzako laguntza programaren baitan bosgarrena kokatzen zelarik<sup>159</sup>. Urte batzuk lehenago, 1994an hain zuzen, bi instituzio hauek CFA frankoaren devaluazioarekin batera aurrekontuak murriztu eta erreforma estrukturalak burutzera behartu zuten Boli Kosta. Modelo neoliberalak lehendabiziko urteetan hazkunde ekonomikoa ekarri zuen arren, honek ez zuen luzaroan iraun, hurrengo hamarkadetan ezegonkortasun politiko eta ekonomikoa nagusituko zirelarik.

1999. urtean, Boli Kostak lehendabiziko Estatu kolpe militarra pairatu zuen, berrogei urtetan zehar izandako Afrikako herrialde egonkorrena izatearen ospe ona suntsitu zuena. Urtebete geroago, hala edo nola demokrazia berrezarri eta hauteskundeak ospatzea lortu zen, baina behin ezegonkortasunaren hazia landatuta, zaila izango zen atzera bueltatzea. Estatu kolpeak utzitako nahasmen testuinguru latzean eta antzinako mirari bolikostarra luzaroan ahanzturan erorita, Boli Kostak 2002 eta 2007 urteen artean gerra zibil gogor batean murgildu zen. Aipatzekoa da Frantziaren tropa militarrek, aurretiaz lurraldean aurkitzen zirenak, gatazkan “bakegile” gisa esku hartu zutela, nola ez. Urte batzuk geroago, 2011n, biolentziak berriro egin zuen eztanda, Laurent Gbabo presidentek Alassane Ouattara-k hauteskundeak irabazi zituela onartzeari uko egin zionean<sup>160</sup>.

XXI. mendearen hasieratik pairatutako istilu biolentoez aparte, arlo ekonomikoa ez da ezta ere bereziki baketsu edo lasaia izan azken bi hamarkadetan<sup>161</sup>. Ekonomiaren nazioartekotzeak, fusio-kontzentrazio prozesuetatik sortutako mundu mailako aktore pribatuen agerpenak, diru-mugimenduen jariakortasunarekin lotutako birmoldaketa ekonomikoen abiadurak eta azaldu berri den ezegonkortasun handiak hankaz gora jarri zuten Boli Kostako ingurune ekonomikoa. Herrialdeak kakaoaren merkatuan duen posizio hegemonikoak talde industrial handien arteko borrokaren muinean kokatu zuen, euren kokaguneak sendotzen saiatzen zirenak, baina baita Boli Kostak kakaoaren merkatu kondentsatuan duen nagusitasuna murrizten saiatzen zirenak ere<sup>162</sup>.

---

<sup>159</sup>JARRET, Marie-France eta MAHIEU, François-Régis: *La Côte d'Ivoire. De la déstabilisation à la refondation*, Harmattan, Paris, 2002, 24. or.

<sup>160</sup>ARANCÓN, Fernando: *op. cit.*

<sup>161</sup>Zenbait autorek Nazioarteko Moneta Funttsaren eta Banku Zentralaren gehiegizko esku sartzeak Boli Kostaren ezegonkortasuna sustatu dutelaren hipotesia plazaratu dute, arazo ekonomikoek istilu eta gatazka armatuen areagotzea elikatu dutelarik. Gai honen inguruan, ikusi CONTE, Bernard: “La responsabilité du FMI et de la Banque Mondiale dans le conflit de la Côte d'Ivoire”, *Études internationales*, 36. bol., 2. zk. 2005, 219-229 or.

<sup>162</sup>LOSCH, Bruno: *op. cit.*, 9. or.


### 5.2.3. Garapenerako laguntza frantsesarekiko dependentzia eta egungo egoera

Arestian aipatu den moduan, 1998az geroztik Boli Kosta oso zorpetuta dagoen herrialde txiroen kategorian kokatzen da, Afrikako herrialdeen artean eredu positiboa izateari aspaldi utzi ziolarik. Gauzak horrela, atzerritik datozen garapen laguntzekiko dependentzia izugarritzkoa da, non jatorri frantsesa dutenak nabarmenak diren.

Frantziako gobernuaren esanetan, garapenerako politika frantsesaren baitan Afrikak lehentasuna du, eskainitako laguntzen %40a (2'7 mila milioi euro) kontinente honetan kontzentratzen baita. 2019. urtean asistentzia gehien jaso zuen herrialdea Boli Kosta izan zen, zehazki 326 milioi euro jaso zituelarik. Bere atzetik, Kamerun (268 milioi euro) eta Maroko (250 milioi euro) dira lagunduenak<sup>163</sup>.

Merkataritza harreman franko-bolikostarrei dagokienez, nahiz eta historikoki bi herrialdeen arteko harreman diplomatikoak oso estuak izan diren, Boli Kostak ez du, Niger edo Gabonen kasuetan gertatzen den bezala, Frantziarentzat energia bezain estrategikoa den sektorerik. 14. grafikoan azaltzen den bezala, Frantziak Boli Kostara burututako esportazioek inportazioak gainditzen dituzte.

14. grafikoa. Frantziak Boli Kostarekin mantendutako merkatu harremanen bilakaera (€)



Iturria: Douanes françaises (2020)

Esportazio frantsesei dagokienez, Boli Kosta Hegoafrikaren atzetik Frantziaren bigarren bezero garrantzitsuena da Saharaz hegoaldeko Afrikan. Eskuratutako produktu nagusiak ekipamendu mekanikoak eta material informatikoak dira, orotarako salmenta frantsesen laurdena suposatzen


<sup>163</sup><https://www.diplomatie.gouv.fr/fr/politique-etrangere-de-la-france/developpement/les-chiffres-de-l-aide-francaise/>, 2021eko otsailaren 3an ikusia.

dutelarik. Horietaz gain, nekazaritza produktuak eta prestakin farmazeutikoak aipatzekoak dira<sup>164</sup>.

Inportazio frantsesak, logikoa den bezala, kakaoaren (orotarako erosketen herena) eta fruitu tropikalak bezalako bestelako nekazaritza produktuen inguruan kontzentratzen dira, Boli Kosta Saharaz hegoaldeko Afrikan Frantziak duen hirugarren hornitzailea delarik. Bere aurretik kolonia britainiar izandako Nigeria (hidrokarburoen inportazioa) eta Hegoafrika (automobilien inportazioa) kokatzen dira<sup>165</sup>.

Amaitzeko, Boli Kostak ekonomia dibertsifikatzeko ahaleginak egin dituela azpimarratu beharra dago, eta BPG-ri erreparatuta, bigarren eta hirugarren sektoreek lehenengo sektorea baino pisu handiagoa dute. Fenomeno honen arrazoia bestelako produktu eta zerbitzuekin alderatuta nekazaritza laborantzek duten prezio baxuagoa litzateke, BPG osoaren baitan portzentaje txikiagoa suposatzen dutenak.

### 15. grafikoa. Ekonomia bolikostarra sektoreka



Iturria: egiletza propioa, Banku Mundiala eta Our World in Data (2020) oinarritzat

Hala eta guztiz ere, lehen sektoreak BPG-ren %20a besterik ez aportatzeak ez du esan nahi Boli Kostak kakao sektorearekiko dependentsia ezabatzea lortu duenik, 15. grafikoan ikus daitekeen bezala populazio aktiboaren ia %50a sektore horretan aritzen da eta. Are gehiago, kakaoa jarduera ekonomiko bolikostarraren bizkar-hezurra izaten jarraitzen du: esportazio totalen %35 eta %40 bitartean suposatzen du, eta bost milioi pertsona inguruk egiten dute lan kakao ekoizpenean<sup>166</sup>. Menpekotasun horrek eta kakaoaren prezioak behera egiteak dakartzaten

<sup>164</sup>[https://www.tresor.economie.gouv.fr/Pays/CI/relations-bilaterales#:~:text=D'apr%C3%A8s%20les%20Douanes%20fran%C3%A7aises,Ivoire%20sont%20quant%20%C3%A0%20elles,2021eko\\_otsailaren\\_3an\\_ikusia.](https://www.tresor.economie.gouv.fr/Pays/CI/rerelations-bilaterales#:~:text=D'apr%C3%A8s%20les%20Douanes%20fran%C3%A7aises,Ivoire%20sont%20quant%20%C3%A0%20elles,2021eko_otsailaren_3an_ikusia.)

<sup>165</sup>*Ibidem*.


<sup>166</sup>“Informe económico y comercial de Costa de Marfil”, *Oficina Económica y Comercial de España en Abidjan*, 2020, 7. or.

ondorio suntsitzaileen aurrean, Boli Kostak eta Ghanak planto egin zuten 2019. urtean: tona bakoitzeko 2.300 euroko prezio minimoa ez ordaintzekotan, 2020-21 kanpainen kakaorik salduko ez zutela adierazi zuten<sup>167</sup>.

### 5.3. Ekonomia eta garapen adierazle nagusien arteko konparaketa

Deskolonizazio eredu oso ezberdinak izateaz aparte, Aljeria eta Boli Kostaren ekonomien oinarriak, petrolio batetik eta kakaoa bestetik, nolabait estandarizatutako konparaketa bat burutzea zailtzen dute. Hala ere, biek puntu komun oso garrantzitsua dute: produktu nagusi batekiko dependentzia handia, ekonomiaren dibertsifikazio eskasa ondorio duena.

#### 16. grafikoa. Aljeria, Boli Kosta eta Frantziaren BPG per capitaren alderaketa (USD)



Iturria: egiletza propioa, Maddison Project Database (2020) oinarritzat

16. grafikoari erreparatuta, independentzia lortu berri zuten garaian BPG per capita antzekoa zutela ikus daiteke, baina parekotasun horrek ez zuen luzaroan iraun. Boli Kostak teorikoki antzinako potentzia kolonial frantsesaren sostenguaz gozaten zuen arren, hau ez zen kakaoaren prezioak behera egin aurretik zuen egonkortasuna berrezartzeko nahikoa izan, eta Aljeriaren BPG-k behin 1986ko petrolio krisia gaindituta pixkanaka gora egin zuen bitartean, ekonomia bolikostarra bere onera itzuli ezinean jarraitu zuen.

Datu hauek kontutan hartuta, deskolonizazio ostean Frantziarekiko harreman adiskidetsuak mantentzea hasiera batean planteatu zen bezain probetxugarria ez zela ondoriozta daiteke. Izan

<sup>167</sup>“La guerra de los gigantes del chocolate”, *El País*, 2019ko uztailearen 4a. [https://elpais.com/economia/2019/07/04/actualidad/1562268144\\_659989.html](https://elpais.com/economia/2019/07/04/actualidad/1562268144_659989.html), 2021eko otsailaren 3an ikusia.


ere, mirari bolikostarrak iraun zuen bitartean gobernu frantsesak harrotasunez aurkezten zituen antzinako koloniarrekiko lotura estuak, baina behin oparoaldia amaitua, ez zuen ordura arte bere lagun kuttuna izandakoa erreskatatzera joateko ahalegin handirik egin.

Aljeriak aldiz, Frantziarekiko haustura burutzean alor ekonomikoan bizirauteko harremanak mantendu zituen, bestelako alor estrategikoetan (bereziki moneta politika eta defentsan, kolonia ohi askoren kasuan gobernu frantsesaren eskuetan geratu zirenak) independentzia eta jarduteko autonomia aldarrikatuz. Hortaz, nahiz eta Estatu subirano bihurtu zenetik ez duen gainerako koloniek izandako gidaritza frantses hurbila izan, honek ez du ekonomia aljeriarraren hazkunderan eragin negatiborik izan.

Bestalde, Aljeria zein Boli Kosta Frantziaren BPG-rekin alderatzekotan, ezberdintasunak ikaragarriak dira. Aurretiaz azpimarratu izan den bezala, ekonomia frantsesa deskolonizazioaren prismatik aztertzekotan, inperioaren desegiteak (garaiko autoritateen ustez katastrofikoak izango zenak) ez zuen inolako eragin txarrik izan. Are gehiago, korrante cartieristarekin bat egitekotan, deskolonizazioa Frantziarentzat onuragarria izan zela argudiatzea posible litzateke, datuei begira BPG-k hazten jarraitu duelako.

Azkenik, ikuspuntu zabalago bat izatearren, herrialde bakoitzaren garapen indizeei erreparatzea komeni da. Frantzia, noski, kolonia ohien aurretik 26. postuan kokatzen da, Aljeriak 91. postua eta Boli Kostak 162. postua okupatzen dutelarik.

### 17. grafikoa. Garapen indizeen arteko alderaketa



Iturria: egiletza propioa, Human Development Report (2020) oinarritzat

17. grafikoak giza garapen indize “orokorra” (HDI, *human development index*) biltzeaz aparte, bestelako egoera adierazleak hartzen ditu: GDI (*gender development index*), genero perspektiba

aintzat hartzen duen garapen indizea; GII (*gender inequality index*), aurrekoari kontrajartzen zaiona, genero arrakala aztertuz; MPI (*multidimensional poverty index*), pobrezia buruzkoa; eta IHDI (*inequality-adjusted HDI*), populazioaren baitan dagoen desberdintasun mailaren arabera HDI doitzen duena.

Indize guztiak aintzat hartuta, Aljeriak Boli Kostak baino egoera hobea duela ondoriozta daiteke. GII-ren kasuan izan ezik, non ezberdintasuna nabaria den, gainerako indizeetan Frantziak duen mailara pixkanaka hurbiltzen ari da. Boli Kostaren kasuan, beste bi herrialdeetatik gehien bereizten duen eta ekonomia bolikostarraren egoera kaxkarra agerian uzten duen adierazlea MPI da, pobrezia neurtzen duena. Egun, Boli Kostako populazioaren %46a pobrezia egoeran bizi da, Aljeriaren kasuan portzentaje hori %2'6an kokatzen delarik. Frantzian zuzenean ez da MPI kalkulatu, herrialde garatu bezala pobrezia multidimentsionalaren tasa nulua dela ondorioztatzen baita.

## 6. ONDORIOAK

Lan honen hasieran planteatutako galderari (norentzat izan zen onuragarria deskolonizazioa?) helduta, erantzun zuzen bakarra topatzea zaila dela deritzot, independentzia lortutako herrialde bakoitzaren kasua ezberdina da eta. Dena den, Afrikako lurralde frantsesen deskolonizazioan zentratzekotan, gauza bat argia da: metropoliak ordura arte izandako hegemonia formala galdu zuten, bai, baina gainerako aspektuetan kolonien gainetik irabazle irtetea lortu zuten.

Behin eta berriz nabarmendu den bezala, kolonialismoaren azken urteetan inperioa mantentzea gastu bezala aurkeztera iritsi zen arren, Frantziak interes ekonomiko oso indartsuak zituen Afrikan. Deskolonizazioa dela medio, Eliseoa zama kolonialaz askatu zen, eta aldi berean, ondo neurtutako politika neokolonialen bitartez interes frantsesak babesteko ezinbesteko harremanak mantendu zituen.

Kooperazio akordioek harreman kolonialen betiketzea ekarri zuten, baina azpimarratzekoa da gobernu frantsesa ez dela izan *Françafrique*-n biziraupenaren errudun bakarra. Azken finean, denboran zehar Frantziaren dominazio politikek elite afrikarren oniritzia behar izan dute, gehienbat Estatuaren arteko akordioetan eta bertako gobernuek konpainia frantsesei onartutako emakidetan oinarritu dira eta. Egia da 1960ko hamarkadan sinatutako akordio hauen testuingurua botere-harreman oso markatuetan oinarritu zela, eta herrialde afrikarrek independentziaren truke Frantziak proposatutako baldintzak nahitaez onartzera behartuta ikusi

zituzten haien buruak. Izan ere, kolonialismoak jarrera paternalistekin lotura oso indartsua du, eta herrialde subirano jaioberrien imaginario kolektiboan oso errotuta zegoen Frantziaren “laguntza” baztertzea galzoria ekarriko zuela.

Beraz, independentzia garaian autoritate afrikarren makurtzea eta Frantziarekiko mendeko loturak mantentzea, nahiz eta gaitzesgarria izan daitekeen, ulergarria da, kooperazio-akordioen parte sinatzaile ziren metropoli eta kolonia ohiak ez baitzeuden maila berean, desparekotasuna agerikoa zelarik. Hala eta guztiz ere, argi eta garbi gaitzesgarria dena akordio bidegabe horien biziraupena onartu izana da, elite afrikarrek haien herriaren interesen aurretik lotura frantsesak betikotzeak eskainitako onura pertsonalak lehenetsi dituztelarik<sup>168</sup>. Onartu beharra dago zenbait kasutan gobernu afrikarrek negoziazioetan planto egin eta Frantziari aurre egin diotela, baina hau ez da oro har ohiko praktika izan. Bestalde, konexio guzti hauen estutasuna herrialde afrikarrek hein handi batean izan dituzten erregimen autokratiko eta ustelen aurrean Frantziak jarrera malguagoa eta ez hain kritikoa azaltzearen arrazoia izan daiteke.

Tutoretza eta babes frantsesetik alde egitea kolonia ohientzat hondamendia ekarriko zuelako ideari berriro helduta, denborak tesi hau okerra dela agerian utzi du. Datuei begira, lotura adiskidetsu eta oso estuak mantentzeak ez du oparoaldi iraunkorrik ekarri, aztertutako Boli Kostaren kasua, tirabiraz betetako harreman franko-aljeriarrekin alderatuta, adibide oso argigarria delarik.

Azken finean, Frantziak kolonia ohi bakoitzarekin independentzia ostean mantendutako harremanek kasuan kasu ezberdintasunak izan dituzten arren, ibilbide-orri frantsesak patroi argia jarraitu izan du: herrialde afrikarren baliabideak agortu arte ustiatzea, eta behin hauek amaituta, herrialde horren egoera edonolakoa izanda ere lortutako etekinekin alde egitea. Planteatutako dinamika honen adibide esanguratsu bat gogoratzearen, Niger hain zuzen ere egoera hori bizitzen ari da gaur egun: Areva enpresa frantsesaren partetik hamarkada luzeetan zehar ustiapen monopolioa pairatu ostean, uranio meatzeak itxiera bidean daude, ekonomia nigertarra bere oinarritzko jarduera dena galtzeko zorian dagoelarik.

Gaurko egoera deskolonizazio prozesu garaiarekin alderatzekotan, interes ekonomiko frantsesak Afrikan presente mantendu diren arren, progresiboki garrantzia galtzen joan direla agerikoa da. Sektore estrategikoak kenduta (uranioa eta petrolio, hain zuzen) Frantziaren presentzia ekonomikoa kontinente afrikarrean mantso-mantso atzera egiteko bidean dago

---

<sup>168</sup>Jakina da herrialde afrikar ugarietan ustelkeria mailak oso altuak direla. Adibide zehatz bat jartzearren, Boli Kostak CPI (*Corruption Perception Index*) delakoan 36/100 puntu ditu, maila “onargarrietatik” oso urrun kokatuz.

(enpresa frantsesen ezarpena zona frankoan munduan duten presentziaren %4 baino ez du suposatzen<sup>169</sup>).

Hala eta guztiz ere, antzina izandako presentziaren leuntze gradualak ez du esan nahi Frantziaren itzalak Afrikatik behin betiko alde egiteko asmoa duenik, interes geostrategikoak oso indartsu mantentzen dira eta. Egonkortasunaren izenean antzinako kolonien barne gatazketan esku hartze militar frantsesa betidanik ohikoa izan da<sup>170</sup>.

Beste hitz batzuetan esanda, deskolonizazioa baino, neokolonialismoa izan zen (eta oraindik ere bada) Frantziarentzat onuragarri suertatutako fenomeno. Teknika sotilaz erabiliz eta inolako jazarpenik jasan gabe, inperio kolonialak indarrean jarraituko balu bezala ia kontinente oso bat zapaltzen segitu du. Azken urteotan, autoritate frantsesek politika afrikarra atzean uzteko asmoa eta *Françafrique* egitura lotsagarriaren desagertzea aldarrikatu eta hura gertu dagoela adierazi dute. Kolonia ohietan luzaroan oihartzuna izan duten iritzi kritikoak metropolian finkatzean hasiak dira, baina momentuz ezer gutxi aldatu da.

Bada *liberté, égalité, fraternité* goiburua metropolitik kanpo hedatu eta esportatzeko garaia.

---

<sup>169</sup>BOST, François: *op. cit.*, 140. or. Perspektiban jartzearen, presentzia hori %38koa da Mendebaldeko Europan, %11koa Ipar Amerikan, Asian edo Ekialdeko Europan.

<sup>170</sup>Azken hamarkadan, bereziki aipatzekoak dira Malin eta Afrika Erdiko Errepublikan aurrera eramandako operazioak.



## BIBLIOGRAFIA

ALVAREDO, Facundo, COGNEAU, Denis eta PIKETTY, Thomas: “Income Inequality under Colonial Rule: Evidence from French Algeria, Cameroon, Tunisia, and Vietnam and comparisons with British colonies 1920-1960”, 2020. <https://halshs.archives-ouvertes.fr/halshs-03022276/document>

ANDRÉ, Marc: “Algériennes: quelle citoyenneté? (années 1930 – années 1960)”, *Clio. Femmes, Genre, Histoire*, 43. zk., 2016, 94-116 or.

ARANCÓN RUIZ, Fernando: “La Francáfrica o el imperio neocolonial francés”, *El Orden Mundial*, 2015. <https://elordenmundial.com/la-francafrica-imperio-neocolonial-frances/>

ARENDT, Hannah: “Imperialism, Nationalism, Chauvinism”, *Review of Politics*, 7. bol., 4. zk., 1945, 441-463 or.

AUSTIN, Gareth: “African Economic Development and Colonial Legacies”, *International Development Policy*, 2010. <https://journals.openedition.org/poldev/78>

BERQUE, Jacques: “Sciences sociales et décolonisation”, *Tiers-Monde*, bol. 3, 9-10 zk., 1962, 1-15 or.

BLÉVIS, Laure: “La citoyenneté française au miroir de la colonisation: étude des demandes de naturalisation des «sujets français» en Algérie coloniale”, *Genèses*, 53. zk., 2003, 25-47 or.

BOST, François: “France, Afrique, mondialisation. Le «pré carré» français à l’épreuve de la décolonisation et de la mondialisation de l’économie”, *Bulletin de l’Association de géographes français*, 87. zk., 2010, 131-144 or.

BURBANK, Jane eta COOPER, Frederick: *Empires in World History. Power and the Politics of Difference*, Princeton University Press, Princeton, 2010.

CAMERON, Rondo: *Historia económica mundial. Desde el paleolítico hasta el presente*, Alianza, Madril, 1992.

CEAMANOS, Roberto: *El reparto de África. De la Conferencia de Berlín a los conflictos actuales*, Casa África, Madril, 2017.

COOPER, Frederick: “Reformando el Imperio, acabando con el Imperio: Francia y África Occidental, 1944-1960”, Sergio CABALLERO SANTOS (itz.), *Revista Académica de Relaciones Internacionales*, 8. zk., 2008, 1-23 or.

- COOPER, Frederick: “Alternativas al nacionalismo en África Francesa, 1945 – 1960”, Alicia CAMPOS SERRANO (itz.), *Vínculos de Historia*, 3. zk., 2014, 101-121 or.
- DIMIER, Véronique: “Construire l’association entre l’Europe communautaire et l’Afrique indépendante”, *Matériaux pour l’histoire de notre temps*, 77. zk., 2005, 32-38 or.
- DUVAL, Jérôme eta PETITJEAN, Olivier: “Expulsada de Gabón, la multinacional francesa Veolia recurre otra vez al arbitraje internacional”, Marisa ALMOR SABIRÓN (itz.), *Cultura para la esperanza: instrumento de análisis para la realidad*, 109. zk., 2018, 35-38 or.
- ETEMAD, Bouda: “L’Europe et le monde colonial. De l’apogée des empires à l’après-décolonisation”, *Revue économique*, 51. bol., 2. zk., 2000, 257-268 or.
- GARCÍA LUENGOS, Jesús: “Explotación de los recursos naturales en África: la industria extractiva”, *Centro de Investigación sobre Seguridad y Gobernanza Transnacional*, 2014.
- GNIMASSOUN, Blaise: “Mésalignements du franc CFA et influence de la monnaie ancre”, *Économie & prévision*, 200-201 zk., 212, 91-119 or.
- GRANADOS ERAZO, Oscar: “Imperios y colonialismo, 1870-1914 ¿Una era de Globalización, Geopolítica o Nacionalismo Económico?”, *Revista de Relaciones Internacionales, Estrategia y Seguridad*, 5. bol., 1. zk., 2010, 51-82 or.
- GRIMAUD, Nicole: “Le conflit pétrolier franco-algérien”, *Revue française de science politique*, 22. urtea, 6. zk., 1972, 1276-1307 or.
- GUEYE, Cheik: “La gestión de la richesse pétrolière au Gabon”, in AKITOBİ, Bernardin eta COOREY, Sharmini (zuz.): *Richesse pétrolière en Afrique centrale. Les moyens d’une croissance solidaire*, FMI, 2012, 205-221 or.
- HOBSON, John A.: *Imperialism: A Study*, James Pott & Co., New York, 1902.
- ISNARD, Hildebert: “L’Algérie ou la décolonisation difficile”, *Méditerranée*, 3. zk., 1969, 325-340 or.
- JARRET, Marie-France eta MAHIEU, François-Régis: *La Côte d’Ivoire. De la déstabilisation à la refondation*, Harmattan, Paris, 2002.
- KABUNDA BADI, Mbuyi: “Las estrategias de desarrollo en África. Balance y alternativas”, *Norba: Revista de historia*, 13. zk., 1993, 227-244 or.
- LENIN, Vladimir I.: *El imperialismo, fase superior del capitalismo*, Fundación Federico Engels (itz.), Madril, 1916. [https://www.fundacionfedericoengels.net/images/PDF/lenin\\_imperialismo.pdf](https://www.fundacionfedericoengels.net/images/PDF/lenin_imperialismo.pdf)

- LEFEUVRE, Daniel: *Chère Algérie: la France et sa colonie, 1930-1962*, Flammarion, Paris, 2005.
- LORENZANA, Marcos: “Costa de Marfil: el desmoronamiento de un sueño africano”, *Instituto Español de Estudios Estratégicos*, 4. zk., 2016, 884-916 or.
- LOSCH, Bruno: “Coup de cacao en Côte d’Ivoire”, *Critique internationale*, 9. bol., 2000, 6-14 or.
- MARSEILLE, Jacques: “Colonisation, décolonisation et capitalisme (1880 – 1960)”, *Vingtième Siècle, revue d’histoire*, 4. zk., 1984, 39-48 or.
- MARTIN, Guy: “The Historical, Economic, and Political Bases of France’s African Policy”, *The Journal of Modern African Studies*, 23. bol., 2. zk., 1985, 189-208 or.
- MARTIN, Guy: “Uranium: a Case-Study in Franco-African Relations”, *The Journal of Modern African Studies*, 27. bol., 4. zk., 1989, 625-640 or.
- MARTÍNEZ CARRERAS, José U.: “Descolonización y no alineamiento en la reciente bibliografía”, *Cuadernos de Historia Contemporánea*, 11. zk., 1989, 155-168 or.
- MARTÍNEZ CARRERAS, José U.: “La ONU y la descolonización”, *Cuadernos de Historia Contemporánea*, 17. zk., 1995, 79-99 or.
- MAZZEO, Domenico: “Les Nations Unies et la diplomatie de la décolonisation”, *Études internationales*, 3. zk., 1972, 330-354 or.
- MEYNER, Pierrette eta MEYNER, Gilbert: “L’immigration algérienne en France: histoire et actualité”, *Confluences Méditerranée*, 77. zk., 2011, 219-234 or.
- MÍGUEZ, Alberto: “Costa de Marfil: un fracaso francés en África”, *Real Instituto Elcano*, 189. zk., 2004.  
[http://www.realinstitutoelcano.org/wps/portal/rielcano\\_es/contenido?WCM\\_GLOBAL\\_CONTEXT=/elcano/elcano\\_es/zonas\\_es/ari+189-2004](http://www.realinstitutoelcano.org/wps/portal/rielcano_es/contenido?WCM_GLOBAL_CONTEXT=/elcano/elcano_es/zonas_es/ari+189-2004)
- MORAL MARTÍN, Pablo: “Níger, atrapado en el uranio”, *El Orden Mundial*, 2018.  
<https://elordenmundial.com/niger-atrapado-en-el-uranio/>
- MOREUX, René: “La République française doit entrer avec ses Tom dans une Europe instituée, mais la France seule pourra négocier et décider dans nos pays d’outre-mer”, *Marchés coloniaux du monde*, 1953.

- MUÑOZ VALENZUELA, Heraldo: “Strategic Dependency: relations between core powers and mineral-exporting periphery countries”, in KEGLEY, Charles W. et MCGOWAN, Patricia (ed.): *The Political Economy of Foreign Policy Behavior*, SAGE, Londres, 1981, 191-212 or.
- NKRUMAH, Kwame: *Neo-Colonialism: the last stage of imperialism*, Thomas Nelson & Sons, Londres, 1965.
- PERVILLÉ, Guy: “Trente ans après: Réflexions sur les accords d’Évian”, *Revue française d’histoire d’outre-mer*, 79. bol., 296. zk., 1992, 367-381 or.
- PERVILLÉ, Guy: “Antiracisme, décolonisation de l’Algérie et immigration algérienne en France”, *Cahiers de la Méditerranée*, 61. zk., 2000, 121-130 or.
- PORGÈS, Laurence: “L’aide et l’opinion française ou les limites de la générosité”, *Afrique contemporaine*, 188. zk., 1998, 127-146 or.
- RIEKER, Pernille: *French Foreign Policy in a Changing World: Practising Grandeur*, Palgrave MacMillan, Londres, 2017.
- SHILLINGTON, Kevin: *Historia de África*, Palgrave MacMillan, 2005.
- SMOUTS, Marie-Claude: “Décolonisation et sécession: double morale à l’ONU?”, *Revue française de science politique*, 4. zk., 1972, 832-846 or.
- TANDIAN, Dieynaba: “Les suites de la dévaluation du franc CFA de janvier 1994”, *L’actualité économique, Revue d’analyse économique*, 74. bol., 3. zk., 1998, 561-581 or.
- THÉNAULT, Sylvie: “L’indigénat dans l’Empire français: Algérie/Cochinchine, une double matrice”, *Monde(s)*, 12. bol., 2. zk., 2017, 21-40 or.
- VERSCHAVE, François-Xavier: *Noir silence: qui arrêtera la Françafrique?*, Les Arènes, Paris, 2000.
- WIRTH, Eszter: “La maldición de los recursos naturales y los hidrocarburos: una revisión de literatura”, *Papeles de Europa*, 31. bol., 1. zk. 2018, 19-39 or.
- WOODRUFF, William: “La aparición de una economía internacional: 1700 – 1914”, in CIPOLLA, Carlo M. (koord.): *Historia económica de Europa*, Ariel, Madril, 1979, 302-388 or.

## I ERANSKINA. Gaur egungo lurralde ez-autonomoak, eskualdeka

<i>Lurraldea</i>	<i>Lurralde ez-autonomoen zerrendan sartzea</i>	<i>Potentzia administratzailea</i>	<i>Azalera (km<sup>2</sup>)</i>	<i>Populazioa</i>
<b>AFRIKA</b>				
Mendebaldeko Sahara	(1963)	( <sup>1</sup> )	266.000	582.000
<b>ATLANTIKOA ETA KARIBE</b>				
Aingira	1946	Erresuma Batua	95	15.397
Bermudak	1946	Erresuma Batua	53'35	63.921
Birjina Uharte Britainiarrak	1946	Erresuma Batua	153	31.197
Falklandak ( <sup>2</sup> )	1946	Erresuma Batua	264	65.813
Montserrat	1946	Erresuma Batua	103	4.649
Saint Elena	1946	Erresuma Batua	948'2	42.953
Birjina Uharte Estatubatuarrak	1946	Estatu Batuak	352	105.000
<b>EUROPA</b>				
Gibraltar	1946	Erresuma Batua	5'8	34.0003
<b>PAZIFIKOA</b>				
Samoa Estatubatuarra	1946	Estatu Batuak	200	60.300
Polinesia Frantsesa	1946-47 eta 2013	Frantzia	3.600	276.300
Guam	1946	Estatu Batuak	540	183.875
Kaledonia Berria	1946-1947 eta 1986	Frantzia	18.575	268.767
Pitcairn	1946	Erresuma Batua	35'5	43
Tokelau	1946	Zeelanda Berria	12'2	1.499

(<sup>1</sup>) 1976ko otsailaren 26an, Espainiak Idazkari Nagusiari Espainiako Gobernuak Saharako lurraldean zuen presentzia behin betiko amaitzen zuela jakinarazi zion. Beharrezkotzat jo zuen jasota uztea aurrerantzean Espainiak ez zuela loturarik izango lurralde horren administrazioari lotutako nazioarteko erantzukizun ororekin, lurralde horretarako ezarritako aldi baterako administrazioan zuen partaidetza bertan behera utzi baitzuen. 1990ean, Batzar Nagusiak Mendebaldeko Sahararen auzia Mendebaldeko Saharako herriak konpondu behar zuen deskolonizazio gatazka bat zela berretsi zuen.

(<sup>2</sup>) Argentina eta Britainia Handiko Gobernuen artean subiranotasun gatazka dago.

Iturria: Nazio Batuen Erakundea, 2020

## II ERANSKINA. Antzinako lurralde ez-autonomoak eta fideikomiso lurraldeak

<i>Potentzia edo Autoritate administratzailea</i>	<i>Lurraldea</i>	<i>Estatutua</i>	<i>Urtea</i>
<b>AUSTRALIA</b>			
	Cocosak (Keeling Uharteak)	Estatutuan aldaketa	1984
	Papua/Papua Ginea Berria <sup>(1)</sup>	Independentzia Papua Ginea Berria izenpean	1975
	Nauru Fideikomiso Lurraldea <sup>(2)</sup>	Independentzia Nauru izenpean	1968
	Papua/Papua Ginea Berria Fideikomiso Lurraldea <sup>(1)</sup>	Independentzia Papua Ginea Berria izenpean	1975
<b>BELGIKA</b>			
	Kongo Belgikarra	Independentzia Kongo-Leopoldville izenpean, ostean Zaire, gaur egun Kongo-ko Errepublika Demokratikoa <sup>(3)</sup>	1960
	Ruanda-Urundi Fideikomiso Lurraldea	Independentzia Burundi izenpean Independentzia Ruanda izenpean	1962 1962
<b>DANIMARKA</b>			
	Groenlandia	Estatutu aldaketa	1954 <sup>(4)</sup>
<b>FRANTZIA</b>			
	Afrika Ekuatorial Frantsesa	Independentzia Txad izenpean Independentzia Gabon izenpean	1960 1960
	Afrika Ekuatorial Frantsesa	Independentzia Kongo (Brazzaville) izenpean, gaur egun Kongoko Errepublika	1960
	Ubangi Shari	Independentzia Afrika Erdiko Errepublika izenpean	1960
	Establezimendu frantsesak Indian	Estatutu aldaketa	1948
	Establezimendu frantsesak Ozeanian <sup>(5)</sup>	Estatutu aldaketa	1947
	Guyana Frantsesa	Estatutu aldaketa	1947
	Somalilandia Frantsesa	Djibuti izenpean independentzia	1977
	Guadalupe eta bere dependenziak	Estatutu aldaketa	1947
	Reunion	Estatutu aldaketa	1947
	San Pedro eta Mikelon	Estatutu aldaketa	1947
		Independentzia Dahomey izenpean, gaur egun Benin	1960
	Mendebaldeko Afrika Frantsesa	Independentzia Boli Kosta izenpean Independentzia Mauritania izenpean	1960 1960
	Mende- baldeko Afrika Frantsesa	Independentzia Senegal izenpean Independentzia Volta Garaia izenpean, gaur egun Burkina Faso	1960 1960
	Ginea Frantsesa	Independentzia Ginea izenpean	1958
	Sudan	Independentzia Mali izenpean	1960
	Niger	Independentzia Niger izenpean	1960

	Independentzia Camboya izenpean	1948
Indotxina	Independentzia Laos izenpean, gaur egun Laos Errepublikak Demokratiko Popularra	1949
	Independentzia Viet Nam izenpean	1948
Madagaskar eta bere dependentziak	Independentzia Madagaskar izenpean	1960
	Independentzia Comoras izenpean	1975
Maroko	Independentzia Maroko izenpean	1956
Martinika	Estatutu aldaketa	1947
Hebrida berriak kondominio anglofrantsespean	Independentzia Vanuatu izenpean	1980
Kamerungo Fideikomiso Lurraldeak	Independentzia Kamerun izenpean	1969
Togolandiako Fideikomiso Lurraldeak	Independentzia Togo izenpean	1960
Tunez	Independentzia Tunez izenpean	1956
<b>ITALIA</b>		
Somalialandiako Fideikomiso Lurraldeak	Independentzia Somalia izenpean (Somalialandia Britainiarrarekin bateratuta)	1960
<b>HERBEHEREAK</b>		
Antilla Nederlandarrak	Estatutu aldaketa	1955 <sup>(6)</sup>
India Nederlandarrak	Independentzia Indonesia izenpean	1949
Ginea Berri Nederlandarra	Indonesiara batu Irian Jaya izenpean	1963
Surinam	Estatutu aldaketa	1955 <sup>(6)</sup>
	Independentzia Surinam izenpean	1975
<b>ZEELANDA BERRIA</b>		
Cook Uharteak	Estatutu aldaketa	1965
Niue Uharteak	Estatutu aldaketa	1974
Mendebaldeko Samoa Fideikomiso Lurraldeak	Independentzia Mendebaldeko Samoa izenpean, gaur egun Samoa	1962
<b>PORTUGAL</b>		
Angola, Kabinda enklabeak	Independentzia Angola izenpean	1975
Cabo Verdeko artxipelagoa	Independentzia Cabo Verde izenpean	1975
Goa eta bere dependentziak	Estatutu aldaketa	1962
Macao eta bere dependentziak	Estatutu aldaketa	1972
Mozambique	Independentzia Mozambique izenpean	1975
Ginea Portugesa	Independentzia Ginea-Bissau izenpean	1974
São João Batista de Ajudá	Estatutu aldaketa	1972
São Tome eta Principe	Independentzia Santo Tome eta Principe	1975
Timor/Ekialdeko Timor <sup>(7)</sup>	Independentzia Timor-Leste izenpean	2002
<b>HEGOAFRIKA</b>		
Hego-mendebaldeko Afrika	Batzar Nagusiak Hegoafrikaren mandatua amaitu <sup>(8)</sup>	1966
	Independentzia Namibia izenpean	1990

ESPAINIA			
	Fernando Poo eta Muni Ibaia	Independentzia Ekuatore Ginea izenpean	1968
	Ifni	Estatutu Aldaketa	1969
BRITAINIA HANDIA			
	Aden	Independentzia Hegoaldeko Yemen izenpean, ostean Yemen (Yemengo Errepublika Arabiarrarekin batera)	1967
	Antigua (Haizebeko Uhartek)	Independentzia Antigua eta Barbuda izenpean	1981
	Bahamak	Independentzia Bahamak izenpean	1973
	Barbados	Independentzia Barbados izenpean	1966
	Basutolandia	Independentzia Lesotho izenpean	1966
	Bechuanalandia	Independentzia Botswana izenpean	1966
	Honduras Britainiarra	Independentzia Belize izenpean	1981
	Somalilandia Britainiarra	Independentzia Somalia izenpean (Italiak administratutako Somalilandiako Fideikomiso Lurraldera batu zen)	1960
	Brunei	Independentzia, gaur egun Brunei Darussalam	1984
	Zipre	Independentzia Zipre izenpean	1960
	Dominika (Haizealdeko Uhartek)	Independentzia Dominika izenpean	1978
	Fiji	Independentzia Fiji izenpean	1970
	Gambia	Independentzia Gambia izenpean	1965
		Independentzia Kiribati izenpean	1979
	Gilbert eta Ellice Uharteak	Independentzia Tuvalu izenpean	1978
	Urrezko Kosta	Independentzia Ghana izenpean	1957
	Granada (Haizealdeko Uhartek)	Independentzia Granada izenpean	1974
	Hong Kong	Estatutu aldaketa	1972
	Jamaika	Independentzia Jamaika izenpean	1962
	Kenya	Independentzia Kenya izenpean	1963
	Malaysiako Batasuna	Independentzia Malaysiako Federazio izenpean, gaur egun Malaysia <sup>(9)</sup>	1957
	Malta	Independentzia Malta izenpean	1964
	Maurizio	Independentzia Maurizio izenpean	1968
	Nigeria	Independentzia Nigeria izenpean	1960
	Ipar Borneo <sup>(9)</sup>	Estatutu aldaketa	1963
	Ipar Rhodesia	Independentzia Zambia izenpean	1964



Nyassalandia	Independentzia Malawi izenpean	1964
Sarawak <sup>(9)</sup>	Estatutu aldaketa	1963
Seychelleak	Independentzia Seychelleak izenpean	1976
Sierra Leona	Independentzia Sierra Leona izenpean	1961
Singapur	Independentzia Singapur izenpean	1965
Salomon Uharteak	Independentzia Salomon Uharteak izenpean	1978
Hego Rhodesia	Independentzia Zimbabwe izenpean	1980
Saint Kitts-Nevis-Aingira (Haizebeko Uharteak)	Independentzia Saint Kitt eta Nevis izenpean (Aingiratik banatuta)	1983
Saint Lucia (Haizealdeko Uharteak)	Independentzia San Vicente eta Granadinak izenpean	1979
Swazilandia	Independentzia Swazilandia izenpean, gaur egun Eswatini	1968
Trinidad eta Tobago	Independentzia Trinidad eta Tobago izenpean	1962
Kamerungo Fideikomiso Lurraldea	Iparraldea Nigeriara batu	1961
	Hegoaldea Kamerunera batu	1961
Tanganyikako Fideikomiso Lurraldea	Independentzia Tanganyika izenpean <sup>(10)</sup> , gaur egun Tanzaniako Errepublikak Batua	1961
Togolandiako Fideikomiso Lurraldea	Urrezko Kosta lurralde ez-autonomora batu zen, Ghana osatzeko	1957
Uganda	Independentzia Uganda izenpean	1962
Zanzibar	Independentzia Zanzibar izenpean <sup>(10)</sup> gaur egun Tanzaniako Errepublikak Batua	1963
<b>ESTATU BATUAK</b>		
Alaska	Estatu Batuen estatua izatera pasa	1959
Hawaii	Estatu Batuen estatua izatera pasa	1959
Panamako Kanaleko Eremua	Estatutu aldaketa	1947
Puerto Rico	Estatutu aldaketa	1952 <sup>(11)</sup>
Pazifikoko Uharteen Fideikomiso Lurraldea	Mikronesiako Estatu Federatuen izenpean, Estatu libre elkartua izatera pasa	1990
	Marshall Uharteak izenpean, Estatu libre elkartua izatera pasa	1990
	Iparraldeko Mariana Uharteak izenpean, Estatu libre elkartua izatera pasa	1990
	Palau izenpean, Estatu libre elkartua izatera pasa	1990

- (1) Nazio Batuen Batzar Nagusiak, 1971ko abenduaren 20ko 2865 (XXVI) Ebazpenean, lurralde horien herriak adierazitako nahiari eta Nazio Batuen helburuei jarraiki, Papua lurraldearen eta Ginea Berriko Fideikomiso Lurraldearen izena aurrerantzean “Papua Ginea Berria” izango zela erabaki zuen.
- (2) Nauru fiduziarioki batera administratzeko akordioa Australiak, Zeelanda Berriak eta Erresuma Batuak sinatu zuten, Batzar Nagusiak 1947ko azaroaren 1eko 140 (II) Ebazpenean onartu zuelarik.
- (3) Nazio Batuen Erakundera 1960. urtean batu zenean, Estatu Zaire deitzen zen, baina 1997. urtean Kongoko Errepublika Demokratikoa deitzera pasa zen.
- (4) 1953ko irailaren 3an, Danimarkako Gobernuak Idazkari Nagusiari Groenlandia Danimarkako Erresumaren parte izatera pasatzen zela jakinarazi zion, 1953ko ekainaren 5ean onartutako erreforma konstituzionalaren bitartez. Aldaketa konstituzional horren ondorioz, Danimarkako Gobernuak Gutunaren XI. Kapituluak Groenlandiarekiko ezarritako erantzukizuna iraungitzen zuela ulertu zuen, eta Gutunaren 73. artikulua ezarritako informazio helarazpena egiteari utzi zion. Batzar Nagusiak 1954ko azaroaren 22ko 849 (IX) Ebazpenean erabaki hau ontzat eman zuen.
- (5) Ikusi Polinesia Frantsesa Lurralde ez-autonomoen taulan (2. *taula*) eta irudian (1. *irudia*).
- (6) Danimarkako kasuan bezala, Herbehereak Idazkari Nagusiari Antilla Nederlandarren eta Surinamen gaineko informazio fluxua etetea jakinarazi zion 1955eko martxoaren 30ean, Herbehereen Erresumako Konstituzioan aurreikusitako xedapenak helaraziz. Batzar Nagusiak oniritzia 1955eko abenduaren 15ean eman zuen, 945 (X) Ebazpenaren bitartez. Surinam 1975. urtean independente izatera pasa zen.
- (7) Hasiera batean, Ekialdeko Timor Portugalek administratu zuen, eta 1975 eta 1999 Indonesiak kontrolatu zuen. 2002ko maiatzean lortu zuen independentzia, eta urte bereko irailean Timor-Leste izenpean Nazio Batuen Kide izatera pasa zen.
- (8) Batzar Nagusiak, 2145 (XXI) Ebazpenaren bitartez, Hegoafrikak lurralde hori administratzeko inolako eskubiderik ez zuela erabaki zuen, eta aurrerantzean, Hego-mendebaldeko Afrika Nazio Batuen erantzukizun zuzenpean izatera pasa zen.
- (9) Malaysiako Federazioa Malaysia bihurtu zen 1963an, Singapur, Sabah (Ipar Borneo) eta Sarawak Federazio berriari onartu ostean. Singapur independente izatera pasa zen 1965ean.

(10) 1964ko apirilaren 26an Tanganyika eta Zanzibar-en Batasunaren artikuluen berrespenaren ostean, Tanganyika eta Zanzibar-eko Errepublika Batua Nazio Batuen Kide bakarra izatera pasa zen. 1964ko azaroaren 1ean Tanzaniako Errepublika Batua izena hartu zuen.

(11) 1953ko urtarrilaren 19an eta martxoaren 20an egindako komunikazioen bitartez, Puerto Rico Estatu Libre Elkartu gisa osatu izana jakinarazi zitzaion Nazio Batuen Erakundeari. Estatutu hau 1952ko uztailaren 25ean argitaratutako Puerto Ricoko Konstituzioaren bitartez sartu zen indarrean, eta data honetan Estatu Batuek Gutunaren 73. artikuluko informatzeko betebeharra bertan behera utzi zuten. Batzar Nagusiak 1953ko azaroaren 27ko 849 (VIII) Ebazpenaren bitartez erabaki hau ontzat eman zuen.

Iturria: Nazio Batuen Erakundea, 2020